

LIBRARY OF THE UNIVERSITY OF TORONTO



ATV



KARMEN'GO AMAREN

ESKU - LIBURUA

«KARMEN'GO ARGIA»REN

ELIZ-LIBURUA

KARMEŃ GO AMAREN

ESKU-LIBURUA

«KARMEŃ GO AMAREN»

ESKU-LIBURUA

H-13761

R-37623

ATV
18921

Karmen'go Amaren

Esku-liburua

KARMELDAR AITA DOROTEO'K
EUSKERAZ ERATUA



JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLAN
ZORNOTZA—AMOREBIETA
1931

NIHIL OBSTAT

Larreae, 1 Decembris 1930.

Fr. Martinus a P. C. Mariae,

CENSOR

IMPRIMI POTEST

S. Sebastiani, 11 Decembris 1930.

Fr. Redemptus a P. Jesu,

PROVLIS.

NIHIL OBSTAT

Victoriae, 6 Novembris 1930.

Emmanuel Lecuona,

CENSOR

IMPRIMATUR

Victoriae, die 10 Novembris 1930.

VICARIUS GENERALIS,

Dr. Justus de Echeguren.



KARMEN'GO AMA



Eskeintza

¡Karmen'go lora eder, masti loratzu, zerruko argi, Maria sorkundez garbia; zure Karmeldarai Eskapularioaren bidez bereziko maitasun eta indar eman zigun Karmen'go Ama samur ta itxasoko izara! Zuri biotz osoz Esku-liburu au eskeintzen dizut. Bere bidez zure Amatasun eta eskubide aundia ezagutu, zure Karmen'go Eskapularioaren laguntza ta eskeintz pozgarriak adirazi ta anima asko zeruratu ditezela egizu, Ama maite oñek.

¡Itxasoko Izara, gure ontzitzoa olatuen artean ondamu ta goñotozko aizez nekaturik ikusten dezu; guretzat eztago lufean laguntzarik, zeruan eztegu izar bat baño ikusten, eta Izar ori zu zera, Maria!

Karmen'go Eskapularioa zoñean degula itxaso au beldurgabe igaro ta betiko kai edeñera eldu gaitzela. Alan izan dedila.

IRAKURLEARI

*Karmen'go Ama gozo ta zoragarria
¿nork ez du ezagutzen? eta bere Eska-
pularioaren eskeintz arigari ta pozgar-
iak jakiñik ¿nork ez du goralduta mai-
teraziko Ama ori? Ala ere, gipuzkeraz
beñepein, eztegu Karmen'go Amari
otoitz egiteko liburu egokirik.*

*Praga'ko Jesus Auraganako jaiera
eder, eztitsu ta samurra beñiz alde guz-
tietara zabaldurik arkitzen da noski,
baita euskaldunen artean ere biotz mai-
tale asko ditu aspaldi ezkeroz; beraga-
tik Aur maitagari ori otoitz eta elizki-
zunak euskeraz egiteko Esku-liburu ego-
ki bat bear-bearekoa zan.*

*Idaztitxo au ortarako idatzi degu,
bada, karmel-lorategiko lore usaintsu
orien usai gozoak alde guztietara za-
baltzeko.*

Baña karmel-lorategian lora asko ta

zein baño zein ederagoak badira: Teresa Deun, Gurutzeko Jon Deun, Jesusen Teresatxo Deuna ta abar.

Beraz, lenbizi Karmen'go Amari Bederatziurēna, Iruēna, asteroko Ikustalde, etxerik-etxe egiteko Ikustaldea, baita Uztaril guzirako otoitz egokiak ere dakarzki Esku-liburu onek; gero Praga'ko Jesus Auraganako eraspen guziak, eta ondoren Teresa Deun, Gurutzeko Jon Deun eta Teresatxo Deuna'ganako eraspen bikañak; baita Jose Deuna'ren, Jesus'en Biotzaren eta Purgatorioko animenganako otoitz eta Bederatziurēnak ere emen arkituko dituzu.

Azkenez, Esku-liburu ontan goiz-añatseko otoitzak eta aitorkuntza ongi egiteko, baita Meza deuna entzuteko era egokiak ere jari ditugu.

Jaunaren omengari ta guzion onerako izan dedila Esku-liburu au, ta Karmen'go Ama maitagarriak bere orialde guztiak onetsi ditzala.

Egileak.

Donostia, 26-II-1930.



GOIZEKO OTOITZAK

(Jaungoikoak egun berri bat eman dizu ta zure lenengo eginbeara izan bedi biotz-begiak zerura jasotzea, orain aстера zoazen egun berri au Jaungoikoari oso-osorik eskeintzeko. Jeiki ta bereala egizu, buruz, ur bedeinkatua artuta otoitz-aldi au:)

Gurutze santuaren... Aitaren eta Se-mearen...

NERE Jaun eta Jaungoikoa, gauza guzien Asiera, Iraupena ta Azkena. Zuk ezerezetik egin ninduzun, eta zure esku ongileagandik datozkit ondasun guztiak. Onela ezagutzen eta aitortzen det, eta oregatik beratzen eta auzpezten naiz begirapen osoaz. Egia bera zeralako, Zugan eta Zuk esandako gauza guztietan sinis-

ten det. Neurígabe zintzoa zeralako, agin-
dutakoak beteko dituzula uste det. Onta-
sun guziz maitagaría zeralako, biotz guz-
tiz maite zaitut, eta urkoak nere burua
bezela Zugatik maite ditut.

Eskeñak, Jauna, Zu ezagutu, maitatu ta
lur ontan Zure aldez ibili, ta gero zorion-
ekoa Zurekin batean zeruan izan nadin
egin nazulako; eskeñak eta esker garbi-
-garbiak zure Seme Jesus'en odolaren bi-
dez jatorizko obena kendu, ta Eleiz mai-
tagariaren ume egin nazulako. Ezin esan
-al ontarte egin dizkidazu, Jauna; nere
bizi ta ondasun guziak Zuk emanak ditut;
eta ala ere, ¿zure kaltez nabil?

Damu det, Jauna, damu det biotz guz-
tiz, Zu ain ongile ta maitakoía, atsekabetu
zaitudalako. Nere gaurko asmoa da, oben
guztietatik, eta batezere griña ta makuñ-
erak eragin oi dizkidaten utsegitetatik, iges
egitea. ¡Ez nik geiago obenik! ¡Eta oben-
erako biderik ere! Nere gogo, itz eta lan
guziak zuri eskeintzen dizkitzut, Jauna;
Zuk nai dezun bezela, Zu goraltzeko, nere

gaiztakeriak ordaintzeko ta garbitokiko animen aldez izan bitez. Eruki zakizkit, Jauna, ta al ditudan parkamen guziak irabazteko lagundu zaidazu. Alaxe.

(Aita gurea, Agur Maria ta Gloria).

Andre Maria'ri Eskaria

NERE Ama ta nere Jabea; ni osoro eskeintzen natzaizu, ta nere onginai ta maitasunaren esagungaritzak, ematen dizkitzut egun onetan nere begiak, nere entzukiak, nere mingaña, nere biotza; itz batean, ni naizen guztia. Zurea naizen ezkerro, ¡Ama guztiz ona!, zure gauza bezela gorde, zaitu ta zuzendu nazazu.

(Iru Agur Maria ta Salbea).

Jesus'en Biotzari Otoitza

¡NERE Jesus maitea! Maria'ren biotz garbiaren bitartez, gaurko eskari, neke ta egikizun guziak eskeintzen dizkitzut egiten zaizkizun iraiñen orde, ta zure

Biotz Deunaren beste gogo guztietarako, batezere Apostoltasunekoari iñ ontan izendatu zaien asmoagatik.

Aingeru Zaitzaleari ta zeruko Deunai

SORTU nintzanetik Jaunak laguntzat emandako Aingeru Santua: argitu, zaitu ta langun egidazu gaur eta nere bizi-tzako egun guzietan.

Santuai

NERE izeneko ta beste zerutar Deun gu-ziak, lagun nazazute Jaungoikoaren aurrean.

(Aita gurea, Agur Maria ta Gloria).

AINGERU-OTOITZA (Anjelus)

ÿ. Jaunaren ainge-ruak Maria'ri adi-razi zion.

R). Eta Espiritu Santuaren egitez sortu zuan. *(Agur Maria...)*

ÿ. Ona emen Jaun-
mirabea.

R). Zuk diozun be-
zela egin bekit.
(*Agur Maria...*)

ÿ. Eta Jaungoiko
-Semea gizon
egin zan.

R). Eta gure artean
bizi izan zan.
(*Agur Maria...*)

ÿ. Otoitz egizu gu-
re alde Jaungoi-
koaren Ama done
oñek.

R). Jesukristo gure
Jaunaren agindu-
ak irabazi ditza-
gun.

Oremus

Gratiam tuam, quæsumus, Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante, Christi Filii tui incarnationem cognovimus per Passionem ejus et crucem, ad Resurrectionis gloriam perducamur. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

BAZKARI TA APARI AUÑEAN ESATEKO OTOITZAK

(Guraso sañenak edo semerik gaztenak, oitura dan eran, esan beza:)

Aitaren eta Semearen...

BEDEINKATU gaitzazu, Jauna, ta zure eskuetako jateko auek ere, orobat be-deinkatu.

(Aita gurea, Agur Maria ta Gloria).

Zeruko érege aundiak, ango maiean artu gaitzala. Alaxe.


**BAZKARI TA APARI ONDOREN
ESATEKO**

Aitaren eta Semearen...

ESKERAK Zuri, zure mesede guztiakaitik, gizaldi ta gizaldietan bizi zeran eta agintzen dezun Jaungoiko Guzielduna. Jaungoikoak bere pakea eman dizagula. Baita betiko bizitza ere.

(Purgatorioko animen alde: Aita gurea, Agur Maria ta Gloria...)





AÑATZEKO OTOITZAK

Gurutze Santuaren... Aitaren...

(Belaunikatu zaitetz gurutze baten aurrean eta esan:)

NERE Jaungoiko maitea: Zugan sinisten det eta itxarotzen det; agurtzen zaitut, eta gauza guztiak baño geiago maite zaitut ¿nola ordainduko dizkitzut, ordea, Zuk egindako eskeñak, batez ere bizia ta Bataioa eman dizkidazulako, ta gaurdaño bizirik gorde nazulako? Emaidazu, Jesus maitea, gaurko nere utsegite guztiak ikusteko argia, biotzez goñotatu ditzadan. Amen.

(Orain zure bañuari begiraldi bat emaiozu, ta ikusi, gogoz, itzez, lanez edo eginbearak ez egiñez, egin dituzun utsegiteak; batezere griña nagusiak eragin dizkitzunak. Gero parka eskatzeko esan: *Jesukristo nere Jauna...*)

Andra Maria'ri

NERE Ama ta nere Jabea: ni osoro eskeintzen natzaizu, ta nere onginai ta maitasunaren esagungaritzat ematen dizkitzut gau ontan nere begiak, nere entzukiak, nere mingaña, nere biotza; itz batez, ni naizen guztia. Zurea naizen ezkerro ¡Ama guztiz ona!, zure gauza bezela gorde, zaitu ta zuzendu nazazu. Alaxe.

(Iru Agur Maria...)

Aingeru zaintzaleari ta zeruko Deunai

SORTU nintzanetik Jaunak laguntzat emandako Aingeru santua: argitu, zaitu ta lagun egidazu, gaur gabeen eta nere bizitzako egun guztietan. Alaxe.

Nere izeneko ta zeruko beste Deun guziak, lagun nazazute Jaungoikoaren aurtean. *(Aita gurea, Agur Maria ta Gloria).*

(Orain Praga'ko Jesus Aurtxoari, Jose Deunari ta garbitokiko animai *Aita gure ta Agur Maria* bana esaiezu.)

Azken = otoitzak

(Ur bedeinkatua ar zazu ta azken-otoitza egi-
zu, esanaz:)

1) Jesus, Maria ta Jose, dedan eta nai-
zen guzia ematen dizutet.

2) Jesus, Maria ta Jose, azken asnase-
tan lagun nazazute.

3) Jesus, Maria ta Jose, eriotz garaian
nere anima ar zazute.

(Orain Karmen'go Eskapulariori muxu gozo
bat emanaz oeratu zaitez).





AITORTZA

Gauza aundia da, Kristaua, deabruaren atzaparetatik atera ta Jaungoikoaren besoetara biurtzen gaituen sakramentua: *Aitortza* (Konfesioa).

Baño aitortza on bat egiteko, ongi gertutu bear zera lendabizi, ta lan ortarako lagunduko dizuten neurri egokiak artu bear dituzu. Oña konfesio ona egiteko eginbear nagusienak: 1) Bařena aztertu.—2) Biotzeko damua sortu.—3) Asmo beři sendo bat artu.—4) Oben ordaña (penitentzia) bete.

AZTERPENA EGITEKO ERA

Lenengo agindua: *Jaungoikoa maite izatea.*

¿Sinismen edo fedezko egirik ukatu al dezu? ¿Ez sinisteko zalantzan egon al zera? ¿Liburu edo paper txarrik irakuři edo norbaiteri irakurtzeko eman al diozu?

¿Aztiengana jun al zera? ¿Jaungoikoaren kaltez, ona ez dala, zuzena ez dala, edo beste orlakoren bat esan al dezu? ¿Goiz-arátsetako otoitzak nola egin dituzu? ¿Apaiz edo lekaidetzaz gaizki itzegin al dezu? ¿Goiz-arátsetako otoitzak nola egin dituzu? ¿Gaizki aitortu al zera? ¿Pekatu lañian Jaunartu al dezu?

Bigarren agindua: *Jaungoikoaren izena alperik ez aotan artzea.*

¿Birauak botatzen al dituzu? ¿Seme-alaben aurrean? ¿Zin edo juramenturik egin al dezu, gezurétan ala beařik gabe? ¿Jaungoikoari odo beste deunai eskeintza eginda, bete gabe utzi al dezu?

Irugarren agindua: *Jai egunak jai egitea.*

¿Ilgande ta jai egunak nola gorde dituzu? ¿Zabarkeriz meza entzun gabe gelditu al zera igandetan? ¿edo berandu iritxi al zera? ¿Nola entzun dezu? ¿Zure mořoi ta mendekoai meza entzutea galazi al diezu?

¿Eliz Amak jaritako barau ta aragi uzteko egunak gorde al dituzu? ¿Ilgandetan lanik egin al dezu bi ordutik gora, beańik gabe?

Laugarren agindua: *Gurasoak aintzat eukitzea.*

¿Gurasoen esanak ukatu al dituzu, ardurazko gauzetan? ¿Gurasoak zure lotsagabekeriz naigabetu al dituzu? ¿Jo edo beldurtu al dituzu, ta inoiz eriotza opa izan al diezu? ¿Lagun gaiztoakin ibiltzen al zera, ta, gurasoak nai duten bezela, ilunabańean azkar etxeratzen al zera? *Mońoi ta neskameak* ikusi bear dute: ¿Nagusien gauzak alpeńik galtzen utzi edo lanak nolana ta ajolik gabe bete al dituzten? ¿Lan egin beańean alperkerian luzaro egon al diran? *Gurasoak*: ¿Seme-alabai erakuste txarık eman al diezute? ¿Aien ibilera gustiak zaitu al dituzute, zer irakurtzen duten, norekin biltzen diran, neska-mutilak elkańekin jardunetan ote dabil-tzan, goiz etxera datozen, meza entzun, aitortu ta jaunartzen duten jakiteko?...

Etxean guraso saíai bear zaiena ukatu al diezu? ¿Purustadaz naigabetu, arpegi beltza jaíi edo eskua goratu al diezu? ¿Seme-alabak dotriña ikesi dezaten egiñala egi-ten al dezu? ¿Zure seme ta alabai ezague-
ra dutenetik elkarékin edo gurasoakin lo eginarazten al diezu?

Bosgañen agindua: *Iñor ez iltzea.*

¿Norbaitekin asaíetu al zera? ¿Eriotza edo okeñen bat opa izan al diozu? ¿Edo etoíi zaion kalteaz poztu al zera? ¿Iñori goíotorik izan al diozu? ¿edo etsaiari barkapena eskatzera etoíi zaizunean edo bi-dean arkitzean ukatu al diozu barkapena edo aguía? ¿Norbait jo, zauritu edo kalte-rik egin al diozu? ¿Zure osasunaren kalte-
tez ibili al zera, geiegi janaz eta, batezere edanaz, edo zure burua erail nai izan al dezu?

Seigañen eta bederatzigañena: *Aragikeririk ez egitea. — Besteren senar edo emazterik ez nai izatea.*

¿Liburu txarrik irakurri, edo irudi nazkagarriak begiratu al dituzu? ¿Abesti sikiñak esan edo entzun al dituzu? ¿Lizunkerizko gauzak gogoan erabili al dituzu? ¿Zinema ta dantza lotuan ibili al zera? ¿Bakarean zure buruaz pekaturik egin al dezu? ¿Begiratzez, ikutzen edo beste eratan, eta zenbat aldiz? Esan argiro apaizari gai onetan dituzun pekatu guztiak, ongi aitortu, pakean bizi nai ba-dezu.

Zazpi ta amargañen aginduak: *Ez ostutzea—Oker bidez besteren ondasunik ez nai izatea.*

¿Zerbait ostu al dezu, edo norbaiteri kalte egin al diozu? ¿Zorak ordaindu al dituzu ta ordaindu gabe luzaro euki al dituzu? ¿Zerbait saldu edo erosi dezunean bigabekeririk egin al dezu?

Zortzigañena: *Gezurizko testigotzarik ez egin eta gezurik ez esatea.*

¿Inoren kaltezko gezurik esan al dezu? ¿Norbaiteri kalterik egin al diozu gezur-

ezko utsegiteak asmatuta, edo aren utsegite ixilak azalduaz?

Orain utsegiteak gogoratu ondoren berealaxe guziaz damutu zeitez eta geiago pekatu ez egiteko asmo sendo bat artu. Gero, *Nik pekatari onek* esanda, zoaz aitortegira, ta belaunikaturik, esan lendabizi: *Agur Maria guztiz garbia*. Azkenekoz aitortu nintzala ainbeste egun, ilabete edo dira...; ez nuen ezer utzi, ez lotzaz, ez azturik ere, ordaña edo penitentzia bete nuan.

Geroztik *lenengo aginduan* utsegin det... *bigarrenean*... Eta onela esan egin dituzun pekatu ta utsegite guztiak, eta ez egon aitorlearen galderen zai. Azkenez, entzun aitorleak esaten dizuna, ta gero, *Jesukristo nere Jauna* esanda, zoaz zure tokira ta aitorleak eman dizun penitentzia lenbaitlen egizu, geroko utzi gabe.





Jaunartzeko Otoitzak

Jaunartu aurrean. Zugana datoñen Jaun ori *Nor dan* gogoratu ezazu: Zure Jaun eta Jaungoikoa ber-bera, zure Egilea, zure Ongile ta Maitalea. Ta esan biotzez.

«Zuk, nere Jesus, esan dezu oteun edo Osti Santuan zaudela; bada nik begiz *ikusten ez bazaitut* ere, Ostian zaudela txit sendoro sinisten det».

Zertara datoñen gogoratu ezazu: Zuri eskubetez mesedeak ekartzera, zure zoriona emen luñean egitera, gero zeruan ere egiteko. Ta biotzez esan.

«Jaungoiko zintzoa: Zuk esan zendun Zugan itxaropena jartzen duenik ez dala galduko. Zure agindu zintzoan, bada,

nere uste osoa daukat, orain luñean artzen bazaitut, gero zeruan *Zurekin bat egiteko* zoriona emango didazula».

Zergatik datoñen gogoratu ezazu: Zuri dizun maitasunagatik dator, ez Berak zerbait irabaziko duelakoan; zure onurak dakar zure biotzera, ez bere irabaspentak. Ta biotzez esan:

«Nere Jesus maite-maitea; sutu zazu orain eta geiago nere biotza zure maitasunean, nerekin beti-beti bizi, ta nere jabe *bakara izan zaitez*».

Norengana datoñen gogoratu ezazu: Ainbeste pekatu lariz loitu dezun zure biotzera dator, kristaua. Bere etsaia izan zera, ta ara non datorkitzun zure gaiztakeriak aztuta, adizkidetasunezko laztan gozoa bizi ematera. Ta biotzez esan: «Zuk, Jesus ona, nerekin, damututa nagon onekin bat eginda, barkatu dizkidazu nere utsegiteak, eta emaidazu gero ta ohea izateko bear dedan zure laguntza, ta azkenik, zorionez betea zeruan Zu ikustea».

Apaizak Jauna-artzerakoan.

Jesus maitegaría: Zeruko Andre Mari'ak eta Santuak artzen zinduten garbitasun eta maitasunez nik ere artu nai zaitut. (Ni pekataria).

Orain iru aldiz esan.

Jauna, ez naiz ni gauza Zu bañenean sartzeko; baña Zuk itz bat bakara esan zazu, ta nere anima sendatuko da.

JAUNARTU ONDORENGO OTOITZAK

JAUNGOIKO ona: Nere ezereztasuna ikusi ezazu. Gaxo nengoan eta Zuk indartu nazu; beartsu arkitzen nintzan eta zure ondasunez bete nazu.¿ Zer emango dizut, ene Jaungoikoa, zure eskuetatik artu ditudan ondasunen ordañez?

Nere Jaun eta Jabea: naizen eta daukadan guzi-guzia damatzut, Zeroerek guzi

-guzia lenagotik eman didazu-ta. Nere biotza nai dezu... artu betiko, Jauna. Nere adimen, onoimen, gorputz eta anima, orobat zureak dituzu, Jauna. Zure maitasuna naikoa det, ta beraz aberatsa naiz.

Ongi etoñia izan zaiteala, nere Jesus maitea. Jaungoikoaren Semea nerekin daukat. Bere Gorputz, Odol, Anima, Gizontasun osoa - osoa ta Jaungoikotasun ber-bera nerekin dagoala sinisten det, Jauna, ta ori egiztatzearen mila bider bizia emango nuke.

¿Baña neregana etoñiaz egin didazun onaren, eskerak nola egingo dizkitzut, Jauna? ¿Zeruko Aingeruak, nere ordezt Jaunari eskerak egizkiozute! ¿Zeruko Deunak, Jaungoikoa gorezten lagun zadazute! ¿Andre Maria, nere Ama maitea! Zure Semeari eskerak bear bezela ezin egin ditzaioket, eta lagundu zadazu, ta nere ordezt eskerak egin zaiozkazu.

Orain ixil-ixilik eta biotzez bear dituzun esker-mesedeak Jesus'i eskatu: lenbizi zure ani-

mako ondasunak, gero Eliz-Amaren alde, Garbitokiko animen alde ta zure lagun eta adizkiden alde...

Gurutzearen aurrean esateko otoitza.

Otoitz au Jaunartu ondoren Jesukristo gurutz-iltzatuaren aurrean esan ezkerro ta gero *sei Aita gure ta Agur Maria Aita Santuaren* aldez, barkapen osoa irabazi liteke.

NERE Jesus on eta guziz gozoa: zure aurrean auzpeztuta naukazu; ta biotz bero ta irazekiarekin eskatzen dizut, aŕen, ezarri zaizkiotzula nere arimari sinismen, itxaropen eta maitasunezko gogo indartsuak, gaiztakeri guztien damutasun egiazkoa, ta geiago obenik ez egiteko asmo sendo-sendoa.

Au eskatzen dizut, Jesus ona, zure bost zauri odoltsuak nere gogo ta samintasun guziz gogoratzen ditudan bitartean, zure igarle Dabid'en aoz esan zinduzun itz oiei begiratuaz: «Nere esku ta oñak zultu ta nere ezur guztiak zenbatu zituzten».

“Anima Christi“ deritzan Otoitza

Kristoren anima, santotu nazazu.

Kristoren gorputza, salba nazazu.

Kristoren odola, ase nazazu.

Kristoren saietzeko ura, garbi nazazu.

Kristoren nekaldia, indartu nazazu.

Jesus ona, entzun zaidazu.

Zure zaurien bañuan, gorde nazazu.

Zugandik alde egiten, ez neri utzi.


Etsai gaiztoengandik, gorde nazazu.


Eriotz-aldian, deitu nazazu.

Eta Zugana joateko, agindu zaidazu.

Zure Santuekin batean, betikotasun

osoan Zu goraltzeko. Alaxe.





THE UNIVERSITY OF CHICAGO LIBRARY



MEZA DEUNA OPARIRIK EDERENA



MEZA DEUNA

(Praga'ko Jesus Auñari, Karmen'go Amari, naiz beste zerutafai eskeñi dezakiogun opari guztien artean Meza baño oberik eta gogokoagorik ez degu arkituko. Jaungoikoak berak ere ezin asmatu lezake Meza Deuna baño gauza aundiagorik. Jesus'ek Aita Betikoari Kalbarioko mendian eskeñi zion oparia berbera da Meza; augatik Meza batek Jesus'en eriotzeak beste baliio du, ta garbitokiko ta infernuko anima guztiak zerura eramateko Jesus'en odol tanta bat naiko izango litzake.)

Ea bada, kristaua, zure anima maite badezu, Praga'ko Jesus Auñari edo Karmen'go Amari zer-edo-zer eskatu nai badiozu, Meza ongi entzun, eta eskatu nai dezuna.)

Mezaren Eskeintza

PRAGA'KO Jesus Aur maitegaría, Mezako opari santu au eskeintzen ditzut. Ze-

ruko aingeruak orain zure anditasunaren
 afean dauden bezela egon nai det nik ere,
 Jesus ona, Meza ontan; eta berak zeruan



Mezaren asieran

gurtzen zaituzten eran, nik ere gurtu nai
 zaitut eleiza ontan. Onerazpenik sutsu-
 enaz entzuteko laguntza emaidazu, zure
 Ordezkararen eskuz eskeintzen dizugun

Eskeintza garbi, Eskeintza deun, Eskeintza erugabe, betiko bizitza eman eta zorionez betetzen duan ogi-arduaren eskintza, au da, zure gorputz eta odola artu zazu, lúrean egiten zaizkizun irain eta oben guztien orderako, garbitokiko anima, ta btezere nere guraso, senide, ongile, ezagun eta adizkide guztien aldez; ta azkenez, egin dizkidazun esker-mesede guztiak nolabait ordaintzeko.

Kyrie Eleisonak

IRUBATASUN txit Deuna, Aita, Semea ta Espiritu Deuna, gurtzen zaitut. Guztaz erukitu zaite, ta Zu ezagutzeko sinismen bizi bat, Zu opatzeko itxaropen sendo bat eta Zu maitatzeko maitasun sutsu bat emaidazu.

Gloria in excelsis

AINTZA ta omena zuri, Jesus gozoa, goietan, eta pakea lúrean apal auzpezturik gurtzen zaituzten anima onai: ez

dizadala iñork kendu, Jesus ona, biotzeko pakea ta animako garbitasun guztiz eder eta apaiña, ez aragiak, ez deabruak ez dezaidala ostu nere erügetasun eta zintzotasuna, ta nik ez ditzaiodala utzi iñoiz ere galtzen. Onela, Jesus maitea, zeruan aintza beti ematen dizutenen artean izango naiz ni ere.

Epistolari

GURI jañai-bidea emateko gizonakandik eskutauta zure Ama laztanaren eta Jose Deunaren aginduai jañaiturik bizi naiz izan zenduen Jesus Aur apal-apala; nik ere onbideai jañaitu ditzaiodala, Zuri atsegin emateko, ta nere guraso ta nagusien esanak egin ditzadala emaidazu, Jesus Aurtxoa.

Ebanjelioan

PRAGA'KO Jesus Aur maitagaña, Goizpar edo Ebanjelioa azaltzen zenduenean biotzeko apaltasun eta laztantasuna adirazi

zenduena, aurakin egoteak ainbeste atse-
gindu, ta zugana deitu ta zure biotz go-
zoagan estutzen ziñituana; nere biotza beti



Eskeintzaldea

apal eta erukitsua izan dedila egizu, Jesus
ona, ta Zugandik beñere aldendu ez nadiñ
onetsi ta zaindu nazazu.

Kredoan

(Siniskai guztiak sinisten dituzula adirazteko, Kredoan esan zazu orain.)

Eskeintzaldia (Ofertorioa)

JAUNGOIKO guzalduna, Zuk, Jesus zure Seme Bakarra luñera gugatik bialdu, ta bere bizitza edera gurutzean opaturik artu nai izan zenduen; nere Jesus maitearen biotzaz batera eskeintzen ditzudan nere biotz au ere artu zazu, zu egunero geiago maitatu ta gauza guztietan zure naimena egiteko.

Sanctus

ZERUKO atearak idiki zizkiguzun Jesus lantzana, garaile baten eran Jerusalem'en sartu ba'ziñan ere, eñi oñek laster ukatu zizun bere ezaupena, ta zure izena biraotu zuen. Ez, Jesus maitea, ez, añen, zugana-ko maitasuna aldendu nere biotzetik eta zure laguntza nere animatik, onela pozeñ beterik abestu dezadan: Deuna, Deuna, Deuna zera, Praga'ko Jesus Aur eder

-edeña, zeruak eta luía zure aintzaz be-
terik daude. Aintza, gure itxaropen eta
maitasuna dan Praga'ko Jesus Auñari.



Mezaldi nagusia (konsagrazioa)

Jauna jasotzean

INERE Jaun eta Jaungoikoa! (Osti santuari
begiratuaz esanda barkapen osoa).

Betiko Aita, Jesus'en odol erugabea nere pekatuen ordaingaritzat eta Eleiz-Amaren alde eskintzen dizut.

Jauna jaso ezkerro

JAUNGOIKO guziz altsua! Zure Aingeru Deunak eskeintz ori zure aufera eraman dezatela agindu ezazu; zure Semearen Gorputz eta Odol deuna artzen degun guziok eskeintz oren bidez zeruko laguntzak bete-betean artu ditzagun Jesukristo gure Jaun beraren bitartez. Amen.

Pater nosteréan

(Aita gurea aietaz esazu)

Agnus Dei

PEKATU guztiak kentzen dituzun Jaun ona, eruki gaitzazu.—Pekatu guztiak kentzen dituzun Jesus ona, eruki gaitzazu.—Pekatu gustiak kentzen dituzun Jaun ona, pakea emaguzu.

Apaizak Jauna artzean

INERE Jesus maitagaña! Sakramentu ortan egiz arkitzen zerala sinisten det;



Jaunartzean

zorionekoa ni, nere biotzera orain etoñiko ba'ziña. Zure maitasunezko su ta gáretan ni ére, ta garbitzera etoñi, etoñi zaite;

¡maite zaitut! ¡beti maitetu ba'zindut! Sakramentu ortan gaur Zu egiz artzen etzaitudan ezkerro, nere deiak entzun eta zure maitasunera eraman nazazu. Alaxe.

Azkeneko otoitzetan

PRAGA'KO Jesus maitea, biotzez egiten ditzudan eskari apala entzun zaidazu: gorde ta zaindu zazu Eliz-Ama, aginduta daukazun eran. Erukiz begiratu zaiozu lufean zure Ordezkarri dan Erroma'ko Aita Santuari. Baita nere guraso, neba-areba, senide, aide, lagun eta esker-mesede egin diguten guziakaz eruki zaite, Jauna. Guzientzat zure onespen, maitasun ta laguntzak eskatzen dizkitzut.

Azkeneko Ebanjelioan

¡PRAGA'KO Jesus maitea, edertasun guztien edertasuna! zure nagusitasuna alde guztietara zabaldu dedila, ta zure izen santua goraldtu ta aintzatu izan dedila gizonen artean. Zure Anaidian (Kofradian) daudenai berarizko samurtasun-

ez begiratu zaiezu, ta beren pozgarria emen eta gero betiko atsegiña zeruan izan zaitez. Alaxe.

AGURTZA (EROSARIOA)

ESATEKO ERA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

Domine labia mea...

Maria esker eta erukiaren Ama; etsaie-tatik gordeaz, eraman gaitzazu Zugana. Amen.

Pozezko eskutukiak

(Astelen ostegunetarako)

1) Jaungoiko Semearen gizon egitea.

2) Andra Maria'k bere lagunari egin zion ikustaldia.

3) Jaungoiko

Semearen jaiotza.

4) Andre Maria' ren Elizan sartzea.

5) Jesus Auñ galdu ta arkitzea.

Nekezko eskutukiak

(Astearte ostiraletarako)

1) Jetsemani'ko baratzen Jesus' en Otoitza.

2) Jaungoikoaren Semea zigoñez joa.

3) Jesukristo'ren

arantzazko burestuna.

4) Jesukristo gurutze aztunaz zamatua.

5) Jesukristo'ren gurutzeko eriotza.

Aintzazko eskutukiak

(Asteazken larunbat eta igandetarako)

1) Jaungoiko Semearen piztuera.

2) Jaunaren igokundea zerura.

3) Espiritu Santuaren etoñera.

4) Andre Maria'ren jasokundea zerura.

5) Andre Maria'ren bureskundea.



Karmen'go
Eskapulario
az ilren danik
inpernura ez-
ta jausiko

KARMEN'GO AMARI

BEDERATZIURENA

Gurutze santuaren...

Eguneroko Otoitza

NERE Jaun eta Jaungoikoa, naizen guzia, gorputz eta anima, zure aurrean auzpezturik, nere Jaun eta Jabetzat eza gutu ta gurtzen zaitut. Zugan sinisten det, eta gure sinismeneko eskutapen guztiak bene-benetan sinisten ditut.

Nere pekatuak parkatu, zure adizkidetasuna ta ortan iraunteko laguntza, baita zure maitasunean iraunten dutenai agindu diezun betiko zoriontasuna ere emango dizkidazula uste det, Jauna.

Zure ondasun azkengabeagatik gauza guziak baño geiago maite zaitut; nere pekatu ta utsegiteak aitortzen dizkitzut, eta Zu zerana zeralako, Zu naigabetutzeaz biotz-biotzetik damu det.

Zure laguntzaz egundo geiago pekatu-rik ez egiteko, aitortu ta pekatuen zoñak ordaindu ta azkenez Zure menpean bizi, Zu goraldtu ta atsegin emateko asmo sendo bat artzen det.

Zure erukitasunez nere utsegiteak parkatuko dizkidazula uste det, Jauna, zure adizkidetasunean biziaz betiko zoriontasuna iritxi dezadan. Parkatu zaidazu, Jauna, erugabez eta anima garbiz Maria goraldtu ta Bederatziuren ontan eskatzen detana bere bitartez iritxi dezadan, Zu goraltzeko ta nere animaren onerako bada. Alaxe.

Eguneroko Eskaria

JAUNGOIKOAREN Ama ta pekatarien bitarteko Maria, zure Eskapulario maitagarria jazten dutenak zure zaipean artzen dituzuna, ta Jaungoikoak bere egiazko Amatzat autu zinduena! nere pekatuen parkamena, nere biziera ontzeko laguntza, nere animaren betiko bizitza, nere estutasunetan bitartekotasuna, nere neke ta atsekabe saminetan poz eta atsegiña, ta Bederatziuren ontan eskatzen ditzudana zure Seme laztan Jesus'gandik iritxi zaidazu, bera goraltzeko ta nere animaren onerako bada.

Ala baña, Ama maitea, au guzia iristeko zure bitartekotasun indartsuan itxarotzen det; eta zu bear bezela goraldtu ta maitatzeko zeruko Aingeru ta santuen gogo ta maitasuna euki nai nituzke; beren biotz irazekiz nereba batuaz agurtzen zaitut, bein eta mila aldiz esanaz:

1) Karmen'go Ama maite-maitea, zure

semetzat artu nazulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

2) Karmen'go Ama maite-maitea, zerura juateko ezaugarri dan zure Eskapulario deunaz jantzi nazulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

3) Karmen'go Ama maite-maitea, Purgatorio'ra larunbatero jetxi ta gure anima erukañiak zerura eramatea agindu diguzulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

LENENGO EGUNA

Otoitza

KARMEN'GO Ama guztiz garbia, Elias Jaungoikoaren iragarleak itxasotik igo-tzen ikusi ta bere euriz luña ongaritu zuen odeitxo ark aditzera eman zinduenena: nola zure Seme maite Jesus erugabea munduari eman ziñion, ala gure animako gaitz guztiak sendatuko zizkigula aditzera emanaz. Ama laztana, zure Semeagandik bere laguntzaren euri gozo ugariak eman zaiz-

kiguzu; onela guk ere onbide ta egikizun onak egin ditzagun, bide zuzenean ibili, Jaungoikoa maitatu ta zorioneko bizitza iritxi dezagun; ta batezere Bederatziurén ontan zure bitartez eskatzen detana iritxi dezadan, biotz - biotzez esaten ditzugu: *Agur Eregiña...* (Eskatu orain iritzi nai dezuna).

(Otoitz-gaia ta gertaketak 70 orialdetik aurrera artu).

ANDRE MARIA'REN ASENTZA (LETAÑIA)

Kyrie, eleison.

Kyrie, eleison.

Christe, eleison.

Christe, eleison.

Kyrie, eleison.

Kyrie, eleison.

Christe, audi nos.

Christe exaudi nos.

Pater de Cœlis Deus.

Fili Redemptor mundi Deus.

Spiritus Sancte Deus.

Sancta Trinitas unus Deus.

Miserere nobis

Sancta Maria,
Sancta Dei Génitrix,
Sancta Virgo Virginum,
Mater Christi,
Mater divinæ gratiæ,
Mater puríssima,
Mater castíssima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater immaculata,
Mater amábilis,
Mater admirábilis,
Mater Boni Consilii,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentíssima,
Virgo veneranda,
Virgo prædicanda,
Virgo potens,
Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiæ,
Sedes Sapientiæ,
Causa nostræ latitiæ,

Vas spirituale,
Vas honorabile,
Vas insigne devotionis,
Rosa mystica,
Turris Davidica,
Turris eburnea,
Domus aurea,
Fœderis arca,
Janua Cœli,
Stella matutina,
Salus infirmorum,
Refugium peccatorum,
Consolatrix afflictorum,
Auxilium christianorum,
Regina Angelorum,
Regina Patriarcharum,
Regina Prophetarum,
Regina Apostolorum,
Regina Martyrum,
Regina Confessorum,
Regina Virginum,
Regina Sanctorum omnium,
Regina sine labe originali concepta,
Regina Sacratissimi Rosarii,

ORA PRO NOBIS

Regina Pacis, (*ora pro nobis*),

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi,

Parce nobis, Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi,

Exaudi nos, Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi,

Miserere nobis.

ÿ. Ora pro nobis, Sancta Dei Genitrix.

R). Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Oremus

Deus, qui Beatissimæ semper Virginis, et Genitricis tuæ Mariæ, singulari titulo Carmeli Ordinem decorasti: concede propitius, ut cujus hodie commemorationem solemni celebramus officio, ejus muniti præsiidiis ad gaudia sempiterna pervenire mereamur. Qui vivis et regnas, etc.

BIGAREN EGUNA

Gurutze santuaren... (Eguneroko Otoitza ta Eguneroko Eskaria lenbizikoan bezela).

Otoitza

KARMEN'GO Ama guztiz garbi, Karmel-
dañai ziñioten maitasunez, berakin itz
egin eta zure ikasbidez argitu ziñituena.

Ama laztana, zure Semearen ondasuna
ezagutu ta bera maitatzeko, nere utsegi-
teak ikusita negar egiteko, nere egin-
beñak ezagutu, ta egikizun ta itz guziak
Jaungoikoa goratzeko ta azkenez, lagun
urkoai ikasbide ona emateko laguntza
iritxi zaidazu. Batezere Bederatziurén on-
tan zure bitartez eskatzen dedana iritxi
dezadan, biotz - biotzez esaten ditzugu:
(*Agur Eregiña...*)

(Letañia ta otoitza lenengo egunean bezela).

IRUGAÑEN EGUNA

Otoitza

KARMEN'GO Ama guztiz garbia, karmel-
dañak lenbiziko elizatxoan zure ize-
nean Karmelo'ko mendian egin, eta bertan
zure omenez otoi egitera biltzen ziranak

izan ziran. Ama laztana, nere anima onbi-
dez apaindu, Jaungoikoaren bizileku izan
eta bera gurtu ta goraldtu dezadan beti,
ta lufeko gauza galkoñen zaletasuna nere
biotzetik kentzeko laguntza eskatzen di-
zut biotzetik; eta batezere Bederatziuñen
ontan eskatzen dizudana irizteko, apalta-
sunez esaten dizut: (*Agur Eregiña...*)

(Letañia ta otoitza lenengo egunekoak).

LAUGAREN EGUNA

Otoitza

KARMEN'GO Ama txit maitagaña, karmel-
dañai diezun berezizko maitasuna
azaltzeko zure seme ta anaien izena eman
eta bere neke-atsekabe guzietan bere
poztasun eta atsegiña zu izan ziñan. Ama
lasztana, zure antsekoa izateko laguntza
emaidazu, onela zure semea izan nadin,
eta Jaungoikoaren Seme ta nere Jesukris-
to'ren anaiakin batera zeruko liburuan
jañi izan dedin nere izena ere.

Ta Bederatziuñen onetan zure bitartez

eskatzen dedana iritxi dezadan, apal-apal biotzetik esaten dizut: (*Agur Eregiña...*)
(Letañia ta otoitza lenengo egunekoak).

BOSGAÑEN EGUNA

Otoitza

KARMEN'GO Ama guztiz garbia, zure seme kutunen Karmen'go Lagundia kentzeko asmoetan bere etsaiak zebiltzanean, karmeldarren alde maitasun aundia agertuaz azaldu zenduen zure zaipean daukazula Lagundi maite au: Estutasun artan Karmen'go Ama Inozenzio III'garrenari agertuaz, karmeldarai lagundu ta beren alde lan egiteko esan zion, Andre Mari ta Jesus bere Semearen gogo osoa au zalako. Gañera, esaten ziniona egia zala sinisterazteko gau artan karmeldarren bi etsai nagusienak bat-batean ilko zirala, ta ala gertatu zan.

Ama laztana, gorputz eta animako nere etsai guziakandik gorde nazazula eskatzen dizut, pake osoan zure ta Jaunaren

maitasunean jañaitu dezadan. Ta Bederatziurén onetan zure bitartez eskatzen dedana iritxi zaidazu, bada apal-apal biotzetik eskatzen dizut esanaz. (*Agur Eregiña...*)

(Letañia ta Otoitza lenengo egunean bezela).

SEIGAÑEN EGUNA

Otoitza

KARMEN'GO Ama txit garbi, karmeldanak zure seme bereziak dirala azaltzeko Eskapulario edera ekañi ziniena, bera jantzi ta egikizunak beteaz zure seme egin eta aberastasunez betetzen dituela. Ama laztana, zure maitasunaren ezaugarri dan Eskapulario au soñean eraman eta bere egikizunak ongi betetzea iritxi zaidazu, zurea beti izan nadin.

Ta orain Bederatziurún ontan zure bitartez eskatzen dedana iritxi dezadan, biotzez esaten dizut: (*Agur Eregiña...*)

(Letañia ta otoitza lenengo egunekoak).

ZAZPIGAÑEN EGUNA

Otoitza

KARMEN'GO Ama maite-maitea, zure Eskapularioa jaieraz jantzita daramatenak gorputz eta animako ariskuetatik gorde, deabru galgariaren sareak puzkatu, ta zerurako bidean erabilten dituzula, aibat mirariz azaldu dezu zuk. Ama lazтана, nere gorputzeko ariskuetan laguntza, ta etsai galgariaren zirikaldi gaiztoetan argitasun eta indara izan bedi Eskapulario maitagari ori. Zure Semeagandik iritxi zaidazu esker au, ta batez ere Bederatziuren ontan eskatzen dedana iritxi dezadan, esaten dizut biotzetik. (*Agur Eregiña...*)

(Letania ta otoitza lenengo egunekoak).

ZORTZIGAÑEN EGUNA

Otoitza

KARMEN'GO Ama maitagaria, zure Eskapularioa jaieraz eramaten dutenai laguntza aundia, ta batezere eriotzako

orduan Jaunaren adizkidetasunean jañiko dirala ta eztirala inpernura jungo agindu zendun zuk. Ama laztana, zure ardura-pean artu, lagundu ta poztu nazazula nere eriotzako orduan, eta nere pekatuen damua iritxi zaidazula eskatzen dizut, nere anima betiko galdu ez dedin, baizik zeru ederean zurekin betiko bizi nadin. Eta Bederatziuren ontan zure bitartez eskatzen dedana iritxi dezadan, biotzez esaten dizut. (*Agur Eregiña...*)

(Letañia ta Otoitza).

BEDERATZIGAREN EGUNA

Otoitza

KARMEN'GO Ama zoragañi txit garbia, zure Eskapularioa soñean eraman eta bere egikizunak bete dituztenen anima erukañiak Purgatorioko zurtatik lenbaitlen, batezere il da urengo larunbatean aterako dituzula agindu dezu Ama erukitsu orek.

Ama laztana, Purgatorioko oñaze ika-ragañi aietara jun ez nadin, orain kristau

ona bezela bizi ta Karmen'go Eskapularioa maitasunez eraman dezadala iritxi zaidazu.

Ta Bederatziuren ontan eskatzen dedana iritxi dezadan, apal-apal eta biotzetik esaten dizut: (*Agur Eregiña...*)

(Letaña ta otoitza lenengo egunekoak.)





Karmen'go Amari Asteroko Ikustaldea

Gurutze santuaren...
Jesukristo nere Jauna...

Otoitza

Poz-pozik nator zure oñetara, Ama maitagari ta gozoa, zure egalpean aldi atsegintsu bat igaro ta zure adizkideakin dituzun ontasun eta biguntasunak gogoratzera. ¡Ama txit laztan, nere animaren alaitasuna! Zure eskuetan ikusten detan eta nere bular gañean daramatan Eskapularioak niganako daukazu maitasun eta samurtasuna adirazten dit. «Osasunaren iturria, galbidetan laguntza ta betiko pakearen ezaugarria dala Eskapulario ori

zuk esan zendun; eta bera jantzita ilten danak eztula inpernuko sugaŕik ikusiko, agindu zendun.»

Itz onek nere animaren poztasun eta itxaropena dira. Ama biotzekoa. Zure almen eta erukitasun sutsuaren ezaugaŕia da Eskapulario eder ori; ¿zeren beldur izango naiz, bada, soñeko bikain ori jantzita egon ezker? Gaxo ta auldurik, miñez eta atsekabez arkitzen banaiz, zure Eskapularioa laztandurik poztuko naiz; deabrua, mundua ta aragia beren maltzurkeriz nere kaltez jaikitzen badira, zure Eskapulario edeŕagan laguntza egokia arkituko det. Ama maitea, Zu nere alde bazaude ¿zer egin lezake iñork nere kaltez?

Etsai guztien artean bare ta paketsu egongo da nere biotza Karmen'go Eskapularioa neregan euki eskero. ¿Ez al da egia, Ama maitagaŕia? Nere biotza zurea bezela zaituko dezu, ez didazu ondamen-dian erortzen utziko beñere. ¡Zein ona zeran, Ama laztana, ta zein biotz samuŕa

dezun! Karmen'go Ama ¿nola etzaitut ezagutu lenago?

Nere esker ona azaltzeko ¿zer egingo ote det? Zurea da nere gogoa, nere bizitza, gogorapen eta asmo guziak zureak dira.

Karmen'go Ama, ni zurea naizela ta zu nere Ama ta nere itxaropen gozoa zerala gogoraziko dizkidan bitarteko edera, Eskapulario au izango da.

Zure aurretik alde egin baño len, gauza bat eskatu bear dizut, Ama maitea: nik emen orain agurtzen zaitudan bezela, zuk ere, eriotz-sorian bakañik arkitzen naizen-ean lagundu zaidazula. Ez nazazu utzi une ikaragañi artan; zure semea naizela oroitu zaite, zure maitasun eta Amaren erukitasun gozoz, sorionekoen eriotzaz il nadin.

Agur, Ama, nere biotza zure oñetan uzten dizut; zaitu ezazu. Agur, Karmelo'ko edertasun eta apaindura; agur, Ama erukitsua, agur.

KARMEN'GO AMARI AGURAK

1) Karmen'go Ama maite-maitea, zure semetzat artu nazulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

2) Karmen'go Ama maite-maitea, zerura joateko ezaugarri dan zure Eskapulario deunaz jantzi nazulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

3) Karmen'go Ama maite-maitea, Purgatoria larunbatero jetxi ta gure anima erukariak zerura eramatea agindu diguzulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

4) Karmen'go Ama maite-maitea, zure Eskapulario oren bidez, arisku guztietan laguntzen diguzulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

5) Karmen'go Ama maite-maitea, nere biotzari ematen diozun poztasun aundiagatik, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

6) Karmen'go Ama maite-maitea, nere sorigaitz eta naigabetasunak biotz onez eramatera laguntzen didazulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

7) Karmen'go Ama maite-maitea, zure Eskapulario oñen bidez egunen batean zurekin zeruan izateko daukadan itxaropenagatik, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

Azken otoitza

KARMEN'GO Ama maitagaña, Zu goraltzen eta zuri eskeñak ematen igaro detan egon-alditxo augatik, biotz-biotzetik eskeñak ematen dizkitzut.

Zuganako maitasuna egunetik egunera nigan geitu dedila, biotzeko Ama gozoa, ta egunen batean maitasun oñez suturik betiko zeru ederean sartu gaitezela.

Amen.





Karmen'go amari "etxerik-etxe" egiteko ikustaldea

Eri askotan Karmen'go Amaganako maitasuna geiago zabaldu ta ezaguerazteko, etxerik-etxe erabiltzen dute bere Irudia, era onetara: ogeita-

mar sendi edo etxe, au da, ilak dauzkan egunak bezela, biltzen dira, egun bana izentatuaz Karmen'go Irudia egun ortan bere etxera eraman eta uřengo egun arte eukitzeko.

Ara emen Karmen'go Ama datorkizutenean, etxe bakoitzean zer egin bear dezuten:

- 1) Irudi ori ogeitalau orduan etxe bakoitzean egongo da, ilunabařetik ilunabařera, ta garai ortan uřengo etxera eramango dute azken-otoitza esanaz.
- 2) Karmen'go Irudiaren auřean argi bat pizturik euki bear da egun guztian.
- 3) Egund ortan, al bada, Jaunartzera saiatuko dira etxeko guztiak.
- 4) Karmen'go Ama etxera datořenean ařera ona egingo diote ta etxeko tokirik garbi ta egokienean jařiko dute bere irudia, ta otoitz au egingo diote belaunikaturik:

Ařerako Otoitza

Gurutze santuaren...

ILERU ta luřeko Eřegin, Karmen'go gure Ama maitagařia! gure etxera zu etortzean poz-pezik guziok zure bila gatzoz; ta, zure lengusu Isabel deunak bezela, dioguzu: ĉnundik guri esker aundi au,

Jaungoikoaren Ama gugana etortzea?
 Etxe ontan zauden ezkerro bere jabe egin
 zaite; ta beraz, gure artean pake, garbita-
 sun eta elkarrenganako maitasuna beti izan
 ditezela; gure etxe au Nazarete'ko zure
 etxea bezelakoa izan dedila, zure ikustalde
 onez pozturik, zureak izan gaitezen orain
 emen eta gero betiko zeruan. Alaxe.

(Karmen'go Amari *iru Agur Maria*).

(Ufengo egunean, etxeko bizilagun guztiak
 Karmen'go Amaren aurrean bildurik, otoitz-aldi
 au egingo diote:)

Karmen'go Amari Otoitzak

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

KARMEN'GO Ama maite-maitea, Zu goral-
 tzeko asmoz emen guztiok bildu gera; zu-
 re ondoan egon-alditxo bat egin nai degu
 etxe onetako bizilagunok; gure etxearen
 Jabe ta Eregin zu zera, zure mirabe ta se-
 metzat artu gaitzazu, gure biotzen maita-
 sunaz Zu gure Ama zerala azaltzen degu
 -ta, Karmen'go lore edeña.

(Orain Agurtza (Erosarioa) esango dute, ta gero 58'ko ofialdean dauden *Otoitz eta Agurak*, bukatu arte).

(Ilunabaréan beste etxera Irudia eraman baño len esango diote:)


KARMEN'GO AMARI AZKEN-AGURĀ

¡KARMEN'GO Ama maitagaña, Agur! Gure etxean egon zeralako poz-pozik gaude; zугanako maitasuna gure biotzean geitu dedila gero ta geiago. Zure Eskapulario eder oren bidez zerurako bidean laguntza aundia eman diguzu, zure maitasunaren ezaugaririk edereña bizitzan eta eriotzan bera dalako.

Ama erukitsua, zaitu gaitzazu zure semeak bezela; begira Eliz - Amari; Aita Santuari lagundu zaiozu; gure alde, seni-

de, lagun eta ongilengana begi eder oiek
biurtu itzazu, guziok bide onean ibiliaz
Jaunarenak izan gaitezen emen eta betiko
zeruan. Alaxe.





KARMEN'GO AMA



Karmen'go Amari eskeñitako Uztarila

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

Eguneroko otoitza

KARMEN'GO Ama maite-maitea, ara emen, biotzeko apaltasun eta maitasunez beterik, zure oñetara nator, gaurko egikizun au zuri eskeintzera Karmen'go Eskapularioa jantziaz batera zure karmeldar semeen artean artu nazulako.

Beragatik mila esker, biotzeko Ama, ta bear bezela eginkizun au egiteko ta zure gogokoa izan dedin, adimena argitu ta biotza berotu zaizkidazu. Alaxe.

LENENGO EGUNA

Karmen'go Amaganako maitasuna

ANDRE Maria'ganako maitasuna gure anima zeruratzeko esaugari berezia beti izan da. Eliz-Amak *Erukizko Ama* deitzen dio Maria'ri. Pekaturik aundienak egin dituan gizona izan da ere, damaturik Maria'gana juten bada barkapena iritxiko du.

Augatik, Eliz-guraso ta Erroma'ko Aita Deunak Andre Maria'ganako eraspenna, eraspenik onuratsuen bezela eskeintzen digute. Eraspen edo deboziorik anziñekoena, zabalduena ta kristauen artean sustairik luzenak bota dituen bera da.

Ala ere, Ama oñek kristauen artean seme berezi ta kutun batzuk baditu. Ama oñek Kalbario'ko mendian guziok semetzat artu ba'ginduen ere, bere biotzeko maitasun bereziz karmeldanak, au da, Karmen'go Eskapularioan sarturik daudenak, maite ditu. Auei eskeintzarik poz-

garrienak egin dizkie, ta maitasunaren ezaugarri ta inpernuan ez erortzeko laguntza dan jantzi edera zerutik berak ekañ die. ¿Zeruko jantzi apaingari au ¿zeinek ez du jantziko?

Maria'ren egiazko seme bereziak izateko, maitasunez Karmen'go Eskapularioa jantzi dezagun.

Gertaketa

Jertzia zeritzaion Inglatera'ko erian gaitz ondatzale bat sortu zan, eta berak egiten zituenden ondamen aundiak geldierazteko efogati-ba bat Karmen'go Amaren Irudiz egin zan. Kale ertz baten Karmen'go Amaren arizko irudi bat zegon, eta bere aufera karmeldar praileak eldu ziranean, irudi onek bizirik bazegon bezela, bere besoa luzetu zuen karmeldarenganontz, eta arpegi alaiaz ongi etofia eman zien, eta onela itz egin zuen: «Ona emen nere anaiak, auetariko bat dagon tokian nere anai bat dago».

KARMEN'GO AMARI AGURAK

- 1) Karmen'go Ama maite-maitea, zure semetzat artu nazulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)
- 2) Karmen'go Ama maite-maitea, zerura joateko ezaugarri dan zure Eskapulario deunaz jantzi nazulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)
- 3) Karmen'go Ama maite-maitea, Purgatorio'ra larunbatero jetxi ta gure anima erukañiak zerura eramatea agindu diguzulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)
- 4) Karmen'go Ama maite-maitea, zure Eskapulario oñen bidez galbide guztietan laguntzen diguzulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)
- 5) Karmen'go Ama maite-maitea, nere biotzari ematen diozun poztasun aundiagatik, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

- 6) Karmen'go Ama maite-maitea, nere zorigaitz eta naigabetasunak biotz onez eramatera laguntzen didazulako, goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)
- 7) Karmen'go Ama maite-maitea, zure Eskapulario oñen bidez egunen batean zurekin zeruan izateko daukadan itxaropenagatik goraltzen zaitut. (*Agur Maria...*)

Azken=otoitza

Karmen'go Ama maitagaría, zu goraltzen eta zuri eskeñak ematen egin detan egon alditxo augatik, biotz-biotzez eskeñak ematen dizkitzut.

Zuganako maitasuna egunetik egunera nigan geitu dedila, biotzeko Ama gozoa: ta egunen batean maitasun oñez suturik betiko zeru ederean sartu gaitezela.

Amen.

BIGAREN EGUNA

Karmen'go Eskapularioak zer diogun

KARMEN'GO Amak bere Eskapularioa Simon Stok zeritzaion karmeldáren nagusiari eman zion 1251'ko uztaíla'ren 16'an; baña gertakuntza alaigaíi au baño lenago ere Andre Maria'k karmeldáren-ganako ta auek Andre Maria'ganako maitasun berezia agertu zuten, eta augatik Andre Maria'ren seme bereziak karmeldárai deitzen zien.

Simon Stok deuna Karmen'go Nagusi zalarik etsai asko karmeldáren aurka agertu ziran; baña Karmen'go Eskapularioa artuaz batera etsai gaiztoak ixildu ziran eta zorioneko pakea sortu zan. Augatik esan dezakegu nola anziñako Noe'ren garaian zeruan agertu zan uztargia Jaungoikoak gizonekin egindako pakearen ezaugaíi zan, era berean Karmen'go Eskapularioa, bera jantzi dutenak Karmen'go Amakin egin duten anaitasun

eta artu-emanaren ezaugarí bat dala.

¿Artu-eman ori nola bete bear ote genduke? Maria'k bere itza ongi beteko du; baña ¿guk Maria'ren adizkidetasunean jaraituko ote degu? ¿Gure oitura lasai ta lizunak ikusirik ez ote ditu Ama o'rek begiak gugandik aldatuko? Ez, a'ren, Ama, ez dezagula zure adizkidetasunik galdu beñere.

Gertaketa

Mutiltxo batek txikitatik oso maite zuen Andre María, ta bere irudia ikusten zuen guztian *Agur Maria* edo *Salbea* esaten zion gogoz, Karmen'go Eskapularioa zeraman beti soñean bere zeruko Amaren oroigaririk edefena bezela. Ikastetxean zegola gau batean bere zuzendariak oe a'fean belauniko arkitu zuen, eta esan zion; ¿zergatik etzera oeratu oraindik?—eta erantzun zion—Jauna, Eskapularioa puzkatu egin zait, eta ez dit oraindik eka'ri atezaiak, eta zai nago emen—Tira, zoaz oera azkar—¿Baña gaur gabean iltzen ba'naiz?... ni ez noa lotara Eskapulario gabe—Ber-berak eka'ri zion bereala Karmen'go Es-

kapularioa ta pozik orduan oeratu zan Karmen'go Amaren laztan artean etzan ba'zan bezela. Eta lo ura azkenengoa izango zala ¿nork esango zion? Bada ufengo goizean ilda arkitu zuten, bere Amaren Eskapularioa eskue-tan elduta zeukala. ¡Zorioneko aingerua, Karmen'go Andre Maria'ren besoetan oetik zerura igo zan gaztetxo ura!

(Karmen'go Agurak eta Azken otoitza lenen-go egunekoak).

IRUGAREN EGUNA

Karmen'go Eskapularioa ta inpernua

EZTAKIGU Jaungoikoaren adizkidetasu-nean ala gofotoan arkitzen geran, eztakigu zerurako ala inpernurako izango geran ere; ez lasai, baizik ernai bizi gaitezan Jaungoikoak nunbait onela utzi gaitu-ta.

Augatik salbatzeko biderik onenak eta egokienak arkitzeko eginalak egiten ditugu. Baña, Karmen'go Amak agindurik daukanez, bere Eskapularioa baño ezau-gari egokiagorik ez degu arkituko.

Karmeldar'ak lañi ta etsaiz inguraturik arkitzen ziralarik, Simon Stok beren Nagusia Andre Maria'ri gogoz otoika asizan. Aditu zion bai zeruko Ama maite o'ek; baita, aingeruz inguraturik, bere begien auréan agertu ere, Jesus Au'ra beso batean eta bestean Karmen'go Eskapularioa zeuzkala, ta itz auek esan zizkion: «Ene seme maite, Karmen'go Eskapulario au ar zazu; zuek eta nik daukagun anaitasunaren ezaugaria bera da, zuretzat eta karmeldar guztientzat esker berezia, Eskapulario au jantzita ilten danik ezta inpernura eroriko».

¡Gauz a'riga'ia! ¡esker ikusga'ia! ¿Maria'k guganako maitasunaren ezaugaria aundiagorik eman al zezakean? ¿Ez al degu, bada, oraindikan Karmen'go Eskapulariorik artuko? ¿edo berak eskatzen diguna sabartasunez egingo ote degu?

Gertaketa

Karmen'go Amak Simon Stok deunari Eskapularioa eka'ri zion egunean bertan bere

indar eta laguntza aundia azaldu zuen.

Bi gizon, gogor eta elkar ilterano bufukatu ziran. Lazter zauriturik lufera erori zan bata, ta deabruari deika, zai zegon noiz ilko ote zan. Berealaxe apaiz bat etofi zan eta biotz ura biguntzeko asmoz Jaunari otoika asi zan. Era onetan zegola zerugoitik itz auek entzun zituen: «Zoaz arin karmeldafengana, ta nere seme Simon ekañi ezazu onera». Karmeldafen Nagusia eldu zanean, gaxoa odolez estaldua ta biraoka, deabruari anima eskeintzen arkitu zuen.

Gurutze donea egiñaz Andre Maria'k aúeko gabeen ekañi zion Eskapularioa jañi zion gaxoari. Maria'ren jantzi ofek ikutuaz batera arpegia aldatu zitzaion gaxoari, eman zion negañari, bere pekatu guztiak aitortu zizkion Karmen'go Nagusiari, ta azkenez, gurutze ta Eskapularioari musu emanaz, pake osoan il zan.

Ala ere bere anaia beldur zan, baña Jaunak bialdu ta agertu zitzaion bere anima, onela itz egiñaz: «Andre Maria'ren eñukiz eta bere Eskapularioaren indañez, ez naiz betiko inpernuan erori, ta zerurako aukeratua naiz».

(Orain Maria'ri Agurak eta Azken-Otoitza lenengo egunean bezela).

LAUGAÑEN EGUNA

Karmen'go Eskapularioa ta Purgatorioa

KARMEN'GO Eskapularioa daramatenen alde beste eskeintz pozgañi bat ere egin du Andre Maria'k. Loituta dagon animarik ezin diteke iñola ere zeruan sartu, ta beraz, pekatuen zor guztiak ordaindu gabe ilten diranak zeruan sartu baño len garbitzeko garbitoki edo Purgatorioa bear-beañoekoa da.

Karmen'go Ama erukitsuak badaki nolako oñazeak dituzten anima aiek, eta Karmen'go Eskapularioaz ilten diranen alde begira zein eskeintz pozgaña Aita Santu Joan XXII'gañenari egin zion: «Karmen'go Eskapularioan sartuta dagonen bat ilten danean Purgatorio'ra juten baldin bada, ni bere Ama laztana, lenbiziko larunbatean jetxiko naiz ara, ta an arkitzen ditudan Karmen'go anai guziak zerura eramango ditut.»

¡Au bai eskeintz aundi ta pozgaña dala!

¿Nork ez ote du Karmen'go Eskapulario ta bere Amaganako maitasunean biotza sutuko? Ez digu inpernuan erortzen utziko Karmen'go Eskapularioak, eta Purgatorio'tik lenengo larunbatean aterako gaitu.

¿Ez al degu, bada, Karmen'go Eskapularioa poz-pozik eramango, bere eginbearak aietaz betetzen ditugula?

Gertaketa

Amerike'tako eñi batean mutiltxo bat bere gurasoakin bizi zan, eta lenbiziko aldiz Jaunartu zuenean Karmen'go Eskapularioa jafi zioten. Mutiltxo oñen biotzean Maria'ganako maitasun beroa sortu zan egun artan, eta gerroztik egunero *Salbea* esaten zion Karmen'go Amari. Baña mutiltxo ori gizon egin zan, eta, jolaz gaizto ta lasaikerietan begietaraño sarturik, bide gaiztoari jañaitzeko, gurasoakandik alde egin zuen. Bere Kristautasuna aguro galdu zuen, baña bizitzarik gaiztoenari jañaituta ere, beti, egunero Karmen'go Amari bere *Salbea* esaten sion; beñere Karmen'go Eskapularioa etzuen kentzen, eta berak eriotza-zoritik bein baño geiotan gorde zuen.

Bere guraso efukafiak negañez Karmen'go Amari bide onera semea ekartzeko eskatzen ari ziran. Laster seme galdu ura bere gurasoengana biurtu zan eta negañez parka eskatu zien, eta auferantzian seme on bat izan zan, eskeñak Karmen'go Eskapularioari.

(Aguñak eta Azken otoitza lenengo egunean bezela).

BOSGAREN EGUNA

Karmen'go Eskapularioaren aberastasunak

KARMEN'GO Eskapularioan sartuaz batera Karmeldaren seme biurtzen gera, ta era berean Karmen'go irabazien jabe egiten gera. ¿Ta nolako aberastasunak ote dituzte Kalmeldanak? Jaungoikoak bakañik daki, munduko erelijiñorik anziñekoen bera dalako, ta ainbeste barau ta egikizun on egiten dituztelako, bai orain bizi diranak, baita ere Elias igarle deun, Teresa deun eta gurutzeko Jon deunak, beste askokin batera.

Baita Karmen'go Eskapularioa artuaz batera orain arte Karmen'go Anaidian sar-

tu diran guzien anai egiten gera ta beren egintza guzien jabegai. Bai, Karmen'go Ama gozoa, zuri eskeñak, nere irabaziak labuñak badira ere, beste oiekin naztuta sari aundia irabaziko detala uste det. ¿Ez al det, bada, ainbeste aberastasun irabasteke egañirik izango?

Gertaketa

Karmen'go Eskapularioak añisku-alde askotarako daukan laguntza mirari askoz azaldu du. Mixiolari batzuk Aulaye zeritzaion eñi baten mixioak ematen zeudela, etxe eder batek sua artu zuen. An zegon bateri gogoratu zitzaion ogei urte añaño Eskapularioa surtara botata su aundi bat itzali zala. Ta oñela an zegon mutil gazte batek soñean zeukan Eskapularioa sugar erdira bota zuen. ¡Ura bai gauz añaña! bat-batean su guztia itzali zan eta uñengo egunean Karmen'go Eskapulario ura oso-osorik arkitu zuten, batere eñe gabe. —

(Karmen'go Amari Añañak eta Azken-otoitza, lenengo egunekoak).

SEIGAREN EGUNA

Karmen'go Eskapularioaren aberastasunak

ELIZ-AMAK parkamenezko aberastasun aundiak ematen dizkie Karmen'go Eskapularioan sartu diranai, ta ain parkamen ugariak dauzkun beste eraspenik ez degu e'raz arkituko.

Beraz, parkamen osoa irabasten degu: 1) Karmen'go Eskapularioan sartzen geran egunean; 2) Karmen'go egunean; 3) eriotzako orduan eta beste zenbait aldiz ere. Azkenik, Karmen'go Eskapularioari muxu ematen diogun bakoitzean *500 eguneko* parkamenak irabazi ditezke.

Begira zerurako aberastasunak irabazi ta Purgatorio'ko anima e'rukafiai laguntzeko zein era egokia ematen digun Karmen'go Amak bere Eskapularioaren bidez.

¿Ez al gera aberastasun oiek irabastera saiatuko? Bai, egunen batean bear-bearekoak izango zaizkigu ta erarik onena oraintxe degu.

Gertaketa

Jon Bautista Bertran agurgafia Alkora zeri-tzaion eriko apaiz nagusi zala, ostiral gauetan zinzafi soñu arigafiak entzuten omen ziran eliz-bafenean gauerdi inguruan. Alako otz arigafiak entzunaz, nundik zetozen jakin nai zuen, eta egun baten entzun zuan Karmen'go anaikide edo kofradikoen animak ziralara, eta onela ostiral gauerdian, larunbat egunaren azieran poztasun aundia agertzen zutela, egun ontan Karmen'go Ama etori ta Purgatorio'tik zerura anima asko eramango zituelako, agin-durik daukan bezela.

(Aguñak eta Azken-otoitza lenbiziko egunean bezela).

(Zazpigarren egunetik amaseigarnera Bede-ratziufena egiten da).

AMAZAZPIGARREN EGUNA

**Karmen'go Eskapularioaren mirariak
berari indaia ematen dio**

JAUNGOIKOAK egindako mirariak egiaren ezaugarriak dira. Gezuraren alde bei-

ñere ezta egiazko mirarik egiten, ezta Jau-
naren gogokoa, ezta jaiera baten aldez ere.

Beraz, Jesus'en Lagundi'ko Aita Lako-
lonbier zoriondunak dionez, zeruko Andre
Maria goraltzeko asmatu diran egikizun
guzien artean onena ta egokiena Kar-
men'go Eskapularioari dagokiona da, mi-
raririk aundienak bere aldez egin diralako.
Karmen'go Amak ere bere Eskapularioa
daramatenen alde maitasun aundia agertu
izan du.

¿Ta nik ez al diot poztasun aundi ori
Karmen'go Amari emango neronekin Kar-
men'go Eskapularioa beti eramanez?

Gertaketa

Segobia'ko eñi baten Santiago Kalpe ze-
ritzaion gizon bateri tximista bat erori zi-
tzaion eta jantziak kiskali ta begiak eñe ziz-
kion; ezin bizi zitekean gizonen antzik ere
etzeukan-eta. Ala ere gizon ofek, soñean ze-
raman Eskapularioari eskeñak, amabost egu-
nean bizirik iraun zuen. Bitartean elizakoak
astiro artu ta larunbat egunean il zan.

Beste oñenbeste oraintsu Jaraze'ko eñian Ilario deritzaion bateri gertatu zaio. Basotik mando gañean zatofela, tximista batek mandoa il eta berari soñeko guztiak kiskali zizkion; Karmen'go Eskapularioa bakafik oso-osorik gelditu zitzaion, eta berari eskeñak bizirik arkitzen zan.

EMEZORTZIGAREN EGUNA

Azteazkenak Karmen'go Amari

eskeintzea

AZTEAZKENAK astero Maria'ri eskeintzea onenetako eraspenna da. Judaz gaiztoak Jesus maitea asteazken baten saldu omen zuen, eta augatik anziñako Kristauak azteazkenetan barau egiten omen zuten. Anziñako oitura oñi Karmeldarñak jañaitzen diote ta Karmen'go Eskapularioan sartuta daudenak badira egun ortan barau ta bijili egiten dituztenak ere.

Eñoma'ko Paulo V'gañenak oitura oñen alde parkamenak emanaz zabaldu zan asko oitura ori.

¡Jesus'en omenez egun ortan barau egitea Andra Maria'rentzat zein pozgarri izango ote da! ¡nola sariatuko ditzute egikizun oregatik! Jaunaren aurrean gure bitza guztiko egikizunen erabakia entzun bear degunean zein poztasun aundia gurea egikizun ori egin badegu, ta nolako esker beroak emango ote dizkiogu orduan Maria'ri!

Gertaketa

Mantua'ko eñian 1622'gafen urteko Epailaren 14'an urkamendira gaizkile bat zeramaten. Gaiztoa izanafen etzuen beñere kentzen soñetik Karmen'go Eskapularioa gizon ofek, beragan itxaropen aundia zeukalako. Urkamendira igotzean *Salbea* esanaz Karmen'go Amari eskatu zion, afen, ordu lañi artan laguntzeko. Kateak lepoan urkatzeko jafi zizkiotenean deadañez esan zuen: «Eñuki nazazu, ene Ama laztana». Bereala tramankulu aundiari bira ta biraka eragiten asi zan gizon erailtzailea, lotuta zegon gizona itotzeko. ¡Baña ura gauz afigaria! kate guziak zartatu ta eten, eta luñera erori ziran.

Au ikusita gizon gaizkilea belauniko jafirik Karmen'go Amari eskerik beroenak ematen asi zan; orduan gizon erailea auferatzen zaio, ta biotza zulatu ta erdibitu nai zion, bertan il da uzteko; baña igartuta gelditu zitzaion bere besoa jaso zuanerako.

(Aguñak eta Azken-otoitza lenengo egunean bezela).

EMERETZIGAREN EGUNA

Karmen'go Amari larunbata ezkeintzea

LARUNBATA Andre Maria'ri bereziz opatua izan da beti ta alde guztietan. Igandea Jauna gurtu ta goraltzeko izan dan bezela, larunbata Maria guztiz garbia maitatu ta bereziz goraltzeko egun aukeratua da.

Baña batezere Karmeldaren eguna da larunbata, Ama oñek Karmen'go Eskapularioa jantzita ilten diranen arimak Purgatorio'tik atera ta zerura eramateko egun ori aukeratu dualako. Eta esker-mesede aundi ori ez al degu eskertuko

Maria'ganako maitasuna larunbatetan azalduaz?

Karmeldarren elizetan *Meza nagusi* ta *Salbea* larunbatero abestuten dira Karmen'go Amaren omenez, eta Karmen'go Eskapularioa daramaten guztiak egiñalak egin bear dituzte elizkizun oietara juateko. Onela Karmen'go Amak Purgatorio'an arkitzen zeranean lagunduko dizu larunbatean zerura eramanez.

Gertaketa

Gurutzeko Joan Deunaren anai baten emaztea il zanean, naigabeturik zegon senaia etzekielako nun arkitzen ote zan emastearen anima, ta bere aldez Andre Maria'ri gogotik otoi egin zion. Andre Maria agertu zitzaion eta esan zion: «Zure emaztearen anima iru gau ta egun biko neke-oñazeak igarota, gaur, larunbatean Purgatorio'tik atera da, ta zeruan dago zorionez».

(Aguñak eta Azken-Otoitza lenengo egunekoak).

OGEIGAREN EGUNA

**Andre Maria'k eriotzaldean gozaten
gaitu**

BENETAKO senide ta adizkideak ez dira ezagutzen egun zoriontsuetan, neke ta zorigaitzez inguraturik gaudenean baik. Lufeko adizkideak ez dute utziko ugaritasunean dabilen adizkidea, baña zoritxarez beterik ikusten badute laister baztertuko dute. Andre Maria'k ez die ofelakorik egiten bere adizkideai, beren naigabetan bigun eta maiteki laguntzen die ta inoiz baño geiago lañi ikusten dituenean, batezere eriotzaldean.

Bere seme Jesus'en eriotzako naigabe samiñak igaro zituanezkero, beste seme guziaz ere ordu lañi artan aretaz laguntzeko gogoia sortu zitzaion. Ofegatik ainbeste aldiz egunero esaten diogu: «Jaungoikoaren Ama donea, eregutuzazu gu pekatarioen alde orain eta gure eriotzako orduan».

Gertaketa

Andres Abelino doneari amar mila deabru amofuz beterik agertu omen zitzaizkion eriotz-aldean, eta negaiez, ikaraz gorputz guztia dar-daraka ta arpegia bel-beltz egiña omen zeukan. Bere aldamenean zeudenak ere negaiez omen zeuden ain gizon ona alako estu eriotzaldean ikusita; baña Andre Maria'ri otoitz egiten asi ziran guziak, etz alako batean Ama ofen irudi batengana begiratuaz paketsu ta poz-pozik gelditu zan, eta Andre Maria'ri eskeñak emateko bereala makurtu zuen bere burua ta pañe antzean il da gelditu zan.

Eriotzako lañitasunean ongi aterako gera gu ere, Andre Maria gure alde badegu.

(Aguñak eta Azken-otoitzak lenengo egunekoak).

OGEITABATGAÑEN EGUNA

Maria maite duenik ezta galduko

ANDRE Maria'ri egiazko eraspenna dionik ez da galduko; geiegi dala esango du batenbatek, baña egia da ta eliz

-gurasoak berak ala aitortzen digute.

Itxaropen augatik pekatu geiago egiten jañaitu nai dutenentzat ez da aditu bear esakuntza ori. Uste oker onen bidez gaiztakerian jañaitu nai dutenak, ez dute azkeneko orduan Maria'ren eñukirik izango. Pekatariak izanañen bide onean jartzeko egiñalak egin eta Jaungoikoaren Amagana laguntza eske gogoz eta zintzoro datoñenentzat aditu bear ba egi ori.

Anselmo irakasle deunak au esaten digu: «Nekez zeruratuko da Andre Maria bere alde ez badu, ta nekez betiko galduko da Andre Maria'gana uste osoaz zuzendu ta onek eñukitsu begiratzen ba' dio. Erbeste onetatik zeruruntz dijoan ontzia Maria da, ta kutxa zoriontsu ontan sartzen ez dana betiko ondatuko da».

¿Ta onelakoa bada Andre Maria bere maitale guzientzat ¿nola lagunduko ote die bere Karmen'go Eskapularioa jaierez soñean daramatenai?

Gertaketa

Prantzi'ko neskatxa batek, zerbait munduzalea izanaŕen beti soñean itxaropen biziaz Karmen'go Eskapularioa eramaten zuen.

Bein baten, dantza lekuan galai apain bat agertu zan, eta banaka-banaka ango neskatxa guztiak dantzara eraman zituan, bakar-bakariŕik len aitatu deguna utzi zuen eraman gabe. Dantza bukatu zanean, gazte onek aldegin zuan, baña neskatx oñek galaiaren oiñazpitik sua bezela ateratzen zala ikusi zuen; alaere iñori etzion ezer esan, irudipen utza zalakoan.

Urteak igarota lekaime izateko asmoz neskatx ori Bianney Ars'ko apaiz deunagana jun zan aitortza on bat egitera. Onek galdetu zion: onelako eguneko dantzaldi artan gertatu zitzaizuna gogoratzen al dezu?—Bai, aita, erantzun zion—Ta besteakana bai ta zugana eldu etzana nor zan bai al dakizu?—Ez, Jau-na—Deabrua zan galai ura; berakin dantzatu zutenak inpernuan daude batzuek, eta ondartzeko bidean besteak ere; zuri etzizun ikutu Karmen'go Eskapularioa soñean zeneukalako.

Oña Karmen'go Eskapularioa maitasunez

daramaten seme-alabai nola galbidean laguntzen dien Ama maitagari ofek.

(Aguñak eta Azken-otoitza lenengo egunekoak).

OGEITABIGAREN EGUNA

Simon Stok deunak Karmen'go Amari egin zion otoitza

KARMELO'KO Lagundiak deabruari amonugogoia ematen zion Maria'ren aldekoa ta Maria'k berak sortua zalako, ta augatik Maria'ren eta bere seme karmeldaren aurka jaiki zan ekaitza oso gogoia eta beldur ziran beren azkena ote zan. Baña, ez beldurtu; ¿norenkana jungo ete dira laguntzaren bila? Maria'gana beti, bere semeak zaintzen dituanagana, beren Ama gozoa dalako.

Simon Stok, Karmen'go Nagusi deun, Maria'ren maitale aundiak bere biotzeko itxaropen aundiz eguneroko otoitz bero au esaten zion: «Karmen'go lora, masti loratsu, zeruko argi, Maria sorkundez

garbia; Ama maitale, samur ta itxasoko izaía, zure karmeldárai berezizko maitasun eta indaía emaiguzu». Ta otoitz au egin ondoren esan oi zion: «Itxasoko izaía, zure ontzitxoa olatuen artean ondamu ta gofotozko aizez nekaturik ikusten dezu; guretzat eztago luñean laguntzarik, zeruan eztegu izar bat baño ikusten, eta izar ori zu zera, Maria. Ama erukitsua, zu gure Ama ta gu zure semeak generala adierazteko karmeldárai zure maitasun ta almenaren ezaugaí bat emaiguzu».

Biar ikusiko degu nola Maria'k lagundu zien.

Gertaketa

Italia'n Padua eriko gazte batek Karmen'go Eskapularioa maitasun andiz jantzi zuen. Griña zital eta adizkide gaiztoak gauza onetarako zaletasuna galdu eragin zioten. Bañuko afa-
ren kezkek ezin eramane, bere burua iltzea erabaki zuen. Bere bulaía alde batetik bestera zulatzeko asmoz eta indaiez sastakatu zuen, sorionez Eskapularioa zeukan aldetik; baña

burni zofotzak etzuan bere bulafean sartu nai izan.

Orduan begiak argitu zitzaizkion, soñean zeraman Eskapularioaren mirari aundia zala ezagutuaz. Damutu zan eta andik aufera beti onbidean bizi izan zan, Karmen'go Amari esker-mesede uragatik egunero eskeñak emanaz.

(Aguñak eta Azken-otoitza lenengo egunekoak).

OGEITAIRUGAREN EGUNA

Karmen'go Eskapularioa Maria'k ekañi zigun

AMA guztiak bat eginda baño maitasun eta samurtasun zintzoagoa dauka biotzean Maria'k, Kurutziaren oñetan bereak egin ziran miloeka seme-alaben Amada-ta. Semearen negar samuñak ikusi ezkerero amaren biotza puskatzen da. Simon Stok deunaren negar zotiñak entzun zituenean Maria'k ere. Entzun deun oñen itzak: «Nik, autsa izan añen, Jaungoikoaren aurrean, nere biotza ixuriten nengoala, ta

Andra Maria'ri uste osoz eskaria egiten niola esanaz, karmeldarai bere nebak deitzea nai izan zuen bezela, erakutsi zezala gure Ama ere bera zala ta guztiz maite ginduela, gure etzaiangandik azkaturik; eta gañera berarizko maitasun oñen ezaugarrien bat emateko esaten niola, aingeruz inguraturik eta karmen'go jantzia eskuetan zeukala zeruko Eregiña au agertu zitzaidan, eta esan zidan: «Zure Lagundiko Eskapulario au ar ezazu, ene seme maitea, nere neba-añebatasunaren ezaugarria, *privilejioa* zuretzat eta bera jantziten duten karmeldar guzientzat; bera jantzita ilten danik ezta inpernuan eroriko».

Onela Simon Stok deun agurgariak bere otoitzen bidez Maria'gandik jantzi eder au iritxi zigun, ez Karmen'go Lagundian bizi diran lekaideentzat bakarrik, baita Karmen'go Eskapularioko Anaidian sartu diran guztientzat ere.

Gertaketa

Gurutzeko Jon Deunaren anai Prantzizko

agurgariak etsai galgariaren ziriketak alden-
tzeko maitasunez Karmen'go Eskapularioa
eramaten zuen. Bein baten deabruak aztindu
zuen Eskapularioa kentzen etzualako; baña
etzala Eskapularioari bere otoitzak egin gabe
geldituko, erantzun zion; eta gañera alde guz-
tietan ezagutu ta maitatua izan zedin egiñalak
egingo zituela. Karmen'go Amaren seme ta
anaikide guztiok beti gogoan euki bear ditu-
gun itz auek esan zizkion orduan deabruak:
«Iru gauzak amofazi eraiten digute inpernuan:
lenengoa, Jesus'en izena entzuteak; bigařena,
Maria'ren izena entzuteak, eta irugařena,
Karmen'go Eskapulario ori ikusteak».

(Aguřak eta Azken - otoitza lenengo egune-
koa).

OGEITALAUGAŘEN EGUNA

**Karmen'go Amaren eskeintz aundia nola
aditu bear dan**

"ESKAPULARIOA soñian daukala ilten da-
nak eztu inpernuko sugari ikusi-
ko». Karmen'go Amaren itzak auek izan
ziran. Baña deabruak Maria'ren eskein-

tzari galgañirako bidea eman nai izan zion, Maria'k esan etzuen esan eraziaz. Eta ala Eskapularioa euki ezkerro naiz pekatuan nola nai bizi, beste gabe salbatuko zirala uste zuten batzuek. Siniskera oso okeña, inpernura zuzen eramaten duena; oñetara izan ezkerro, ez egikizun onik, ez pekatuen damutasunik etzan bearko zerura juateko.

Siniskera txar oñetatik animak aldenitzeko ta Maria'ren itzak zuzen adirazteko Eliz-Amak azalpendu digu Karmen'go eskintz aundi ori onela: «*Pie moriens*, auda, elizaletasunean bizi ta Karmen'go Eskapularioaz ilten dana ezta kondenatuko». Eleiz-Amaren azalpen onek ere beste siniskera batzuk, Karmen'go Amak bere Eskapularioari eman dion aunditasuna bear dan bezela goratzen ez duten siniskerak, auek ere.

Eskapularioak ondo bizi ta ilten diranak salbatzen baditu ¿zertarako ainbeste goratu bere indaña? esaten dute; bada oñela izanik, bera gabe salbatuko ziranak

salbatzen ditu. Baña *eriko sinismenak* ez dio ori, ezta Karmen'go Eskapularioaren *mirari aundiak* ere; auek argi ta garbi erakusten digute Eskapularioaren *indaña*.

Maria'ren itzak esan nai dutena auxe da: «Eskapularioa soñean duela ilten dana, salbatuko da». Au da, Maria, zerutar esker guzien eta pekatarien Amak, Eskapularioaz ilten diranai, azkenengo orduan, Jaungoiko erukitsuagandik pekatuen damutasun eta parkamena iritxiko dizkie. Maria'ren biotz altsuak bere seme maiteai egin dien eskeintza onela azaldu ta aditu bear da.

Gertaketa

Jesus'en Lagundiko Teofilo Abak dionez, Kroazia'ko gudalari bat bere etsaien eskuetan erori omen zan, eta onek eruki gabe zigortu ta guztiz zaurituta, odola zeriola utzi omen zuen. Gudalari gaxoak bere burua onela ikusita, bere etsaiari esan zien: «Egin nai dezutena, alpefik nekatuko zerate; Karmen'go Amaren semea naiz, bere Eskapularioa so-

ñean dakart eta nere pekatuak aitortu arte
ez naiz ilko».

Il zalakoan utzi zuten etsaiak; baña Maria'gan zeukan itxaropenez azkartuta, ordubete-ko bidean ibili zan elizgizon bat zegon tokira eldu arte, ta antxe aitortu ta Maria'ren besoe-tan il zan.

(Aguñak eta Azken - otoitza lenengo egune-koak).

OGEITABOSGAREN EGUNA

Karmen'go Eskapularioaren eskeintz aundia

SALBAZIOAREN ezaugañi aundia da Kar-men'go Eskapularioa. Jesus'en La-gundiko Lakolonbiere Aba jakintsu ta agurgañañiak esanak dira itz pozgañi auek: «Bide onean, salbazioko bidean gaudela jakiteko, Karmen'go Eskapulario erama-tea baño *ezaugañi ziuñagorik* eztagola uste det nik; eta beragatik, ezer ez bere laguntza egiñalaz arkitzea baño beañez-koagorik». Maria'ren erukitasuna ederki goraltzen dute itz auek. Bai, Maria'k zo-

rioneko ordu bat Karmen'go Eskapularioa daramatentzat arkituko du, ta Jaunaren adizkidetasunean jaříko ditu il baño len.

Eta iñoiz Karmen'go Eskapularioa gaizki erabilten duenik ba'lego, au da, azkatasun geiagoz pekatu egin eta lasaiago bizitzeko Eskapularioa daramanik, orduan Maria'k berak egingo du, erukaři ořek Eskapularioa galdu dezala, edo beintzat bera gabe il dedila, ta eztu Eskapularioaren eskeintzarik irabaziko.

Gertaketa

Amerike'tan, Rio Jeneiro'ko Jesus'en Lagundiko ikastetxean, il zan emakume bat lurpetu zuten Karmen'go Eskapularioa soñean zeukala. Eři artan Eskapularioaren eskeintzarik sinisten etzuten asko baziran. Eskapularioaren etsaiak ařitu zitezzen nunbait, andik sei urtera obia idiki zuten bere senar il zana bertan lurperatzeko. Obian emakume ořen ezurak besterik etzeuden, baña Karmen'go Eskapularioa, sartu zanean bezela, garbi ta eder, usteldu gabe. Eliz-gizon nagusiak egiztatu

zuten gertaketa au ta miraritzat artu ere bai.
(Agurak eta Azken-otoitzak lenengo egunekoak).

OGEITASEIGAĀREN EGUNA

Karmen'go eskeintzarako eginbearak

MARIA guztiz gozoa da bere semeentzat, gustiz ona Karmen'go Eskapularioa daramatentzat. Ta ainbeste esker-meseden ordeez ¿zer eskatzen digu? Begira zer digun len aitatu degun Aita Lakolonbierre agurgarñiak: Eskapularioaren ordeez gauza mingarñi bat erabilteko esango ba' lizute ¿ez-baian geldituko ote ziñake? ¿ez al zenduke muxuka artuko betiko bizitza dakartzun gauza lirain ori? Begira, bada, Karmen'go Eskapularioari; eztegu bear Maria'ren eskuetatik artzea baizik. Bera jantzita arkitzen ba'zaitu zeruko Amak, ziur-ziur zeruratuko zaitu. Baña ¿ez al dezu zerbait geiago Maria'ren alde egingo? Goragarñi ta eskergarñia da Eskapularioak dakarzkigun ondasunak gogoratu ta Ma-

ria'ri eskertzia; ta onela ordua entzutean Maria'ri... agurtxo bat egin dezaiogun eskari labur onekaz: «Bedeinkatua ta ospetua izan bedi Maria gustiz Deunaren erugabeko Sorkunde garbia, ta Stok'tar Simon Deunari Eskapularioa eman zion ordua».

Onetzaz gañera Maria'ri sañi ikustaldeak eleizan edo etxean bere irudi baten aurrean egiten zaiatu, ta itz batez esateko, Karmen'go Eskapularioak ekañi dizkigun ondasunak zabaldu ta jakinerazi alde gus-tietara.

Gertaketa

Jesus'en lagundiko Teofilo Abak Eskapularioaren bidez egindako mirari añañi bat onela azaltzen du: 1636'gañen urtean Lombardiko guda gogorñean Kuje jauna bular-bulañean bala batek jo zuen, baña Eskapularioaren gañean; Eskapulario ta bala biotzeraño sartu zitzaizkion, eta jakiña unean bertan il bear zuen. Baña Karmen'go Amak gizon ofi zariatatu nai zion bere Eskapularioaganako zeukan sinis-

mena, eta etzan il iru egunean bere animako gauzak ongi zuzendu artean.

OGEITAZASPIGAÑEN EGUNA

Karmen'go Amaren bigaÑen Eskeintza

KARMEN'GO Eskapulario edeñak gorputz eta animako arisku gustietatik aienatzen gaituela badakigu, Karmen'go Amak esan zigun bezela, *salus in periculis*. Baita eriotzako ordu estuan Eskapulario au animaren laguntza, poztasuna eta zeruan sartzeko *txartela*, baita salbazioko *ezaugarri ziur-ziurña* dala ere.

BaÑa oraindik geiago: Purgatorio'ko animentzat, an izugarizko oÑazeak igarotzen dituzten anima erukañientzat poztasun aundi ta atsegin berezia da Karmen'go Eskapularioa.

Bai, Karmen'go Eskapularioan sartuta dagon bat ilten danean, urngo lenbiziko larunbatean Karmen'go Ama erukitsua Purgatorio'ra jetxiko da, ta an Eskapula-

rioa jantzita arkitzen dituenak, ango kate gogoñak puzkatu, zu izugañiak itzali, ta zeru edeñera eramango ditu.

Begira, Kristaua, anima erukañi aiek nolako negar malkoak botatzen dituzten zugar aundi aien erdian eserita; gañera, Elizako gurasoak diotenez, inpernuko oñazeak ere ez dira aundiagoak, bakañik inpernukoak betiko dirala ta Purgatorio-koak ez; Nolako atsegiña gurea, Eskapularioaren bitartez lenbiziko larunbatean andik ateratzea, zerura joateko!

Gertaketa

Gure Aita agurgañi, Gurutzeko Joan Deunak bere eriotzako egun eta ordua ere bazekian Andre Maria'k azaldu ziolako; ta augatik bere eriotz-aldean poz-pozez eskeñak ematen zizkion Karmen'go Amari larunbatean iltzea iritxi ziolako, egun ori zeruko Amari eskeñia ta gañera Karmen'go Amaren egun berezia dalako.

(Aguñak eta Azken-otoitza lenengo egunekoak).

OGEITAZORTZIGAREN EGUNA

Karmen'go bigarren eskeintza

PURGATORIO'AN anima erukañiak zenbat beta egin bearako ote dute? batzuek urte askotan egon omen dira: bat mila urtean, eta Erroma'ko Aita Santu Bonifazio Deunak dio munduaren bukaera arte anima batsuk egongo dirala. Gogora dezagun, bada, Karmen'go eskeintzaren bidez Purgatorio'ko oñaze aietatik atera dezagun gure anima egun gutxi bañuan zerura igotzen degula Karmen'go Ama gozoakin. ¡Au bai dala eskeintz aundi ta pozgarria!

¡Baña noiz eta nola eskeintz ori egin zigun Karmen'go Amak? Erroma'ko Aita Santu Joan XXII'garrena Karmen'go Amaren maitale aundia zan, eta bein batean Ama ori agertu zitzaion, eta esan zion: «Karmen'go Eskapularioan sartuta dagonen bat ilten danean Purgatorio'ra juten baldin bada pekatuen soñak ordaintzera;

Ni, bere Ama laztana, jetxiko naiz lenbiko larunbatean, eta an arkitzen ditudan Karmen'go anai guziak, eramango ditut zerura».

¡Karmen'go Ama maitagaría, mila esker eskeintz ain posgaría egin diguzulako! Bai, goratua ta maitatua izan bedi Karmen'go edertasun eta Eregin itxaropenez betea.

Gertaketa

Napoles deritzaion efi inguruan mutil gaizto batek bere lizunkerizko pekatutara ezin ekañi zuelako neskatxa bat, goñotoz artuta itxasora bota zuen. Karmen'go Ama bereala agertu zitzaion itxasoan, eta esan zion: «Andres Zen-nemo'ri deitu zaiozu ta berak lagunduko dizu». Ala gizon ori orduantxe bere itxasontziz inguruan arkitzen zan eta legoñera atera zuen. Pozik gazte au Karmeldañen eleizara jun zan, eta eskeñak eman zion Karmen'go Amari gorputz eta animako eriotzatit gorde zuelako.

OGETABEDERATZIGAREN EGUNA

Karmen'go Amaren bigarren Eskeintza

KARMEN'GO Amak egin digun bigarren eskeintzaren itzak ¿nola aditu bear ditugu? Karmen'go Amak esaten digunean: «Ni bere Ama laztana Purgatorio'ra jungo naiz lenbiziko larunbatean», ez du esan nai *larunbatean bakarrik* jungo dala, baizik *lenbaitlen*, eta *batezere* larunbatean jungo dala.

Bestela gertatu diteke Karmen'go Eskapularioan dagon bat, ona izan eta pekatu txiki bategatik Purgatorio'ra joatea, ta beste bat beriz pekatu txiki asko dauzkalako luzagorako joatea; lenengo ori astelenan ilten bada, egon bear ko du larunbatera arte, eta bestea ostiralean il bada, uringo egunean jungo litzake zerrura.

Augatik Eliz-Amak esaten digu Karmen'go Amak ez larunbatean bakarrik, baizik *lenbaitlen* anima oiek eramango

dituela zerura, baña *batezere larunbatean*, egun au Andra Maria'ren egun berezia dalako.

Iñork ezin ukatu lezake eskeintz eder au Eleiz-Amak ontzat emanda daukalako. Baña ala ere esango du baten batek: Jau-na, ori geiegi ematea da ¿nola Ama oiek egin lezake ain eskeintz aundia?... Bai, zuk bezelako biotza izan ba'lu, etzigun emango ainbeste; baña ¿bai al dakizu amaren biotza nolakoa dan? eta Ama Maria'rena ¿nolakoa dan? ¿Eta nolako oñaze samiñak igarotzen dituzten Purgatorio'ko anima erukañiak?...

Bada anima oiek ezin dute ezer egin beren alde; baña Ama oiek badaki nola arkitzen diran bere seme oiek, eta bere eskuan dauka andik ateratzea... Sinisten al dezu orain Karmen'go eskeintz pozgañi aundi ori?...

Gertaketa

Karmeldaren alde daukan maitasun berezia agertu zuen bein batean Karmen'go Amak

Bolonia'ko eñian. Karmeldafak Salbea abesten Elizan ari zirala, Ama ori, Aingeruz inguraturik, eskefeko eskuan bere Seme maitea ta eskuian Eskapulario deuna zitula, jetxi zan zerutik, eta karmeldafai esan zien: «Nere seme maiteak, jañaitu ni onespendu ta goraltzen». Eta Salbeko itz auek: «Erbeste onen ondoren erakus zaiguzu zure zabeleko Seme eztitsu ori», esaten ari zirala, Karmen'go Amak Jesus Aurtxoa lekaide bakoitzari eman zion lastandu zezaten. Ta azkenez, agur egin zien esanaz: «Ene Seme maiteak, onela ni onespendu ta goraltzen jañai zazute, ta gero nik Jesus maitea erakutsi ta guziok zeruan nere inguruan bilduko zaituztet».

OGEITAMARGAREN EGUNA

Karmen'go Amaren bigarren eskeintza

KARMEN'GO eskeintz eder ori irabazteko ¿zer egin bear ote da? Iru gauza: 1) Karmen'go Eskapularioan sartu, Eleizan eskubide daukan praile edo apaiz bateg jañita. 2) Bakoitzak bere bizieran garbitasuna gorde, au da, Jaunak seigañ-

en aginduan esaten diguna gorde; eskonduak, eskonduak bezela, ta eskongaiak, eskongaiak bezela. 3) Karmen'go Eskapularioan sartu zīñanean eman zizkituten otoitzak egin; zazpi *Aitagure* ta *Agur Maria* izaten dira geienean.

Iru gauza eřaz auek gorde, ta soñean Eskapularioa eraman ezkerro, ez beldurtu Karmen'go Amak *bizitzan* lagunduko dizu, *eriotzan* salbatu ta *Purgatorio'tik* lenengo larunbatean aterako zaitu.

Ořetzaz gañera Karmen'go Eskapularioan sarturik daudenak karmeldar guzien egikisun on guziak irabasten dituzte; baita urtean barkapen asko, batezere ileroko elizkisunera etořiaz; eta edozein Karmen'go Eskapulariori muxu emanaz *500 eguneko* barkapenak era bakoitzean irabasten dira.

Begira zein laguntza aundiak dauzka-gun bai Purgatorio'ko animen alde, baita ere gure pekatuen zořak emen ordaintzeko, geroko utzi gabe.

Gertaketa

1875'ko Otsailaren 3'an Napañu'ko Lorka deritzaion eñian karlisten gudan gudari edo soldadu asko zaurituta gelditu ziran. Auen artian bazan burua zaurituta iltzat emandako gudari bat. Apaizak, bere ondotik igaro zanean, esan zion: Jaunak parkatu dezaiola, ilda zegolakoan. Baña oraindik bizi zan eta galdetu zuen ia apaiza ote zan. Baietz, erantzun zion. Eta orduan itz oroigarri auek esan zituen: «Nere amak gudari etofi nintzanean jañi zidan Karmen'go Eskapularioa, nere bular gañean daukat; beragana nere estutasunean biurtu naiz; eta nere pekatuak aitortu arte ez naiz ilko».

Biotz samurtuaz itz pozgarri auek entzun zizuten, eta ala gudari ura aitortu ta Karmen'go Amaren besoetan il zan ¡Zorioneko eriotza!

OGEITAMAİKAGAREN EGUNA

Karmen'go Eskapularioa Maria'ren oroipena

JAUNGOIKOAREN Amak zerutik ekañi digun jantzi maitagarria da Karmen'go Es-

kapularioa; bere maitasunaren oroipena. Baña, oroigarí bat baño geiago ikusten du biotzak maitearen eskeintzan, biotza ber-bera ikusten du. Oial zati bat baño zerbait geiago ikusten degu bai guk ere Karmen'go Ama gozoaren Eskapularioan. Maite gaitun zeruko gure Amaren biotza ikusten degu; erukiz begiratzen diguten begiak, samurki laguntzen digun esku altsua ikusten degu.

Kezkaz arkitzen dan animak laztantzen du bulafean estuturik Eskapularioa, eta gogo beroaz dio: «Ez nazazu utzi, ene Ama gozoa». Naigabe ta samintasunez aulduta dagon biotzak Eskapularioari musuka dio: «Zeruratu nazazu, lagundu zaidazu, Karmen'go Ama laztana» Bakartasunean ilten dagon gaxoak eskuetan artuta negar malkoz busitzen du Eskapulario bedeinkatu au; alkar-izketan daude Maria ta ilten dagona: Onek, ez dezala utzi bakarik ordu artan, esaten dio; Amak beriz erantzuten dio: «Emen nago ta ez beldurtu, nere

semeakandik ez naiz aldentzen ni-ta».

Bai, jakintsu batek zionez, gure betiko zoriona irixteko daukagun *ezaugañirik aundiena ta ziuñena* Karmen'go Eskapularioa da; ta, beraz, guk geien maitatu bear deguna ere bera izan bear du. Ta augatik berak estaltzen ez duen bulañik ez du izan bear; gazte, zar, aundiki naiz beartsu, guziok Eskapulario maitagañi au eraman bear degu soñean beti.

Gertaketa


España'ko eñi batean karmeldañen etxera jun zan aitortzera deabrua bere gorputz bañenean zeukan gizon bat; etzan gizon gaiztoa, baña ala ere deabruak bere gorputzean egoteko baimena zuen nunbait, eta andik ezin bota. Aitorleari esan zion: Jauna, nik deabrua daukat bañenean eta usterik gutxienean naiz latiñeraz, naiz frantzeraz itzegiten det beiñere izkuntza oiek ikasi gabe; baña ez beldurtu. Ala aitortzen asi zan eta bereala latiñeraz deabrua bere aotik. Bukatu zuenean, aitorleak galdetu zion ia Karmen'go Eskapulariorik ba-

zeukan, eta ezetz, erantzun zion, baña pozik artuko zuela.

Eraman zuten gizon ori aldare nagusira, Eskapularioa bedeinkatu zuten, eta burutik jafi ziotenean ber-bertan, deabrua kafasika ta deardarka asi zan, esanaz: «Karmen'go Andre Mari au nere etzairik aundiena da»; ta bereala asi zan gizon ori izugarizko zalapartak egiten, aotik aduñá zeriola, ta gustiz ondaturik utzi zuen gizon gaxoa.

Oraindik ez dira urte asko au gertatu zala, gizon ori konpesatu zuena karmeldar bat zan ta oraindik bizi da bera.

¿Zer geiago nai degu Karmen'go Eskapularioaren indaña ikusteko?





KARMEN'GO ANDRE MARIA'RI

BEDERATZIUREN LABURĀ

Eguneroko otoitza

Nere Jaun eta Jaungoikoa: Zure aurrean auzpezturik eta Zu ainbat aldiz irainduaz damuturik, parkapena eskatzen dizut. Nere eginbeñak betetzen lagun zaidazu, Jauna, onela anima garbi ta biotz alaituz zure ta Maria'ren gozotazun zoragariak gozartu ditzadan; eta Ama onen bidez Bederatziuren ontan eskatzen ditzudana iritxi dezadan, zure omen eta nere onerako bada. Alaxe.

LENENGO EGUNA

Otoitza

Karmen'go Ama maite - maitea: Zure

garbitasunaren irudiz Karmelo cndoan agertu zan odeitxoagatik, nere gogorapen, itz eta egikisunetan oso garbia izan nadila ta zure Eskapularioari musu emanaz etsaiaren ziltzaldiak aienatu ditzadala. Alaxe. (Eskaria ta Salbea)

KARMEN'GO AMARI AZKEN OTOITZA

Karmen'go Ama maite - maitea: Zure Eskapularioa salbazioaren ezaugarri ziur-ziurra zala zuk esan zendun, zugana gaur laguntza eske datofen au erukiz artu zazu, bada.

Karmen'go Lorea, nere animaren lora-tegia zure usai gozoz usaindu ezazu. Itxasoko Izar edera, arizkuz beteriko itxaso au zure laguntzaz igaro dezadala eta zuzen betiko kai edera eldu nadila. Ama lastana, alan izan dedila, ta orain zure Eskapularioari pozik musu emanaz eta

Bederatziuren ontan zugandik iritxi nai detana eskatuaz batera Aingeruakin agurtzen zaitut: *Agur Maria...* (3 aldiz).

BIGAREN EGUNA

Otoitza

Karmen'go Ama maitea: Karmelo-mendian Karmeldarakin egin zituzun izketaldi gozoakatik, nik itz lasaiak gorotatu ta zure Eskapularioa goraldtu dezadan nere mingaña lotuerazi egidazu. Alaxe. (Eskaria ta Salbea)

IRUGAREN EGUNA

Otoitza

Karmen'go Ama maite-maitea: Karmeldar zure seme kutunak Karmelo-mendian zuri lenbiziko aldarea egiñaz, inork baño lenago, goraldtu zindutelako, nik ere nere biotzean zuretzat aldaretxo bat egin dezadala, Ama lastana, ta Eskapularioaren bidez zu maitatu ta gurtu zaitzadala. Alaxe. (Eskaria ta Salbea)

LAUGAÑEN EGUNA

Otoitza

Karmen'go Ama maite-maitea: Zure *seme ta anaien* izenez Karmeldar'ak goraldutuzulako, ni ere egiazko semea ta zure nere biotzeko Ama izan zaitezela egizu Ama erukitsu o'rek. (Eskaria ta Salbea)

BOSGAÑEN EGUNA

Otoitza

Karmen'go Ama maite-maitea: Karmeldar'ak estu ta la'ri zeudela zuk zaitu zituzulako, nere etzaien mendean be'ñere ez nadi'la egon, baizik zure laguntzaz sendoturik, zure Eskapularioa lastandu dezadala. Alaxe. (Eskaria ta Salbea)

SEIGAÑEN EGUNA

Otoitza

Karmen'go Ama maite - maitea: Zure seme Karmeldar'ai Eskapularioaren bidez

eman ziñiezun maitasun-esaugarí berezia-
gatik, nik ez dezadala Eskapulario maita-
garí au utzi, ta nere estutasun eta ariskue-
tan beragana jun nadiñ egizu. Alaxe.
(Eskaria ta Salbea)

ZAZPIGAREN EGUNA

Otoitza

Karmen'go Ama maite-maitea: Inpernu-
ko etzaiak menderatzeko ta munduko zo-
ritxañak aienatzeko Eskapularioari eman
dion indañagatik, nere estutasun guzie-
tan Eskapulario ori jantzi ta lastandu de-
zadala egizu Ama on ofek. Alaxe. (Eska-
ria ta Salbea)

ZORTZIGAREN EGUNA

Otoitza

Karmen'go Ama maite - maitea: Zure
Eskapularioa jantzita ilten diranak eztirala
inpernura eroriko esan zenduelako, ni ere


zure besoetan Eskapularioa lastanduaz il
nadiġa egizu. Alaxe. (Eskaria ta Salbea)

BEDERATZIGAREN EGUNA

Otoitza

Karmen'go Ama maite-maitea: Eriotza-
ren urango larunbatean Purgatorio'tik ate-
ra ta zerura eramango dituzula zure mai-
taleak agindu zenduelako, nik ere nere
bizierako eginbearak ongi bete ditzadala
egizu, Ama on orek, eskeintz eder ori
iritxiaz zurekin batera zerura jun nadin.
Alaxe. (Eskaria ta Salbea)





KARMEN'GO ESKAPULARIOA

I

Zer ta nolakoa izan bear duen

Galdea. ¿Karmen'go Eskapularioa, zer da?

Erantzupena. Jaungoikoaren Amak zerutik ekañi zuen emaitz bikaña, Karmeldafak bere seme maiteenak bezela berezituaz, gorputz-animako lañitasun guzitan laguntza izan dezaten.

G. ¿Zenbat atal edo zati ditu?

E. Bi; ta biak oial beltz edo beltzaranazkoak, bi lokañiri josiak, izan bear dute.

G. ¿Uñe, zilar edo apaingañiren bat ezañita, edo beste margokoa izan al diteke?

E. Bai, Karmen'goa dala ezagutzen bada.

G. ¿Eta, zer itxurakoa?

E. Laukia, ta nai bada, zerbait luzea.

G. ¿Biribila izan al diteke?

E. Ez, Karmen'go Eskapularioa bezela erabiltzeko beintzat.

G. ¿Eta lokariak nolakoak izan bear dute?

E. Lokariak nolanaikoak izan ditezke, naiz katea, naiz arizkoa; baita lokafia nai danean aldatu ere egin dikete.

II

Nola eraman bear dan

G. Eskapularioa patrikan sartu edo jantziai josita eramatea, naiko al da?

E. Ez, lepotik zintzilika eraman bear da, bular sorbaldetara erortzen dala.

G. ¿Eta gorputza ikutzen dula, oso barunen eraman bear al da?

E. Zintzilika eraman ezkerro, soñeko tar-tean erabili liteke.

G. ¿Onezpendua izan bear al du?

E. Lenbizikoa bai, bañan au puskatu edo zikindu, ta bestea ipiñi nai dezunean, onezpendu bearik ez daukazu.

G. ¿Eskapularioak onezpentzen ditunak ezartzia, beafezkoa al da?

E. Aiñ beañezkoa, batek onezpendu ta bestek ipiñiko ba'lu, ez litzake ongi ezaña izango; Aita Santuaren baimen bereziren bat ez badaukate beintzat.

G. ¿Eskapulario au, beste, izeneko Eskapularioakin batera ezañi al diteke?

E. Ez, XIII'gañen Leon Aita Santuak erabaki zuen ezkeroztik, Karmen'go Eskapularioa, ez bestiakin batean, baizik bakañik ezañi bear da.

III

Karmen'go eskapularioaren ontasunak

G. ¿Karmen'go Eskapularioaren ontasunak, zein dira?

E. Ama oñek Stok'tar Simon Deunari zuzendu zizkion itzetan agertzen diranak. Ara zer esan zion. «Artu, ene seme maite-maitea, zure ordeneko Eskapularioa, zuretzat eta Karmeldar gustientzat ondasun berezia: bera jantzita daukala ilten dana, ez da galduko: bera, osasun, pake, ta betiko zorionaren ezagun-gaña da.

G. ¿Beste ontasunik eskeintzen ote digu Eskapularioak?

E. Bai, Ama Maria'ren seme berezi ta anai biurtzen gaitu, gorputz-animako estutasunetan lagundu, ta Karmeldaren irabazien gai egiñ; eta betiko zoriona ta garbitokitik lenbailen irtengo gerala, il ondorengo larunbatean beranduna, agertzen digu.

G. Eskapulario onek Ama Maria'ren seme maitenak eta bere anai egiten gaitula, ¿zer-gatik esaten da?

E. Berak ala agertu zuelako.

G. ¿Eta betiko zoriona iritxiko digula, zer-gatik?

E. Ama oñek berak itza eman zuelako, Eskapulario au jantzita ilten danak ez dituela betiko nekeak eramango: ta Jaungoikoaren Amak dauzkan eskubide aundia ta gogo ona, eziñ ukatu litezke.

G. ¿Eskapulario au daukana, pekatuan ilko ba'litz, zeruratuko ote litzake?

E. Pekatu aztunean ilten dana, eziñ zeruratatu liteke; baña Karmen'go Amak, emandako itza jan baño len, mirarien bat eginda bederik, iritxiko dizkio Eskapularioa daramani damutzeko bear dituen laguntzak; edo Eskapularioa berà kenduko lioke.

G. Ama ofen itzetan esaten al da, garbitokiko animak askatuko dituenik?

E. Ez da esaten; agindu au ordea beste aldi baten agertu zion 22'gafen Juan Aita Deunari; ta onek *Larunbateko buldaren* izenez argitaratu zuen idazkian azaltzen dira, bai agindu au, bai larunbateko ondasun berezia.

G. ¿Ontasun oek Karmeldarentzat baizik ez aldira?

E. Karmen'go Eskapularioa daramaten guztientzat dira.

G. ¿Eta ontasun oek bai al dituzte beste Eskapularioak?

E. Ez, Karmen'go Eskapularioaren ondasun berezi-bereziak dira.

G. ¿Beste ordenetako Erlijosak, Eskapulario au erabili al dezakete?

E. Bai, ta asko dira darabilkitenak.

G. ¿Eta ezaguerara iritxi ez diranai jañi al lezaioteke?

E. Bai, jañi lezaioteke; ta gauz obeagorik egin liteken ez dakit, Eskapulario au ezañita, ume-umetatik Ama Maria'ren ardurapean ipintzia baño.

G. ¿Eta Eskapulario au onezpendu ta ezañi

lezaketen apaiz guziak, al daukate bilera on-tan sartutakoai eriotz-orduan barkapen osoa emateko-eskubidea?

E. Bai, ta oñelako apaizik arkitzen ez danean, beste edozein aitorlek ere badauka.

IV

Barkapenak

G. ¿Eskapulario au jantzita, barkapen asko irabasten al dira?

E. Bai, asko irabazten dira: ta ara lenenak; *Barkapen osoak*: 1) Eskapularioa lenengo aldiz jartzen dan egunean, aitortu ta Jaun artu ezkerro. 2) Karmen'go Amaren jaian: 3) ilero elizkida egiten dan igandean joaten bada, 4) ta eriotz-orduan.

G. ¿Eta beste barkapenik bai al du?

E. Bai, XIII'garren Leon Aita Deunak emana, ta au Porziunkulakoaren erakoa da.

G. Azaldu zer dan.

E. Karmen'go Amaren lenbiziko bezperetatik asi, ta biamonean gaberdi arte, Karmeldaren edozein elizan ikustaldia egiten dezun *aldi bakoitzako*, irabazi dezakezu barkapen

osoa; ta ez zuk bakañik, ez daukanak ere bai.

G. ¿Eta irugañen Orden, edo Karmen'go bilera jafia dagon elizetan, eziñ al ditezke barkapen oek irabazi?

E. Ez, Karmeldañen eliza izan bear du.

G. ¿Eta barkapenak irabazteko, ¿zer otoitz egin bear da ikustaldietan?

E. Ez dago ezer erabakirik, Eliz ta eñidiko beañen alde egitea baizik ez dio Aita Santuak: geien oitzen dana da, Jaun aldarekoari ikustaldi bakoitzean *sei Aitagure* esatea.

V

Eginbeañak

G. Karmeldañak, barkapenak irabazteko, zer egin bear dute?

E. Eskapularioa jartzeko eskubidea daukanarengandik artu, bilerao liburuan beren izena ezafi, ta Eskapularioa lepotik beti zintzilika eraman.

G. ¿Eta larunbateko ondusun berezi ori iristeko, zer eskatzen da?

E. Bakoitzak bere bizibidean garbitasuna gordeaz, Ama Maria'ren ofizio labuñ deritzo-

na irakufi; ta irakurtzen ez badaki, Elizako barauak bete, ta asteazken-larunbatero aragirik ez jatea, egun oetako baten Egubefi egokitu ezik.

G. ¿Gurutzadako buldaren bidez ere ezin al diteke egun oetan aragirik jan?

E. Ez; ezin liteke.

G. ¿Eta pekatu al da egikizun oek bete gabe uztea?

E. Ez, pekatu ez da; bañan bete gabe utzita, ez dituzu ere Eskapularioaren aberastasunak zereganatuteko. Eginbear onek betetzeko eragozpenik izan ezkeru 7 Aitagure esatea jañi oi da.

G. ¿Eskapularioa beiñ artu ezkeru, luzaro erabili gabe, edo egin beñai erantzun ez diotak, ondasunak beñiro irabazteko, zer egin bear du?

E. Eskapulario bat berak jañi lezake; ta andik auñera zintzo erantzutea baizik ez du egin bear.

G. ¿Eta egin bear bat edo beste bete ezin duenak?

E. Karmeldar aitorle edo eskubidea daukan apaiz batengana joan dedila, ta zer egin bear duen esango dio.



PRAGA'KO JESUS AURAGANAKO ERASPENA

Praga'ko Jesus Aurak bere maitaleai egindako iru eskari ta ordezko iru eskeintzak, Karmeldar Zirilo A. agurgariak dionez auek dira:

Eskariak

- 1) Nitzaz erukitu zaitezte...
- 2) Siñausle gaiztoak autsi zizkidaten eskutxoak biurtu neri...
- 3) Zenbat eta geiago goraltzen nazuten...

Eskeintzak

- 1) Ni ere zuekaz erukituko naiz.
- 2) Pakea nik emango ditzutet.
- 3) Ainbat eta geiago Nik onezpenduko zaituztet.

Praga'ko Jesus Auraganako eraspen (debozioa) eder au ¿nun sortu zan? Praga deritzaion

eriko Karmeldarren lekaidetxean 1628'gn. urtean sortu zan jaiera zoragari ori. Ara nola: Austria'ko errege Fernando III'garrenak Praga inguruan guda gogorrez protestante gaiztoak azpiratu zituan, berezizko eran laguntzen zio-la Karmeldarren Nagusi Ufuzola'tar A. Domingo agurgariak. (1)

Laguntza aundi onen eskertasunez, Karmeldarren lekaidetxe batzuk irasi zituen errege oreak bere erreñuan. Praga'ko lekaidetxea aberastu nai izan zuen errege oreak, Karmeldar aiek ordea Jesukristo'ren antzera beartasunean bizi naiago izan zuten aberastasunean baño. Onela pozik bizi ziran Jaunak bear zutena ematen zielarik; baña poliki-poliki Jesus Aurtxoak, gero bere laguntza obeto azaltzeko edo, aldegin zien; eta onela Karmeldar aiek jatekorik ere etzutela estu ta lafi arkitzen ziran.

Polyxena aundikia.

Praga'ko Karmeldarrek nolako estutasunean arkitzen ziran jakin zuen Polyxena zeritxaion

(1) Jatorrez euskalduna zan gizon arigari ori, bere aita Markina'koa omen zan. Karmeldar guzien Nagusi zala, Erroma'ko Aita Santuak bere Ordezkari Austria'ra bialdu zuen. Laster altarean ikustea uste degu Karmeldar ospe-tsu au.

emakume aundiki batek, eta gogoz lagundu nai izan zien onela: Bere amak eskontzaren omenez emandako Jesus Auzaren irudi polit bat zeukan emakume ofek etxean; irudi au le-nago luzaroan bere asaben artean España'n ere irudi miraritsua bezela euki omen zuten.

Estutasun artan Polyxena aundikia jun zan Karmeldaren lekaidetxera, nagusiari deitu zion, eta bere eskuetan irudi miragañi ura eramanez, esan zion: «Aita, mundu ontan geien maite detan gauza ematen ditzut, Jesus Aurtxo au biotzez maitatu ta goratu ezazute, ta eztezute ezereen beañik izango».

¿Lekaide aien poza nork adirazi? Atsegiñez beterik saiatu ziran Karmeldar aiek, batezere Zirilo Aita agurgaña, Jesus Aurtxo ura goraldtu ta maitatzen, eta laster Polyxena aundikiaren itzak bete ziran: zenbat eta geiago goratzen zuten Jesus Aurtxoa, ainbat eta geiago laguntzen zien beartasun guzietan.

Eskutxoak biurtu neri.

Andik bi urtera Gustabo Adolfo zeritzaion gizon gaizto bat protestantien eñelijioa Austria'n jartzeko asmoz 18.000 gizonekin jun zan

Praga'ko eñira. Eñi ontan sartu ziranean al zuten eñitar guziak iges egin zuten, eta estutasun artan etzuten Jesus Auñaren irudia eraman. Gizon gaizto aiek eñian sartu ta arkitu zuten guzia eñe ta puzkatu zuten; ala Karmeldañen etxean ere sartu ziran, eta Jesus Aurtxoaren irudia ikusirik, artu ta baster batera bota zuten eta bere eskutxoak autsi zituzten.

Bost urtean etziran beren lekaidetxera itzuli Karmeldañak. Len aitatu degun Zirilo Aita agurgafi ta Jesus Auñaren maitale aundia, irudia bilatzen asi zan, eta, ari ta ari, azkenean autsez beterik eta eskutxoak autsita arkitu zuen.

Jesus Aurtxoa onela ikusirik, negañak eman zion; baña poztu zitzaion bere biotza Jesus Auñak onela itzegiten ziola: «Nitzaz eñukitu zaitezte, ta Ni ere zutzaz eñukituko naiz; eskutxoak neri biurtu, ta Nik pakea emongo ditzutet; zenbat eta geiago goraltzen nazuten, ainbat eta geiago lagunduko ditzutet.»

Etzan gelditu Zirilo Aita agurgafia Jesus Auñari bere eskutxoak jafi arte. Baita ere al-dare guztiz eder bat egin zion Aurtxo Miraritsuari, eta 1655'ko Uzterila'ren 16'an, Praga'

ko Gotzai jaunak onetsi zuen, eta 1656'ko Epaila'ren 19'an aintxe Jesus Aur miraritsu ori jafi zuten, gaurko egunez arkitzen dan bezela.

Praga'ko Jesus Añaganako jaiera eder au garai artan mundu guzian zabaltzen asi zala esan dezakegu, irudi miraritsu ofengana biur-tzen diranak gaitz guzien sendagaia arkitzen dutelako: atsekabetuak poztasuna, beartsuak laguntza, gaxoak osasuna ta naigabetuak itxaropen eta laguntza.

Eraspen au nola zabaldu zan.

Jesus Aurtxo ofek esker añañiak Karmel-dar lekaide ta Praga'ko eñitafai ere egiten zizkiela ikusirik, Austria'ko eñeñu guzian bereala bere ezaguera zabaldu zan, eta eliz guzietan Praga'ko Jesus Añaren irudia ikusten zan. Alemani'n Inglateña'n, Prantzi'n, Itali'n, Portugal eta Europa guzian ere au bera gertatu zan.

Eta onela aiñbeste tokitara zabaldu ba'zan ¿nola gutzaz aztuko ote zan lenbizi España'n izandako Aurtxo maitagañi ori? Ez, ezta gutzaz aztu: Praga'ko Jesus Añaren eraspen

eder-eder, eztitsu ori Barzelona'n, Madrid, Toledo, Balentzi, Zaragoza, Bilbao, Gazteiz, Donosti, Iruña ta alde Guztietan zabaldurik dago aspaldiko urtetan.

Baita ere Ameriketa'ko efi geienetan, Indieta'n, Txina'n ta beste munduko efirik urtuetan Aurtxo miraritsu au esagutua da, ta gorputz eta animako estutasun guzietan bera-gana biurtzen dira.

Bere irudi, domiña ta agurtzatxoak alde guztietara banatuta daude, ta mirari afigari ta esker ugariak egiten dituzte.

«Zenbat eta geiago goraldtu ta maitatzen nazuten, ainbat eta geiago lagunduko dizutet...» Ara emen Praga'ko Jesus Aurtxoak zer agintzen digun, eta bera Jaungoikoa izanik eztigu gezurik esan, ezta esango ere.

Gure estutasun eta beartasun guztietan guazzen Praga'ko Jesus Aurtxoagana, maitatu ta goraldtu dezagun eta berak lagunduko digu.

Praga'ko Jesus Auraren eraspenna zertarako dan.

Eraspen onen bidez Jaungoikoak bere Seme maitea aurzarako eskutapenetan goraltzea

ta bere onbide ederaí jaíaituko mundu guzia beíistutzea nai du. Oíretarako Jesus Aurtxoa-gana biotz guziak biurtu bear ditugu, aur, gazte ta sendi guziak Praga'ko Jesus Auíaren mendean jartzen ditugula.

Praga'ko Jesus Auíaren Anaidia (kofradia)

Anaidi eder onek irabazi aundiak dauzka. Naiz auíak, naiz nagusiak eta edozein urtez anaidi ontan sartu litezke. Baña ala ere bi talde egitea oso egoki da: talde bat txiki-entzat, au da jaiotzen diranetik amalau urte arte, ta beste taldea nagusigoentzat.

Barkapen eta irabazi aundiak dauzkate Anaidi ontan daudenak, eta eginbeaíak beíiz oso eíezak. Ara emen:

Egin beaíak:

- 1) Anaidian sartzean norberen izena eman.
- 2) Egunean iru aldiz «Gloria Patri» eta otoitz au esan: «Jainkozko Jesus Aurtxoa, onespendu nazazu».
- 3) Praga'ko Jesus Auíaren elizkizunetara ílero joatea, goizean Jauna artuaz.
- 4) Jesus Auíaren domíñatxoa aldian eramatea.

Barkapenak:

Efoma'ko Aita Santu Pio X'gañenak 1913'ko Azaroa'ren 27'an barkapen txit ugariak Praga'ko Jesus Auñaren bazkide guztientzat eman zituen.

Ara emen zenbat barkapen irabazi ditezken:

Barkapen osoa.

1) Anaidian sartzen dan egunean. 2) Egueñietan, Zirkunzizio, Efege egun, Jesus'en izen, Sendi deunaren egun, Ejiptora iges egitean eta Jerusalem'go elizan-arkitze-egunean; baita Ilbeltza'ren 23'an, Epaila'ren 25'an, eta Urila'ren bigafen igandean.

2) Praga'ko Jesus'en ileroko elizkizun bakoitzean.

3) Eriotza-zorian Jesus'en izen gozoa mingañez al bada, edo bestela biotzez esanda, gogo onez Jaunak ematen dion eriotza artuaz.

Oñetzaz gañera, Praga'ko Jesus'en omenez egiten dan edozer elizkizungatik irureun eguneko barkapenak, eta bere Anaidiaren alde egiten dan egikizun bakoitzagatik eun eguneko barkapenak irabazten dira.



PRADA HO JESUS AUR MATAGARIA

... ..
... ..
... ..



PRAGA'KO JESUS AUR MAITAGARÍA



PRAGA'KO JESUS AURARI BEDERATZIURENA

.....000.....

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

Eguneroko Otoitza

¡Praga'ko Jesus Aur maitagarria! Onbide guztien jarleku ta onespen guztien iturria. Biotz-biotzez maite zaitut eta egin dizkidazun esker guztiakatik eskertzen zaitut; ain eskergaiztokoa izan naizelako damudet eta ez geiago Zu naigabetzeko asmo sendo bat artzen det.

Zure aurrean auzpezturik eta Zu goratzeko asmoz, nere anima, gorputz eta izate guztia, nere gogorapen, itz, egikizun eta naitasunez batera eskeintzen dizki-

tzut. Bederatziurén au ongi egiten lagundu zaiguzu bertan eskatzen ditzuguna iritzi dezagun. Nere otoitzak aditu, ontzat artu nere eskariak, zure laguntzaz sendoturik eskatzen ditzudana iritxi, baita zure gogoia bete ere lúrean eta gero zorionekoen eriotza iritxi dezadan. Alaxe.

LENENGO EGUNA

Eskaria

Praga'ko Jesus Aur maite ta maitasunaren ispilu txit garbia, zeruko Aitaren eskuian eserita egonik, gizonaganako maitasunak mundura ekañi ta guri zerua idikitzeagatik oñaze gogoñak igaro zituzuna; maitasuna emaiguzu guri ere, Jesus ona, zure izenez naigabeak eramaten ikasi dezagun, baita lagun urkoak gure burua bezela maitatzen ere; ta azkenez, bederatziurén ontan eskatzen ditzudana iritxi zaidazu Zu goratzeko ta nere animaren onerako baldin bada. Alaxe.

Gertaketa

Prantziske Piette zeritzaion gazte batek izugafizko buruko miñak beste oñaze aundiz batera igaro zituan. Lau urte zituanetik pizkaka-pizkaka bere begien argia galtzen ari zan gaxoa, eta azkenez, ezer ikusi eziñik gelditu zan. Sendagile azkoengana jun zan, baña alpeñik, buruko oñazeak gero ta aundiagoak eta begiak ezertako ez.

Garai artan Praga'ko Jesus Añaren iduritzo bat eraman zioten eta ikusiaz batera esan zuen: «Aurtxo ofek sendatu nindeke, sendatu bear nau ta sendatuko nau». Geroztikan sendagai guztiak utzi ta zeruruntz biurtu zan; ta Praga'ko Jesus Añari bederatziurtena egiñaz batera ongi jartzen asi zan; beste lagun batzuek ere bere osasunaren alde Praga'ko Añari otoitz egin eta oñaze izugafi aiek bereala alde egin zioten biotza poztasunez beterik utzita.

Eskeintza

Egunero amabi aldiz ezatea: Praga'ko Jesus Aurtxoa, gorputz eta animaren itxutasunean daudenaz, eruki zaite.

PRAGA,KO JESUS AUÑARI ESKARIAK

1) Jaungoikozko Aurtxoa, eskatzen duten gustiak irixten badute, zure irudi miraritsuaren aurrean nik eskatzen dituzudana irixtea egizu. «Jaungoikoaren Semea gizon egin zan, eta gure artean bizi izan zan». (*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*)

2) Zeruko Aurtxoa, bilatzen dutenak arkitzen badute, nik nai detana ta zure eskutxoetan arkitzen dana iristea egizu. «Jaungoikoaren... (*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*)

3) Aurtxo ezilkoia ta deitzen dutenai atea idikitzea agindu dezuna, begira neri zure ontasunaren atean eskale, ta idiki, nai detana iritxi dezadan. «Jaungoikoaren... (*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*)

(Orain biotza goraturik iritxi nai dana Praga'ko Añari eskatzen zaio).

AZKEN - OTOITZA

(Karmeldar Zirilo Aita agurgañari zeruko Amak adierazitakoa)

Zugana nator, Jesus Aurtxoa, ta zure Ama txit garbiaren bidez lagundu zaidazula eskatzen dizut, zuk egin dezakezula egiz sinisten det-eta. Zure laguntza itxarotzen det, nere gorputz eta animaren indar guztiz maite zaitut, nere pekatu guztien damua det, eta ¡jene Jesus ona! guztiak azpiratzeko indaia eskatzen dizut. Geiago pekaturik ez egiteko asmo sendo bat artzen det, eta naizen guztia eskeintzen naiz, bidegaberik egin baño len edozer gauza igarotzera gertu naizelako; oraindantik zintsoz zurea izan nai det.

¡Jesus Aurtxoa! lagun urkoak zeroñen maitasunagatik nere burua bezela maitatuko ditut. ¡Jesus Aur guzialduna! nere otoitza aditu ezazula beñiz ere eskatzen dizut. (*Oroitu emen iritxi nai dana*). Zeruan betikotasun guztian Maria ta Jose-

rekin Zu ikusi ta zeruko aingeru ta santuekin batean gurtzea egizu. Alaxe.

BIGAREN EGUNA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

(Eguneroko otoitza lenengo egunean bezela).

Eskaria

¡Praga'ko Jesus Aurtxo txit maitea! Ain altsua izanik Belen'go txabolatxoan lastoen gañean jaio nai izan zenduen, txabola zar ura zure jaiotetxe biurtzen zalarik, onela gure arokeria azpiratu ta apalak izaten ikasi dezagun. Jainkozko Irakasle maitea, biotz beroz Erege Magoak bezela Zu gurtzeko, munduko aundikeriak aintzat ez artzeko, ta nere nekeoñaze aldietan zure maitasunez bat egiñik egoteko onbide eder ori emaidazu; baita ere bederatziurten ontan eskatzen ditzudana, Zu goraltzeko ta nere animaren onerako bada. Alaxe.

Gertaketa

Prantzi'ko Konstanzes deritzaion eriko Karmeldar lekaimen Nagusia biotzeko miñez oso gaizki jafi zan. Sendagileak ezin ezer egin eta iltzeko zorian zegon. Jaiera aundiz eliza-koak artu ta onela zazpi egun oñaze-miñez igaro zituan.

Lakaime bat Praga'ko Jesus Aurtxoaz oroitu zan eta bere iduritxo bat eman zion. ¡Gauza ikusgarria! Unean bertan ongi jartzen asi zan eta sendagilea afiturik gelditu zan ilda zegola uste zuelako, aldizka-aldizka egun gutxi bafuan sendatu zan, poztasunez Praga'ko Jesus Añari eskeñak emanaz.

Eskeintza

Jesus maitea nere bila dabilen ezkerro, nik ere aldarean bera bilatuko det, agirian arkitzen dan elizetara joanaz.

(Praga'ko Jesus Añari eskariak lendabiziko egunean bezela.)

(Azken-otoitza lenengo egunekoa).

IRUGAÑEN EGUNA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

(Eguneroko otoitza lenengo egunekoa).

Eskaria

Praga'ko Jesus maitagaña, gurasoen esanak ain ederki bete ziñituena eta zugar itxarotzen dutenen irakaslea, zuzentasun eta garbitasuna ber-bera izanik zirkunzi-zioko agintza pozik bete zenduena, zure zeruko Aitaren egiteagatik pekatarien iduria artzen zenduela.

Jesus Aurtxo maitea, Zuk bezela, nekerik aundiena igaro bear izanda ere nere guraso, nagusi ta zañagoen esanak egiten ikasi dezadan, onbide eder ori emaidazu; eta bederatziurñen ontan eskatzen dituzdana, Zu goratzeko ta nere animaren onerako bada. Alaxe.

Gertaketa

Praga'ko Jesus Auñaren Anaidian sarturik zegon aur batek begietan oñaze aundiak zeuz-

kan; sendagileak ezin sendatu zuela ikusirik, aur txiki oñek Praga'ko Jesus maite zuelako, begietan bere iduritxo bat jartzeko esan zien gurasoai, baña etzioten eman gurasoak. ¿Zer egiten du orduan aur gaxo oñek? Gurasoak etxean etzeuden tartean amonari Praga'ko Jesus'en irudia eskatzen dio, begien gañean jartzen du, ta ber-bertan guztiz sendaturik gelditzen da aur gaxoa.

Gurasoak etxera etoñi ta auña sendaturik bilatu zutenean, añiturik etzekiten nola Praga'ko Auñari eskeñak eman.

Eskeintza

Praga'ko Jesus'en omenez beartsu bati zer-edo zer ematea.

(Praga'ko Jesus'i eskariak eta Azken-otoitza lenengo egunean bezela).

LAUGAÑEN EGUNA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

(Eguneroko otoitza lenengo egunekoa).

Eskaria

Praga'ko Jesus Aur maitagaña, zure

aufean zeruak, luña ta inperua ere auz-
 pesten dira, ta efege guztien Éregea iza-
 nik, Erodes'engandik iges egin zenduen
 il nai zinduelako, onela anima iltzen duten
 pekatuen bidetatik iges egiten ikasi deza-
 gun. Zeruko irakasle maitea, Zu maita-
 tzeko gogo bizi bat emaidazu gure gogo-
 koak ez diran gauzetatik iges egin deza-
 dan baita neke-oñazerik samiñenak igaro
 bear badidut ere, ta bederatziuren ontan
 eskatzen ditzudana, Zu goratzeko ta nere
 animaren onerako bada. Alaxe.

Gertaketa

Praga'ko Jesus Añak zendatutako batek
 berari gertatua onela adirazten du: «Orain
 ogei urte dauzkat eta amar urtetik gaurdaño
 belaunean oñaze aundiak izan ditut; lau urtean
 sendagilerik onenakin ibili naiz, baña alper-
 alperik; azkenean, Praga'ko Jesus Aurtxo-
 gana jun nintzan.

Karmeldaren eleizan Praga'ko Jesus Añak
 egindako mirariak askotan aditu izan nituen
 eta onela itxaropen guztiz beragana jun nintzan.
 Nere gurasoakin batera bederatziurtena egin

nion, sendatzen ba'nintzan esker oñen beñi za-baldu ta meza bat aterako niola aginduaz. ¡Ura gauz afigaña! Agintza ori egiñaz batera aldakuntza aundia neregan ikusi nuen, eta bederatziurera bukatu nuanean sendaturik arkitu nintzan». ¡Goratua izan bedi Praga'ko Jesus Auña!

Eskeintza

Praga'ko Jesus Auñak egin dizkidan eskeñak ongi eskertzeko, janariko geien nai detan gauzaren bat bere omenez utziko det.

(Praga'ko Jesus Auñari eskariak eta Azken-otoitza, lendabiziko egunean bezela).

BOSGAREN EGUNA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

(Eguneroko otoitza lenengo egunekoa).

Eskaria

Praga'ko Jesus Aur maitagaña, aberas-tasuna izanik txit beartsu agertu ziñan eta

zeroŕek bakarik mundua deabruaren menpetik azkatu al izanda ere, zure burua Jerusalem'go eleizan diru pizkatez azkatu nai izan zenduen guri onbide eder ori irakastearen.

Zu bezela, beartsu izan naizela, Aurtxo maitea, nere biotza luŕeko aberastasun, gorapen eta gozotasun loietatik aienatu dezadan, onela Jaungoikoari egindako bigabekeriak ordaindu ditzadan, eta bederatziuren ontan eskatzen ditzudana emaidazu, Zu goraltzeko ta nere animaren onerako bada. Alaxe.

Gertaketa

Senar emazte batzuk osasun eta poztasunez bizi zirala, emaztea gaxotu zan; sendagileak ain gaizki ikusirik, etzala sendatuko esan zien. Estutasun artan senaŕak etzekien zer egin. Praga'ko Jesus Auŕagana jun eta biotz-biotzez esan zion: «Aurtxo maitea, nere emastea sendatzen ba'dezu bederatziuren bat egingo dizut.» ¡Ura bai gauza aŕigaŕia! berealaxe ongi jartzen asi zan, eta sendagileak ain

aldakuntza aundia ikusirik ańtuta gelditu zan.

Aguro gaitzak aldegin zion, eta Praga'ko Jesus Auńari eskeńak biotxez emateko bederatziuńena pozik egin zioten Donosti'ko Karmeldañen elizan.

Oraindik urte asko eztirala gertatu zan au Donosti'n.

Eskeintza

Birauen bat entzuten detanean nere bitzean esango det: ¡Bizi bedi Jesus Er-egea.

(Praga'ko Jesus Auńari Eskariak, eta Azken-otoitza, lenengo egunekoak).

SEIGAÑEN EGUNA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

(Eguneroko otoitza lenengo egunekoak).

Eskaria

¡Praga'ko Jesus Aur txit eztitsua! Zu Ejipto'ko eńeńuan sartuaz batera ango gezuńezko jainko guziak erori ta ezer

ezian gelditzen dira; nere griña gaizto ta munduko gauzakanako zaletasun gaiztoa nik ere azpiratzea emaidazu, Jesus guzieldun ořek; onela zure agintzak obeto bete ditzadan; eta azkenez, bederatziurēn ontan eskatzen ditzudana, Zu goraltzeko ta nere animaren onerako bada. Alaxe.

Gertaketa

Bilbo'ko emakume batek Praga'ko Jesus Auřaren irudi bat zeukan etxean, eta zortzi urteko aur bat oso gaizki arkitzen zan etxe artan.

Sendatzeko egiñalak alpeřik egin ziran, gero ta gaizkiago zegon gaxoa, ta beldur ziran usterik gutxienean ilko ote zan.

Baña zorionean Praga'ko Jesus Auřari otoi egiñaz bat-batean or nun aurtxoa ongi jartzen asi zan, eta egun gutxien bařuan jaiki zan guztiz sendaturik. Praga'ko Jesus Auřari eskeřak poz-pozik eman zizkioten.

Eskeintza

Bost aldiz esatea: «Onetsi ta goratua izan bedi Praga'ko Jesus Auřa».

(Praga'ko Jesus Aurrari Eskariak eta Azken-otoitza lenengo egunean bezela).

ZAZPIGAREN EGUNA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

(Eguneroko otoitza lenengo egunekoa).

Eskaria

Praga'ko Jesus Aur txit eztitsu ta pozgarri Ejipto'tik alde egin eta Nazaret'era jun ziñana, gero Jose ta Maria guztiz garbiakin zure etxean pake ta zoriontasunez bizitzeko. Ainbeste aldiz pekatu eginda galdu zaitudalako negar egitea emaidazu, Aurtxo maitea; ez utzi beñiz zugandik iges egiten, baizik zure agintzak ongi bete ta zure adizkidetasunean bizi ta il nadiña; bederatziurén ontan eskatzen ditzudana emaidazu, Zu goraltzeko ta nere animaren onerako bada. Alaxe.

Gertaketa

Bein batean aurtxo bat erorita ortz-artean

bere mingaña ebaki zuen; Praga'ko Jesus' gana jun zan bere ama naigabetua, ta Jauna artu ta meza bat aterako ziola agindu zion. Auñari aoa garbitu ta oian jafi zuen, Praga'ko Jesus Auñagan bere itxaropen guztia jañita. Gau guzia oñazez kañasika igaro zuen gaixoak; ufengo goizean Praga'ko Jesus'en elizara jun zan ama meza atera ta Jauna artzeko uztez, eskatzen ziola, añen, semetxoaz eñuki zedila.

Elizatik biurtzean jun zan auñagana, ta poz-pozez esan zion auñak:

«Ama, ez daukak ezer, Jesus Aurtxoak sendatu nau». Amak begiratzen dio mingañari ta guztiz sendaturik arkitzen du, eskeñak ematen dizkiola Praga'ko Jesus maitagañari.

Eskeintza

Praga'ko Jesus auñaren omenez eta miñiotako aur gaixoen alde meza bat atera edo entzutea.

(Praga'ko Jesus Auñari Eskariak eta Azken-otoitza lenengo egunekoak).

ZORTZIGAREN EGUNA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

(Eguneroko otoitza lenengo egunekoa).

Eskaria

Praga'ko Jesus Aur, Irakasle maitagarria, zuk, guri ongi bizitzen irakastera etorri izanik, agirian azaltzeko garaia eldu artean Nazaret'eko erian eskutaturik bizi nai izan zenduen. ¡Zeruko irakasle ona! Ixiltasuna irakasi zaidazu, ibilera gaizto ta pekaturako bidetik iges egin eta oitura gaiztoz adima loitu gabe biziera on bat egin dezadan; eta azkenez, bederatziuren ontan eskatzen ditzudana, Zu goratzeko ta nere animaren onerako bada. Alaxe.

Gertaketa

Emakume bat gaixorik arkitzen zan urte bete ta erdian: jateko gogo gabe arkitzen zan. Sendagile azkokin ibili ta gogaiturik zegon,

Praga'ko Jesus Auñagana jun eta iruñen bat egin zion, eta eleizaraño juteko gai jañi zan. Gero bederatziuñena egin eta bukatu baño len guztiz sendatu zan, batere sendagairik artu gabe.

Pozik Praga'ko Auñari eskeñak eman zizkion; bere iruditxo bat erosi zion, baita jaiera eder au alde guztietara zabaltzeko egiñalak ere egin zituen zorioneko emakume ofek.

Eskeintza

Praga'ko Jesus Auña ezaguerazteko egiñalak egitea.

(Praga'ko Jesus Auñari Eskariak eta Azken-otoitza lenengo egunekoak).

BEDERATZIGAREN EGUNA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

(Eguneroko Otoitza lenengo egunekoa).

Eskaria

Praga'ko Jesus Aur maitagañi ta jakintsu guztien irakasle ta egiaren bide zuzena, guri irakasteañen zure guraso mai-

teak utzita Jerusalem'go eleizara jun ziñana. Nere bizierari dagozkion eginbeñak ongi ikasi ta zintzoro betetzeko argi ta indaia eman zaizkidazu, onela nere anima deundu ta lagun urkoai nere itz, egikizun eta naitasunez laguntzeko; ta bederatziñen ontan eskatzen ditzudana emaidazu, Zu goratzeko ta nere animaren onerako bada. Alaxe.

Gertaketa

Koruña'ko eñian emakume bat gaixorik iru ñebeteen ezertarako etzala arkitzen zan. Beñere etzala sendatuko sendagileak esan zion.

Garai artan bere aizpak Praga'ko Jesus Auñaren irudi ta bederatziñen bat eman zion, osasuna biotzetik eskatzeko esanaz. Gaixoa poztu zan, eta bederatziñena egin zion Aurtxo maiteari; irudia oñaze zeukan tokian jañi ta bereala bere laguntza ikusi zuen, bada egun gutxi bañu osoro sendaturik gelditu zan.

Jesus Auñari eskeñak emateko bere omenez meza bat atera eta gertakizun au alde guzieta zabaldu zuen, Praga'ko Jesus'en eskubi-dea zein aundia zan adirazteko.

Eskeintza

Praga'ko Jesus Auñari letaniak biotzetik esatea.

(Praga'ko Jesus Auñari eskariak eta Azken-otoitza lenengo egunekoak).





PRAGA'KO JESUS AURARI

BEDERATZIUREN LABURĀ

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

Eguneroko otoitza

¡Protestante gaiztoak irain-atsekabetu zinduten Praga'ko Jesus Aur maitagaña! apaltasunez eta Belen'go artzaien sinismenez gurtzen zaitut. Zure Ama Aitorle ta batezere zure Praga'ko irudi oñen bidez, Bederatziuren au egiteko gertutu nazazu, añen, Aur maitagañi oñek. Alaxe.

LENENGO EGUNA

Eskaria

Auts artean aztuta bost urte inguru egon zīñan Praga'ko Jesus Aur lastana, ez nadīla Zutzaz azturik bizi; zure esker guztiai esker onez erantzun eta zeruan Zu ikustea irabazi dezadala egizu. Ta orain bederatziurēn ontan eskatzen ditzudana emaidazu. (Eskatu emen iritxi nai dana).

JESUS AURARI AGURAK

- 1) Jesus Aurtxo maitagarīa aditu zaidazu.
(*Aita gurea, Agur Maria, Gloria...*)
- 2) Aurtxo txit deuna, onespendu nazazu.
(*Aita gurea, Agur Maria...*)
- 3) Aurtxo guzīalduna, zaitu nazazu. (*Aita gurea, Agur Maria...*)

EGUNEROKO AZKEN-OTOITZA

Ni maite nazulako ta Praga'ko irudian zure maitasun aundia, esker bereziak emanaz, azaltzearen Aurtxo biurtu zīñan, nere Jaun eta Jaungoikoa; zugarako eraspen eta maitasun sutsu bat sortu dedīla nere biotzean, zure la-

guntza emen iritxiaz gero zeruan ikusi zaitzadan. Alaxe.

BIGAREN EGUNA

(Lenbiziko egunean bezela guztia egiten da, eskaria bakarik aldatuaz).

Eskaria

Praga'ko Jesus Aurtxoa, «Nitzaz efukitu zaitezte ta Ni ere zuekaz efukituko naiz», esan zenduen Zuk. Nere biotz eta naikunde guztiak zure etzaiak egiten dizkizuten irain ta esker txarrik ordaintzeko eskeintzen dizkitzut, bada, nik; nere neke-oñazeak zure antzera eraman ditzadala, gero zeruan ere zure lagun izan nadin. Eta orain bederatziufen ontan eskatzen ditzudana emaidazu, afen, Aurtxo maittea. (Eskatu emen iritxi nai dana).

(Jesus Aurari Agurak eta azken-otoitza lenengo egunekoak).

IRUGAREN EGUNA

Eskaria

Zure maitalez efukituko zinala agindu zenduen Praga'ko Jesus Aur zoragarria, nitzaz ef-

ukitu zaite; ta Zuk nai dezuna beti egin dezadan nere anima ta lagun urkoen onerako, lagundu zaidazu Aurtxo maitagari oñek. Eta bederatziurten ontan eskatzen ditzudana emaidazu, añen, Aurtxo maitea. (Eskatu emen...)

(Aguñak eta azken otoitza).

LAUGAREN EGUNA

Eskaria

Praga'ko Jesus Aur eñukitsua, «ziñausle gaiztoak autsi zizkidaten eskutxoak biurtu neri», esan zenduen zuk; besuak zabaldu itzazu gizon guztiengana ta guztion Eñege izan zaite; sinisgabeak Eliz-bañutian sartu ditezela ta pekatariak ere eñukitasunez betiko zoriona iritxi dezatela. Ta orain bederatziurten ontan eskatzen ditzudana emaidazu, añen, Aurtxo maitea. (Eskatu emen...)

(Jesus Auñari Aguña eta azken-otoitza lenengo egunekoak).

BOSGAREN EGUNA

Eskaria

Zure maitaleai pakea agindu ziñiezun, Pra-

ga'ko Jesus Aur guzialduna; efi ta efi di gustiai pakea eman, bada, gustiok bazkun bakar bat, au da, Eliz - Deun Katolikoa egin dezagun, bere Buruzagi ta Irasle Zu zeralarik. Eta orain bederatziurén ontan eskatzen ditzudana emaidazu, afen, Aurtxo ona. (Eskatu emen...)

(Aguñak eta azken - otoitza lenengo egunekoak).

SEIGAÑEN EGUNA

Eskaria

Ainbat pekatari zerurako bide zuzenean jañi dituzun Praga'ko Aur jainkozkoa, gure bizierako ibilerak zuzendu itzazu, zure agindu-bideari jañaituaz, betiko zeru edeña iritxi dezagun. Eta orain bederatziurén ontan eskatzen ditzudana emaidazu, afen, Aurtxo maitagaña. (Eskatu emen...)

(Aguñak eta azken-otoitza lenengo egunekoak).

ZAZPIGAÑEN EGUNA

Eskaria

Animako ilunpe ta estutasunetan argi ta pozgañi zeran Praga'ko Jesus Aurtxo zora-

gafia, Jaungoikoak bialtzen dizkidan gora-bere-
retan argitu ta lagundu zaidazu, Jaunaren de-
yari jafaituaz zeruko zoriona iritxi dezadan.
Eta orain bederatziufen ontan eskatzen ditzu-
dana emaidazu, afen, Aurtxo maitea. (Eskatu
emen...)

(Aguñak eta azken-otoitza lenengo egune-
kok).

ZORTZIGAREN EGUNA

Eskaria

Gaxoai ainbeste aldiz osasun eta bizia eman
dizkiezun Praga'ko Jesus Aur maitalea, era
berean gure animai ere bizia emaiezu, ta emen
gure atsegiña ta gero zeruan gure zoriona Zu
izango zerala ezaguerazi iguzu. Ta orain be-
deratziufen ontan eskatsen ditzudana emaida-
zu, afen, Aurtxo maitea. (Eskatu emen...)

(Aguñak eta azken-otoitza lenengo egune-
koak).

BEDERATZIGAREN EGUNA

Eskaria

¡Praga'ko Jesus Aur maitagafia! «Zenbat
eta geiago goraltzen nazuten ainbat eta geia-

go onespenduko zaituztet», esan zenduen Zuk. Ez nadiā, bada, otzitu zuganako maitasunean, baizik egunero ta geiago zutu itzazu nigan zuganako sinismen eta eraspēna, emen zure onespen ugariak eta zeruan betiko zoriona irixi ditzadan. Eta orain bederatziufen ontan eskatzen ditzudana emaidazu, afen, Aurtxo eukitsua. (Eskatu emen...)

(Agufak eta azken-otoitza).





PRAGA'KO JESUS AURARI IRU'ENA

Gurutze santuaren...
Jesukristo nere Jauna...

Eguneroko otoitza

¡Praga'ko Jesus Aurtxo maitagaña!
Biotz-biotzez maite zaitut eta egin dizkida-
zun esker guztiakatik eskertzen zaitut,
eta ez geiago Zu naigabetseko asmo sen-
do bat artzen det. Iru'en au ongi egiten
lagundu zaidazu bertan eskatzen ditzu-
dana iritxi dezadan. Nere otoitzak aditu,
nere eskariak ontzat artu, zure laguntzaz
sendoturik eskatzen ditzudanana iritxi, ta
zorioneko eriotza ta betiko zerua irabazi
dezadan. Alaxe.

LENENGO EGUNA

Eskaria

¡Jesus Aur miraritsua! Begira zure aur-
ean auzpezturik nola arkitzen naizen nere
itxaropen guztia zure itz ongile ta zin-
tzoan jañirik. Ni naizen eta daukadan
guztia zurea da ta guztia Zuri eskeintzen
ditzut, onela deundurik gelditu dedin.
¡Jainkozko Aurtxoa, nitzaz erukitu zaitte!
Ez det Zuk begiratzerik ere irabazi, baña
zure biotz ongileak alaitzen nau, ta zure
eskeintz pozgañietan itxaropen guztia
jañirik, nere naikunde guztiak betetzea
uste det.

Onetarako Zu maitatu, pekatuak gofo-
tatu ta beñiz egiteko bidetatik iges egiteko
gogo sendo bat artzen det biotz-biotzez,
onela zure ikasbide onai jañaitu ta zure
naitasunak bete ditzadan eta ez nedin
zugandik beñere aienatu; eta iruñen ontan
eskatzen ditzudana iritxi dezadan, Zu go-
raltzeko ta nere animaren onerako bada.

Alaxe. (Orain iritxi nai dana eskatzen zaio Praga'ko Jesus Auñari)

(Eskariak eta azken-otoitza 144'gn. ofialdean).

BIGAREN EGUNA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

(Eguneroko-otoitza lenengo egunekoa).

Eskaria

¡Praga'ko Aurtxo maitagarria! Nere Azkatzale, nere biotz eta gauza guztien jabea. Nere animagatik zure biotz, odol eta izate guztia zeruko Aitari eman ba'dizkiozu ¿nere etsai galgari ta griña gaiztoak azpiratzeko bear detan laguntza ukatuko al didazu? Ez, Aurtxo maite-maitea, ez; nere itxaropen guztia Zugan daukat, eta gaurdanik zure egiazko maitale izatea gaintzen ditzut, onela zure deyai zintzoro jaraitu, eguneroko egikizunak obeto egin eta nere bizierako onbideak ikasi ditzadan, baita zuganako eraspen eder eta ez-

titsu au alde guztietara zabaldu dezadan ere.

Nere naikunde auek ontzat artu, Jesus maitea, ta iruñen ontan eskatzen dituzdana iritxi zadazu, Zu goratzeko ta nere animaren onerako baldin bada. Alaxe. (Orain iritxi nai dezuna eskatu)

(Eskariak eta Azken-otoitza 144'gn. ofialdean).

IRUGAREN EGUNA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

(Eguneroko Otoitza lenengo egunekoa).

Eskaria

¡Praga'ko Jesus Aurtxo maitea! Zeru ta luñeko Erege ezilkoña! ¡Zein berandu ezagutu zaitudan eta zure aurtzaroko eskutapen afigaíriak ezagutzeko zein zabartsua izan naizen! Gaurdanik Zu obeto ezagutu ta biotzeko eraspenez goraltzen saiatuko naiz.

Ez egin nik nai detana, Zuk nai dozuna

baizik; neregan eta nere gauza guztietan zure naimena egin bedi, onela zure jainkozko irakasgaiari jaraitu dezayedan; baita ere irufen ontan eskatzen ditzudana iritxi dezadan, Zu goraltzeko ta nere animaren onerako baldin bada. Alaxe. (Orain iritxi nai dezuna eskatu)

(Eskariak eta Azken-otoitza 144'gn. orialdean).





Praga'ko Jesus Aurtxoari

Ileroko Elizkizuna

Gurutze santuaren...
Jesukristo nere Jauna...

Eskaria

Zerutik luferatu ta nigatik Aurtxo biurtu zīnan Jaun eta Jaungoikoa, zure zeruko edertasuna ikusirik, zure oñetara aurtzaroko eskutapen eztitsuak gogoratzera poz-pozik nator, gure naigabeak eřaxago eraman ditzagun eta Zugan itxaropen aundiagoa jaři dezagun aurtxo baten antzean

agertu zeralako. ¡Aurtxo maitagaña! nere animaren onerako izan dedila egitaldi aut; ta zuk, Andre Mari, nere Ama ez titsu oñek, zure Semea goraltzen lagundu zaidazu, egunen baten arpegiz-arpegi zurekin batera zeru ederean ikusi dezadan. Alaxe.

PRAGA'KO JESUS AURARI AGURTZATXOA (EROSARIOA)

1) Irubatasun gurgaña, jaungoikozko Jesus Aurtxoaren biotzeko gurketa guztiak eskeintzen dizkitzut. «Jaungoikoaren Semea gizon egin zan; eta gure artean bizi izan zan». (*Aita gurea... Agur Maria ta Gloria*).

2) Irubatasun txit deuna, Andre Maria Jaungoikoaren Ama egin zanean bere biotzean egin zituzun eskutapen añañaak eskeintzen dizkitzut. «Jaungoikoaren Semea...» (*Aita gurea...*)

3) Irubatasun maitagaña, Jesus eta

Maria'ren izenez Jose Deunari eman ziñiz-
kion emaitz bereziakatik eskeñak ematen
dizkitzut.

(«Jaungoikoaren Semea...» Agur Maria...)

I.—Jaungoikoaren Semea gizon egitea

Jaungoikozko Aurtxoa, Andre Maria'
ren eñai garbietan gizon egin ziñan unean
gurtzen zaitut.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

II.—Isabel Deunari ikustaldea

Zeruko Aurtxoa, Isabel Deuna ikusi ta
Joan Deuna Maria'en sabel garbian done-
tu zenduen unean, gurtzen zaitut.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

III.—Jesus'en jaiotza

Aurtxo txit Deuna, aingeruen artean
Belen'go txabolatxoan jaiotzean, gurtzen
zaitut.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

IV.—Artzaien gurtza

Aurtxo txit eztitsu zero lu'eko Éregea, lastotxoan gañean etzanik abereen artean, gurtzen zaitut.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

V.—Bilebaikundea

Aurtzo txit garbia, pekatarien antza bilebaikundean artu zenduenean, gurtzen zaitut; gure animako loikerak kentzen lagundu zaiguzu.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

VI.—Iru Érege Mago'en gurtza

Aurtxo gurgaria, zure oñetan Érege Magoa'kin auzpezten naiz. gure biotzen Érege bakaña beti izan zaite.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

VII.—Jerusalen'go elizan sañera

Aurtxo txit maitea, Aita Jaungoikoari

zeroŕekin batera eskeñi gaitzazu, ta zure maitale txit zintzoak egin gaitzazu.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

VIII.—Ejipto'ra igeska

Guzialduna izanagatik Erodes gaiztoagandik iges egin zenduen zeruko Aurtxoa, guk ere pekatuagandik iges egin dezagula eriotzagandik baño lenago.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

IX.—Jesus'en egotaldia Ejipto'n

Gezuŕezko jainkoak gurtzen ziran Ejipto'ko eŕeñuan egon ziñan Aurtxo maitaŕaia, ainbeste anima Jaungoikoagandik uŕutiratzen dituen eŕelijioaren epeltasunetik aldendu gaitzazu.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

X.—Ejipto'tik Nazaret'era itzulaldia

Aurtxo txit indartsu, Ejipto'ren antzeko mundu galduaren aŕiskoetatik uŕutiratu gaitzazu, ta zure Nazaret'era itzultzeak

gure eñian, au da, zeru edeñian sartzea iritxi dezagula.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

XI.—Nazaret'eko bizitz estalia

Aurtxo maitagaría, ixiltasun eta bakar-tasuna eman zaizkiguzu, ta gure atsegin guztiak Jaungoikoa, Zu, Andre Mari ta Jose Deuna izan ditezela.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

XII.—Jesus Aurtxoa galdu ta Jerusalem'go elizan arkitzea

Jaungoikoaren jakituri guztiz apaindu-ta arkitzen zeran Aurtxo jakintsua, Zu maitatzen irakasi zaiguzu, nai dezun eran gure biotzetan bizi zaitezzen; zure naime-na azaldu ta bera ongi betetzeko lagun-tza emaiguzu, gure Irakaslea zera-ta.

(«Jaungoikoaren...» Agur Maria...)

Oremus


Deus qui Unigenitum Filium tuum constituisti humani generis Salvatorem, et Je-

sum vocari jussisti: concede propitius, ut
cujus sanctum nomen veneramur in terris,
ejus quoque aspectu perfruamur in cælis.
Per eundem Dominum...





PRAGA'KO JESUS AUÑA
GAIKOEN OSASUNA



PRAGA'KO JESUS AURARI ETXERIK-ETXE

IĪEROKO OTOITZ-ALDIA

(Toki askotan Praga'ko Jesus Auṛa geiago goratzeko ta beraganako maitasuna alde guztietara zabaltzeko asmoz, *etxerik-etxe* erabiltzen dute bere Irudia, era onetara: ogeitamar etxe edo sendi, au da, iĪak dauzkan egunak bezela, biltzen dira, egun bana izentatuaz Praga'ko Jesus'en Irudia bere etxean egun ortan eukitzeko. Ara emen Praga'ko Jesus Auṛa etxera datorkizutenean, etxe bakoitzean zer egin bear dezuten Jesus Auṛaren alde.

- 1) Irudi ori ogeitalau orduan etxe bakoitzean egongo da, au da, iĪunabaṛetik iĪunabaṛera, ta garai artan uṛengo etxera eramango dute Azken-otoitza esanaz.

- 2) Jesus Aurtxoaren aurrean argi bat piztuta euki bear da egun guztian.
- 3) Egun ortan aitortu ta Jaunartzera saiatuko dira etxeko guztiak, Jesus'en gauzarik gogokoena auxe da-ta.
- 4) Praga'ko Jesus Aua etxera datořenean aera ona egingo diote ta etxeko tokirik garbi ta egokienean jařiko dute bere Iru-dia, ta belaunikaturik otoitz - aldi auek egingo dizkiote:)

PRAGA'KO JESUS AU'RARI A'ERA ONA EGITEKO ERA

Gurutze Santuaren...

Otoitza

ZERU ta luřeko Jaun eta Eřegea, gure etxe ontara Zu etortzean guziok zure bila gatoz, eta anziņa Jerusalem'go eřian sartzean esan zizuten bezela, guk ere orain biotzez eta itzez ditzugu: «Dabid'en Semeari Hosanna, Jaunaren izenean datořena bedeinkatua izan bedi».

Etxe ontan guztia zurea da, ta bataiatu ginduten ezkeroz zure mendean bizi gera ta beti bizi nai degu.

Praga'ko Jesus Aurtxoa, zure eskutxoa zeruko eskeñez bete-beterik daukazu guganontz zabaltzeko. Zure begi eder oiek gugana biurtzen dituzu gure gaiztakeri guztiak parkatzeko. Gure Irakaslea zera, ta zerurako bidea guri irakastera zatoz.

Aurtxo maitea, zure irakasketak ikasi ta betetzeko egiñalak egingo ditugu, gure gogorik aundiena zure naimena egitea da-ta. Mila esker, Jauna, gure etxera etoñi zeralako. Zuganako maitasuna piztu ta geitu ezazu gure biotzetan; maite zaitzatela orain artean maite etzaituztenak ere; pekatuan daudenak bide onean sartu ditezela; sendatu ditezela gure gaixoak; gure egikizunak ongi dijoazela; ta batera esateko, antziñako Zakeo zeritzaion gizonaren etxera jun ziñanean, «gaur Jaunak etxe onetara osasuna ekañi du», esan zenduen bezela, gaur gure etxera ere pa-

ke, atsegin eta betiko zoriona ekañi itzazu.
Alaxe. (*Iru Aita gure ta Agur Maria...*)

(Ufengo egunean, etxeko bizilagun guztiak
Praga'ko Jesus Aurtxoaren aurfean bildurik,
otoitz-aldi au egingo diote:)

PRAGA'KO JESUS AUÑARI ESKEINTZA

Gurutze Santuaren...

PRAGA'KO Jesus maitagaña, Zugana ga-
toz etxe onetako bizilagun guztiok
gure biotzak Zuri beñiz eskeintzera. Gu-
tzaz erukitu ta gure Erege izan nai dezu-
lako mila esker, baita ere gure etxe au
zure etxetzat aukeratu dezulako. Zure
biotza gizonen eskergabetasunez naiga-
beturik daukazunean gure etxera atsedeen
artzera etoñi, Aurtxo maitea.

Nazaret'eko etxean bezela emen ere
zure Ama guztiz garbia, Karmen'go Es-
kapulario edeña eman zigun gure Ama go-

zoa, biotz-biotzez maite degu. Zure Aitordeko Jose Deuna ere maite degu guziok. Gure Irakaslea Zu zera, Zu bakarik zerurako bide zuzena. Ez aldegin gugandik, Aurtxo maitea, beti etxe ontan bizi zaite.

Okerkerien bat izan ba'degu Zugandik aldegin degulako izan da noski; gure oñaz-atsekabe aldietan gurekin egon ba'ziña, gogo onean eta posez igaroko genituen aldi samin oiek.

Gurekin bizi zaite, bada, Aurtxo maitea, etzai gaiztoz inguraturik gaude-ta. Gure egikizun guztiak bedeinkatu itzazu. Eguneroko ogia emaguzu. Bai, etxe ontan bizi zaite, Aurtxo zoragaña, zure mendean bizi nai degu; gure Érege izan zaite. ¡Praga'ko Jesus Auña beti goratu ta maitatua izan bedi etxe ontan! Alaxe.

(Orain Praga'ko Jesus Auñaren *Agurtzatxo*a esaten da, 174'gn. oñaldean arkitzen dan bezela). (Gero azkenean Jesus Auñaren Letañiak esango dira onela).

LITANIÆ

Sanctissimi Nominis Jesu

Kyrie eleison.

Christe eleison.

Kyrie eleison.

Jesu, audi nos.

Jesu, exaudi nos.

Pater de cœlis Deus,

Fili Redemptor mundi Deus,

Spiritus Sancte Deus,

Sancta Trinitas unus Deus,

Jesu, Fili Dei vivi,

Jesu, splendor Patris,

Jesu, candor lucis æternæ,

Jesu, rex gloriæ,

Jesu, sol justitiæ,

Jesu, Fili Mariæ Virginis,

Jesu, amabilis,

Jesu, admirabilis,

Jesu, Deus fortis,

Jesu, pater futuri sæculi,

Jesu, magni consilii angele,

MISERERE NOBIS

Jesu, patientissime,
Jesu, potentissime,
Jesu, obedientissime,
Jesu, mitis et humilis corde,
Jesu, amator castitatis,
Jesu, amator noster,
Jesu, Deus pacis,
Jesu, auctor vitæ,
Jesu, exemplar virtutum,
Jesu, zelator animarum,
Jesu, Deus noster,
Jesu, refugium nostrum,
Jesu, pater pauperum,
Jesu, thesaure fidelium,
Jesu, bone pastor,
Jesu, lux vera,
Jesu, sapientia æterna,
Jesu, bonitas infinita,
Jesu, via et vita nostra,
Jesu, gaudium Angelorum,
Jesu, rex Patriarcharum,
Jesu, magister Apostolorum,
Jesu, doctor Evangelistarum,
Jesu, fortitudo Martyrum,

MISERERE NOBIS

Jesu, lumen Confessorum,
 Jesu, puritas Virginum,
 Jesu, corona Sanctorum omnium,
 Propitius esto, parce nobis, Jesu,
 Propitius esto, exaudi nos, Jesu.
 Ab omni malo,
 Ab omni peccato,
 Ab ira tua,
 Ab insidiis diaboli,
 A spiritu fornicationis,
 A morte perpetua,
 A neglectu inspirationum tuarum,
 Per mysterium sanctæ incarnationis tuæ,
 Per nativitatem tuam,
 Per infantiam tuam,
 Per divinissimam vitam tuam,
 Per langores tuos,
 Per agoniam et passionem tuam,
 Per crucem et derelictionem tuam,
 Per langores tuos,
 Per mortem et sepulturam tuam,
 Per resurrectionem tuam,
 Per ascensionem tuam,

Miserere nobis

LIBERA NOS, JESU

Per gaudia tua, *Libera nos, Jesu.*

Per gloriam tuam, *Libera nos, Jesu.*

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis, Jesu.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi nos, Jesu.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, misere nobis, Jesu.

Jesu, audi nos.

Jesu, exaudi nos.

Oremus

Domine Jesu Christe, qui dixisti: Petite, et accipietis; quærite, et invenietis; pulsate, et aperietur vobis: quæsumus, da nobis petentibus divinissimi tui amoris affectum, ut te toto corde, ore et opere diligamus, et a tua nunquam laude cessemus.

Sancti Nominis tui, Domine; timorem pariter et amorem fac nos habere perpetuum; quia numquam tua gubernatione destituis, quos in soliditate tuæ dilectionis instituis: Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. R) Amen.



Praga'ko Jesus Aurtxoari



norberen eskeintza

PRAGA'KO Jesus Aurtxo txit maitagaña!
Jaungoikoa izanik Aurtxo biurtu ziran, eta aur guztien maitalerik aundiena ta zintzoena Zu zera. Zure oñetan auzpezturik bete-betean eskeintzen naiz eta naizen eta daukadana eskeintzen dizkitzut, guzia zurea da-ta. Zeruko aingeru ta santuak maitatzen zaituzten maitazunez maitatu nai zaitut, eta era berean biotz guztiak Zu maitatu ta goraltzea nai nuke. Zure erukitasuna bear-beañoa det, Aurtxo maitea; ainbeste añisku ta etzaiz

inguraturik nagolako lagundu zaidazu; eskutxoak goraturik bedeinkatzeko eran daukazu-ta, nere sentzumen guztiak, nere biotz, anima ta izate guztia onespendu zaizkidazu.

Pekatu ta pekaturako bidetik iges egin eta zure biziera ta onbideai jaraitzeko gogo sendo bat artzen det, onela beti ta era guztietara zurea izatea iritxi dezadan: zurea bizitzan, zurea eriotzan eta zurea zeruan ere, zure edertasun zoragaría Maria ta Josekin betikotasunean ikusi dezagun. Alaxe.

(Praga'ko Jesus Auñari Kredo bana).





GURUTZ - BIDEA ⁽¹⁾

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

Eskeintza

NERE Jesus gozo laztana, daukadazun maitetasunagatik, gurutze astuna sorbalda gañean arturik, ainbeste bide neketsuetan ibili zerana! Kalbarioko zure oñaze-miñak gaur emen gogoraturik, nere esker ona lendabizi erakutsi nai dizut, ta Gure Eliza Amak eskeñitako barkapen ugariak irabazi ere bai. Garbitokiko anima erukañientzat, eta batezere, Zuk gogokoak dituzun eta geien zor' dizuten ani-

(1) Gurutz-bide au ta beste otoitzaldi batsuk «Argi Donea»tik artuak dira.

ma aientzat. ¡Lagundu zaidazu, Jauna, bi asmo eder oiek ongi betetzen!

(Toki batetik bestera zuazela esan:

Sancta Mater istud agas.

Crucifixi fige plagas.

Cordi meo valide.

Jesus'ek gurutzean.

Artutako zauriak

Ama, josi nerean.

LENENGO EGONALDIA



Gure Jesus Maitea iltzea erabakitzen
dute.

*Adoramus te
Christe, et benedi-
cimus tibi.*

*Quia per sanc-
tam crucem tuam,
redemisti mundum.*

*Agurtzen zaitu-
gu Jesus ta bede-
katzen zaitugu, zu-
re gurutze santuz,
gizona beferosi de-
zulako.*

NERE Jesus maitea ixil-ixilik zaude, ju-
duar lotsagabe ta Pilatos'en aurrean, Zu gi-
zonik zuzenena izan aŕen, agintari zital

oñek, bidegabeko epai gogoña zure kaltez ematera dijoanean...

Añen eskatzen dizut, Jauna, emaidazula nere afozeria menderatzeko indaña, erbeste-ko naigabeak pozik eramanez, iritxi dezadan nozbait zeruko zorion edeña. Alaxe.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza (Gloria).

Esan gero:

*Miserere nostri,
Domine.*

Miserere nostri.

Et fidelium animæ per misericordiam Dei requiescant in pace.

Amen.

*Gutzaz eruki
zaitez, Jauna.*

Gutzaz eruki,

ildakoen animak, Jainkoaren erukiaz atsedean pakea bezate.

Alaxe.

Batetik bestera aldatzean esan gorago bezela: *Sancta Mater... edo Gure Jesus maitearen Nekaldi eriotza, ta bere Amaren atsekabeak, be-
deinkatuak eta goretziak izan bitez. Alaxe.*

BIGAREN EGONALDIA



Gure Jesus maiteak gurutzea
artzen du.

Adoramus...

ZERU luñaren Egile ta Jauna: judaí bi-
urien menpean jañi zera, ainbat neke go-
goñak aien eskuetatik artu ta gero guru-
tze astuna sorbalda gañean eramateko...

Emaidazu Jauna: neronek ere gurutzea
laztantzea, au da: atsekabe-miñ eta ezbeaí
guziak, biotz onez artu ta eramatea,
gero zeru ederean ikusi zaitzadan. Alaxe.

(*Aita Gurea...* ta ondoren jañi diran otoitzak,
lenengo egonaldian bezela, beste guzietan esan
oi dira).

IRUGAREN EGONALDIA



Gure Jesus maitearen lenengo
erori aldia.

Adoramus...

NERE Jesus laztana! Luñean etzana ikusten zaitut, gurutzepean, guztiz auldu ta nekatua. ¿Gurutze aztunak, bota ote zaitu ba luñera, zeru-luñak indartzen dituzun Jaun Altsu ori...? ez: nere oben (pekatu) lañi ta bidegabekeri aundiak dira; orain ezagutzen det bakoitzaren gaiztakeria.

Emaidazu Jauna oiek biotzez gofotatzea. Alaxe.

LAUGAREN EGONALDIA



Gure Jesus maiteak Kalbarioko bidean
bere Ama ikusten du.

Adoramus...

ANDRE Maria, ama erukañiena, bai dala
aundia oraingo zure oñazea, Jesus zure
Seme laztana ikusiaz txistuz zikindua,
zauriz josia, danok iseka-paña egiten dio-
tela! Barkatu Ama; nere bidegabeak jañi
dute zure Semea giza ontan, bañon orain
aitortzen ditut, auferakoan bestea izango
naiz.

Emaidazu, Ama laztana, biotz - damu
egi-egizkoa. Alaxe.

BOSGAËN EGONALDIA



Gure Jesus maiteari gurutzia eramateko laguna ematen diote.

Adoramus...

NERE Jesus txit maitea! Laguna artu dezugu gurutzea eramateko, ez laguntza bea-rian arkitzen zeralako, gu oso aldakoak, txit aulak eta pekatariak izanik, gure in-
da' utsez ezer ez genezakela erakustea-
gatik baizik.

Emaiguzu, Jaun maitea, guztioi ain bearezko zaigun zure laguntza. Alaze.

SEIGAREN EGONALDIA



Beronika'k Jesus maiteari arpegia
garbitzen dio.

Adoramus...

ZERUKO izar argiak, eta eguzki dizdiratsua bañon ede'agoa zerana, Jesus nere Jauna! ¿nork zure arpegi ede'ra, txistuz loitu du...? Neronek pekatariak, nere gaiztakeri ta cbenaz (pekatuaz), bañon damutasunezko zapi ede'raz zure izerdi-loiak orain kendu nai dizkizut.

Ezañi Jauna, nere biotzean Zure izerdi ede'ra, eta ez naiz au'ererakoan Zugandik aldenduko. Alaxe.

ZAZPIGAREN EGONALDIA



Jesus maitea bigaren aldiz
erortzen da.

Adoramus...

JESUS'EK bigaren aldiz luña jotzen du, kristaua: ¿zergatik ote, ezpada, adierazi nai digulako: asmo sendo-beñiak maiz artu aŕen, beñiz eroriko gerala bere laguntza ez badegu eskatzen? Zoritxaŕez alaxen da: amaika aldiz gure biotza eman diogu, ta beste ainbestetan beñiz ukatu degu, Pedrok bezela; bere laguntza gabe, ezer ez genezake.

Emaiguzu Jauna, gure asmo onak in-
dartuko dituen zure laguntza. Alaxe.



[Faint, mirrored text bleed-through from the reverse side of the page, including words like 'Adoramus', 'sumamus', and 'dignetur']

ZORTZIGAREN EGONALDIA



Gure Jesus maiteak Jerusalem'go emakumeai itz-egiten die.

Adoramus...

NEGAREZ ikusten ditu Jesus'ek Jerusalem-go alabak, Bera gurutziltzatzera darama-telako, ta erukiz beterik, beren buruaz negar egiteko esaten die, beren buruaz eta beren semeaz...

Gure baruan daukagu pekatariok zertaz negar egin: gure obenak (pekatuak), gure gaiztakeri ta bidegabeak; ora beti negartu bear deguna, oiek erakariko di-

gute-ta betiko galera, azkengabeko zori-
txaía.

¡Piztu Jauna, gure biotzetan, damuta-
sunezko su-gaía, ta pekatuaganako goí-
oto bizia. Alaxe.



Gure Jesus maitiak Jerusalem go
emakumei ita egiten die.

Adoramus...

Negaraz kristen ditu Jesus'ek Jerusalem-
go alabak, Bera gurutxitzaiera datama-
telako, ta erukiz betetik, beren buruz
negar egiteko esaten die, beren buruz
eta beren semeaz...

Gure buruan daukagu pekatariok zer-
ta negar egiti: gure ohenak (pekatariak),
gure gaiztakeri ta bidegabesak; eta beti
negaratu behi gogun, oiek erretxarriko di-

BEDERATZIGAREN EGONALDIA



Gure Jesus maitea bigarren aldiz
erortzen da.

Adoramus...

ARIGARIZKO ikusgarria! Zeru-luraren Egile aundia irugarenez lurera erortzen da. ¿Naikoa ez ote zan, ba, bein eta bitan Berak lurra jotzea...? Ez: bearezko zan beñero, irugarren aldiz erortzea, guztiok ikasi genezan «gurutzea azkeneraño eraman bea degula»: au da, beti izango ditugula neke-lanak, oñaze-miñak, ezbea eta naigabeak, bañon biotz-onez oiek eraman bea ditugula.

¡Emaiguzu, Jaun Maitea, gurutzea beti eramateko kementasuna! Alaxe.



Gure Jesus maitea bidean aurrera
erortzen da.

Adoratu...

Arriak hiru jorretan... Ez: beretik zara
betiko, iragaten auzia erortzen, gaurko
ikasi geroztan «gutuzen azkenetako era-
man berri degula»: su da, beti izango di-
tugula meke-lanak, oñaze-milak, expert
eta nagabekak, bañon pizt-oren eiek
eraman berri ditugula.

AMARGAREN EGONALDIA



Gure Jesus maiteari soñekoak
kentzen dizkate.

Adoramus...

BEGIRA zazu, kristaua, Jesus zure Jauna, aingeru lirañak bañon askoz garbiagoa dana, ortxe bilotsik, bere etsaien aurrean... ¡au lotsa, ta zenbateko naigabe-miña artuko zuen, ain lotsagañiro bere burua ikusirikan, ainbeste laguneren artean!

Ora nola ordaindu nai izan dituen zure lasaikeri ta loikeriak, zure zabarkeri ta lizunkeri guziak.

¡Emaiguzu, Jauna, biotz-garbitasun aundia! Alaxe.

AMAIKAGAREN EGONALDIA



Gure Jesus maitea gurutzean
josten dute.

Adoramus...

NERE Jesus erukitsu maitea: gurutzean ezartzen dituzu zure esku oñak ta ikaragarizko oñaze-miñekin, gurutzean josten zaituzte boñero biotz-gogor oiek... Bañon ¿zer diot boñeroak? ni naiz, Jesus maitea, boñero aundiena, amaika aldiz neronek josi zaitut-eta or gurutzean, pekatu egin dedan bakoitzean.

¡Eruki zaitetz nitzaz gaur, Jauna, ta barkatu nere bidegabekeri guztiak! Alaxe.

AMABIGAREN EGONALDIA



Gure Jesus maitea gurutzean
iltzen da.

Adoramus...

IKARATU zaitez, kristaua, Jesus gurutzean zintzilik begiratzen dezula, ikusgaririk aundiena zure begiak orain ikusten dute ta:

Gizon zuzenena gaizkile - lapuren artean, bildotz otsanena otso amoratuen erdian, Jaungoikoren Semea, ta bera bezela Jaungoikoa, bere etsaien eskuetan, gurutzean josia, odola dariola, oña zure pekatuen ordaña.

AMAIRUGAREN EGONALDIA



Gure Jesus maitearen gorputza bere
Amaren besoetan jartzen dute.

Adoramus...

SAMINTASUNEZKO Ama naigabetsua! ¿nork zure oñazeak neurtu, Jesus zure Seme laztana, besoetan ila ikusten dezula? Ama erukitsu maitea: zure naigabearen añaiko biotz-damua nai nuke, nere pekatuak goñotatzeko: oiek erail dute-ta zure Seme laztana!

¡lritxi zadazu, esker edo grazi berezi au: biotzez eskatzen dizut! Alaxe.

AMALAUĞAREN EGONALDIA



Gure Jesus maitearen gorputza
obiratzen dute.

Adoramus...

BEGIRA zazu azkenean, kristaua, Jesus'en gorputz ila jañi duten obia; obi beña da, arkaitzean zulatua, ta añi lodi batek ixten du bere sañera; zure biotzak ere, obi beña beañ du izan, Jesus ez izatera beste iñor gordeko ez duena; sañerako añiak erakusten digu, ardura aundiaz zaitu bear degula, Jesus'en etsaiak, bertan sartu ez ditezen, berak egin dizkizun esker-doaiak lapurtzera.

¡Andre Maria! nere Ama, emaidazu zu-
re Seme ta nere Erosle maiteaganako,
maitetasun sutsua! Alaxe.

JESUKRISTO'REN BOST ZAU- RIAI AGURAK

Eskeřeko oņeko zauriari:

Biotzez gurtzen zaitut, nere Jesus'en zauri eder ori, ta beragatik eskatzen dizut, nere ibilera gaiztoz egindako pekatu guztien barkapena. (*Aita gurea, Agur Maria, Gloria*).

Eskuiko oņeko zauriari:

Biotzez gurtzen zaitut nere Jesus'en zauri eder ori, ta beragatik eskatzen dizut, nere itz ta egintza gaiztozko pekatuak barkatzeko. (*Aita gurea, Agur Maria, Gloria*).

Ezkeřeko eskuko zauriari:

Biotzez gurtzen zaitut, nere Jesus'en zauri eder ori, ta beragatik eskatzen dizut, nere begi ta beste zentzunez egindako pekatuak barkatzeko. (*Aita gurea...*)

Eskuiko eskuko zauriari:

Biotzez gurtzen zaitut, nere Jesus'en zauri eder ori, ta beragatik eskatzen dizut, nere oroimen, adimen, ta naimenaz (borondatez) egindako pekatuak barkatzeko. (*Aita gurea...*)

Saietseko zauriari:

Biotzez gurtzen zaitut, nere Jesus'en zauri eder ori, ta beragatik eskatzen dizut Jauna: zure Biotza aztamakil gogoñak eta zure Amarena ezpata zoñotzak josi zuen bezela, zure maitetasunak nere anima josi dezala. (*Aita gurea...*)

(Beste *Aita gure*, *Agur Maria* ta *Gloria*, *Aita Santuaren alde*).



JESUS'EN BIOTZARI IX OSTIRALAK

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

Jesus'en Biotzari Otoitza

Agur, maite zaitudan Jesus'en Biotza. Zu zera, aitzen etzeran eta bizia ematen duen ura dakargun iturria. Jaungoikotasunaren ondasunak Zuk dituzu. Zu zera Jaungoikoak digun maitasuna berotzen duen sutegia: ta nere gaztelu ta atsedentzeko tokia, Zu izango zera. Urtu zazu, Jesus, zurea urtzen duen suaz nere biotza. Bete zazu, zureari dariozkan esker eta ondasunez nere biotza, emen eta beti,

Zuk nai dezuna besterik maite ez dezadan. Alaxe.

Ostiral guzietarako Otoitza

¡Jesus txit eztitsua! zure Biotzaren neurigañezko maitetasun eta erukiak, zure adizkidetasunean ilko dirala agindu die, lenengo bederatzi ostiral jañaitutan Jaunartuko duten guztiei: añen, eskatzen dizut, Jauna, nitzaz erukitu zaitez, eta zure agindu ori gogoratuaz emaidazu, nere pekatu guztiak goñotaturik, zure maitetasunean iltzea.

1) ¡Jesus'en Biotz erukioñra, zeruko ate zabala, nitzaz erukitu! (*Aita gurea...*)

2) ¡Jesus'en Biotz erukioñra, aberastasunez betea, nitzaz erukitu! (*Aita gurea...*)

3) ¡Jesus'en Biotz erukioñra, Zugan iltan diranen itxaropena, nitzaz erukitu. (*Aita gurea...*)

4) ¡Jesus'en Biotz erukioñra, gure bizitz

eta pizkundea, nitzaz erukitu! (*Aita gurea...*)

5) ¡Jesus'en Biotz erukiofa, atsegin-poz guztien iturburua, nitzaz erukitu! (*Aita gurea...*)

JESUS'EN BIOTZARI ESKEINTZA

¡Gure Jesus maitea, gizonen Eroslea! zure oñetan gaudenoi erukiz begiratu. Zureak gera, ta zureak izan nai degu, ta zureak beti izan gaitezen guretako bakoitza gaur zure Biotzari eskeintzen da.

Azko dira, Jauna, iñoiz ezagutu ez zaituztenak; beste askok beñiz zure aginduak ukatu, ta baztertu zaituzte; bataz eta besteaz eruki zaitez, Jauna, eta bildu itzazu guztiok zure Biotzean.

Guztion Jaun eta jabe izan zaitez, ez bakañik iñoiz zugandik aldendu ez diranena, baita zugandik urun joan diran seme banakatzaleena ere, eta gose-bea- ez il ez ditezen, biurtu lenbailen etxera.

Izan zaitez orobat, gezurak edo ase-

eak banatu dituenen Egegea; egiaren kaira ekarzkizu, guziak sinismen batekoak izanik, artegi bat eta artzai bat besterik, auferakoan izan ez gaitez.

Azkenean, Jauna, sinisgabeko ilunpetan oraindik bizi diran guztien Egege izan zaitez, ilunpetatik argira, ta Jaungoikoaren eieiñura lenbailen biurtzen dituzula.

Emaiozu, Jauna, zure Eleizari azkatasun eta pakea, eidiari zoriona; lurbira mutur batetik bestera ots egin dezaten guztiok: «Aintza, osasuna eman digun Jesus'en Biotzari, aintza ta gorapena Berari, gizaldi ta gizaldietan». Alaxe.

Jesus'en Biotzaren Arentza (Letaña)

Kyrie, eleison

Kyrie, eleison

Christe, eleison

Christe, eleison

Kyrie, eleison

Kyrie, eleison

Jauna, gutzaz eukitu,

Jauna, gutzaz eukitu,

Jesukristo, gutzaz eukitu

Jesukristo, gutzaz eukitu

Jauna, gutzaz eukitu

Jauna, gutzaz eukitu

Christe, audi nos

Christe, exaudi nos

Pater de cœlis Deus.
miserere nobis

Fili Redemptor mundi
Deus,

Spiritus Sancte Deus

Sancta Trinitas unus
Deus

1) Cor Jesu Filii Pa-
tris æterni

2) Cor Jesu, in sinu
Virginis Matris á
Spiritu Santo for-
matum

3) Cor Jesu Verbo
Dei substantialiter
unitum

4) Cor Jesu, majestatis
infinಿತæ

5) Cor Jesu, templum
Dei sanctum

MISERERE NOBIS

Jesukristo, entzun za-
guzu

Jesukristo, aditu za-
guzu

Zeruko Aita Jaungoi-
koa, *gutiaz erukitu*

Jaungoikoaren Semea

Espiritu Santu Jaun-
goikoa

Irutasun Deuna, Jaun-
goiko bakarra

1) Jesusen Biotza,
Betiko Aitaren
Semearena

2) Jesusen biotza,
Ama Birjiñiaren
Sabelean Espiri-
tu Santuak'egiña

3) Jesusen Biotza,
Jaungoikoaren Se-
mearekin bat egiña

4) Jesusen Biotza, aun-
ditasun neurigabe-
koa

5) Jesusen Biotza,
Jaungoikoaren eliz
donea

GUTZAZ ERUKITU

6) Cor Jesu, tabernaculum Altissimi

7) Cor Jesu, domus Dei et porta cœli

8) Cor Jesu, fornax ardens caritatis

9) Cor Jesu, justitiæ et amoris receptaculum

10) Cor Jesu, bonitate et amore plenum.

11) Cor Jesu, virtutum omnium abyssus

12) Cor Jesu, omni laude dignissimum

13) Cor Jesu, rex et centrum omnium cordium

14) Cor Jesu, in quo sunt omnes thesauri sapientiæ et scientiæ

MISERERE NORIS

6) Jesusen Biotza, Jainko altsuaren egon tokia

7) Jesusen Biotza, Jainkoaren jauregia ta zeruko atea

8) Jesusen Biotza, maitetasunezko labe goritua

9) Jesusen Biotza, zuzentasun eta maitetasuna biltzen diran tokia

10) Jesusen Biotza, ongina ta maitetasunez betea

11) Jesusen Biotza, onbide (birtute) guzien iturburua

12) Jesusen Biotza, guztiz goragaña

13) Jesusen Biotza, biotz guztien ezege ta biltokia

14) Jesusen Biotza, jakinduri ta jakintza guzien aberastasunak biltzen dituzuna

GUTZAZ ERUKITU

- | | | | |
|---|-----------------------|--|-----------------------|
| <p>15) Cor Jesu, in quo habitat omnis plenitudo divinitatis</p> <p>16) Cor Jesu, in quo Pater sibi bene complacuit</p> <p>17) Cor Jesu, de cuius plenitudine omnes nos accepimus</p> <p>18) Cor Jesu, desiderium collium æternorum</p> <p>19) Cor Jesu, patiens et multæ misericordiæ</p> <p>20) Cor Jesu, dives in omnes qui invocant Te</p> <p>21) Cor Jesu, fons vitæ et sanctitatis</p> <p>22) Cor Jesu, propitiatio pro peccatis nostris</p> <p>23) Cor Jesu, saturatum opprobriis</p> <p>24) Cor Jesu, attritum</p> | <p>MISERERE NOBIS</p> | <p>15) Jesusen Biotza, Jaungoikoa bere betetasunean bizi dan tokia</p> <p>16) Jesusen Biotza, Aitaren atsegiña</p> <p>17) Jesusen Biotza, ugaria, guztioi mese-deak egin dizkiguzuna</p> <p>18) Jesusen Biotza, muño betikoen guraria</p> <p>19) Jesusen Biotza, eramankorã ta eñuki aundikoa</p> <p>20) Jesusen Biotza, eskatzen dizutenentzako aberatsa</p> <p>21) Jesusen Biotza, bizitza ta santutasunezko iturria</p> <p>22) Jesusen Biotza, gure obenak (pekatuak) ordaindu dituzuna</p> <p>23) Jesusen Biotza, iraiñez ase-betea</p> <p>24) Jesusen Biotza,</p> | <p>GUTZAZ ERUKITU</p> |
|---|-----------------------|--|-----------------------|

propter scelera nostra.

25) Cor Jesu, usque ad mortem obediens factum

26) Cor Jesu, lancea perforatum

27) Cor Jesu, fons totius consolationis

28) Cor Jesu, vita et resurrectio nostra

29) Cor Jesu, pax et reconciliatio nostra

30) Cor Jesu, victima peccatorum

31) Cor Jesu, salus in te sperantium

32) Cor Jesu, spes in te morientium,

33) Cor Jesu, deliciae sanctorum omnium, Agnus Dei, qui tollis

gure gaiztakeriak-gatik apurtua

25) Jesusen Biotza, eriotzaraño menderatua

26) Jesusen Biotza, aztamakilak zulatua

27) Jesusen Biotza, atsegin-poz guztien iturburua

28) Jesusen Biotza, gure bizitz eta pizkundera

29) Jesusen Biotza, gure pake ta adiskidetasuna

30) Jesusen Biotza, pekatarien oparia

31) Jesusen Biotza, Zugan itxadoten dutenen gaizkapena

32) Jesusen Biotza, Zugan ilten diranen itxaropena

33) Jesusen Biotza, santu guztien atsegiña Gizonen pekatuak ken-

MISERERE NOBIS

GUTZAZ ERKUKITU

peccata mundi, parce nobis Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, exaudi nos Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi miserere nobis.

ŷ. Jesu mitis et humilis corde,

℞. Fac cor nostrum secundum Cor tuum.

Oremus

OMNIPOTENS sempiternus Deus, respice in Cor dilectissimi Filii tui et in laudes et satisfactiones, quas in nomine peccatorum tibi persolvit, iisque misericor-

tzen dituzun, Jainkoaren Bildotxa, parka zaiguzu Jauna.

Gizonen pekatuak kentzen dituzun Jainkoaren Bildotxa, entzun zaguzu Jauna. Gizonen pekatuak kentzen dituzun Jainkoaren Bildotxa, gutzaz erukitu.

A.) Jesus apala ta biotz berakoa,

E.) Egizu gure biotza, zure Biotzaren antzekoa.

Otoitza

JAINKO guzialdun eta betikoa! zure Seme txit maitearen Biotzari begirata, ta Berak pekatarien alde itzultako gorapen ta ordain sariak, auen

diam tuam petentibus, tu veniam concede placatus, in nomine eiusdem Filii tui Jesu Christi qui tecum vivit et regnat in unitate Spiritus Sancti Deus, per omnia sæcula sæculorum. Amen.

bidez otzandua (gozatua), zure erukia eskatzen duten guztioi parkamena emaiezu, gizaldi ta gizaldietan Zurekin ta Espiritu Santuar-ekin batean, bizi dan eta agintzen duen Jesukristo zure Seme txit maitearen izenean.

Alaxe.

JESUS'EN BIOTZAREN XII ESKEINTZAK

- 1.^a Beren bizibidean bear dituzten laguntasun guztiak, Nik emango dizkiet.
- 2.^a Beren sendi edo familietan, pakea zabalduko det.
- 3.^a Atsekabe guztietan, Nik alaituko ditut.
- 4.^a Bizitzan eta batezere eriotz-aldian, beren igesleku ta estalpea, Ni izango naiz.
- 5.^a Beren egikizun guztietan bedeinkatu ta lagunduko ditut.

6.^a Erukizko itxaso-baztergabea, pekatariak nere Biotzean arkituko dute.

7.^a Kristau epelak berotuko ditut.

8.^a Beroak, nere maitetasunean irazekiko ditut.

9.^a Apaizai, biotz gogoñenak biguntzeko doaia emango diet.

10.^a Nere Biotz - irudia agirian jarriko duten etxeak bedeinkatuko ditut.

11.^a Nere biotzaganako maitetasuna zabalduko duten guztien izenak nere Biotzean ezarita gordeko ditut.

12.^a Ilaren lenengo bederatzi ostiraletan jarraiturik, jaunartuko duten guztiei, neurri gañezko nere Biotzaren erukiak ezkeintzen diet: ez dirala nere aseñean ilko, ezta ere elizakoak artu gabe.



ALDAREKO GURE JAUNARI IKUSTALDIA

Gurutze santuaren...

Otoitza

AGURTU dezagun luñeko eliza guzietan ain azturik, ain txarki arturik eta ain gutxitan ikertu edo bixitaturik dagon Jesus sakramentatua.

Gure maitetasunez gau ta egun, bene-benetan ostia deun órétan egon añen, ain azturik zauzkatela ikusirik, Jesus'en biotz guztiz maitagañi ori, nai ziñuket ikertu sakramentaturik zauden luñeko eliza guz-

tietan, eskeiñi zuri oparitzat gizon guztien biotzak, eta batu nere alegin ezerezak anima beroak luñian eta zorionekoak zeruan, egiten dizkitzuten agurka ta eskeintzekin. Oraintxe ezagutzen det zure neurigabeko eramankizun edo pazientzia: damututa nago mila bider nik ere zu Jesus'en Biotz erukior ori aztu ta irainduta eukitzea. Emaidazu laguntza gaurtik auñera garitsu, zintzo, ta aspertu gabe zu maitatzeko. Argitu, Jauna, nere adimena, gartu nere naimena, garbitu nere biotza, ta emaguzu neri ta gizon guztiei benetako oneraspena Jainkozko sakramentu au itzalik aundienaz agurtzeko, berau dalako laguntza guztien gordaleku ta iturria. Onelaxe itxaroten det zure ontasun eta erukitasun amaigabekotik zeruan betiraun guztian zu goratu ta aundiesteko.

Eta zuk, Andria, Jaungoikoaren eta nere Ama maite oñek, zure Biotz guztiz gozoaren garbitasun eta santutasunagatik, iritxi, añen, zure seme maite Jesus'en Biotzaganako oneraspen benetako ta ir-

aunkoía, berarekin estu·estu baturik bete ditzadan, bear bezela, nere egin-beaíak, eta biotzeko poz eta gozotasunaz beti (baño batez ere il onetan) bere Biotz guztiz bigun eíukioíaren aginduak egin ditzadan. Alaxe.

Ikustaldea

JESUKRISTO nere Jaun maitea, gizona maite dezulako, gau ta egun bakar-bakaí-ik aldarean gordeta zaudena, noiz etoíiko geran zai! Agurtzen zaitut, eta siñisten det, emen aldarean zaudela, bizi-bizirik, egi-egiaz. Lendabizi gurtu nai zaitut, Jaungoiko aundia, zure aitzinean auzpez jaíirik, nere ezereza ezagutzen dedala. Eskeíak damazkizut gañera, gaurdaño egin dizkidazun mesede guzi-guziaz, eta auíerakoan egingo dizkidazunaz, baño batezere emen aldarean nigatik gelditu zeralako, zure oñetara deitu nazulako, Andre Maria, zure Ama berbera, Amatzat eman nazulako.

Bai, agurtzen zaitut Jaun maitea, zure biotz gurgaria orobat agurtzen dei, eta gauñ zure auñera natoñela, iru asmo bete nai ditut:

Lenengoa: Bidezko eskerak, esker ugariak eman nai dizkizut gure artean, gure aldamenean, gurekin batean gelditu zeralako.

Uñen: Emen zure etxe-ontan eta batezere mai-aldareko sakramentuan, iñoiz egin zaizkizun irain guzi-guziak ordaindu nai ditut.

Eta azkenean: Zutzaz aztuta bizi diran gizon oro-guzien (eta batezere nere aide ta lagunenen) tokia bete, aien orde, aien izenean esker-aguñak Zuri emanaz.

¡Nere Jaun laztan maitea! biotz-biotzez maite zaitut; naigabe aundia daukat, ainbestetan zure biotza mindu dedalako, ta asmo sendo beñia artzen dei, ez auñerakoan iñoiz obenik (pekaturik) egiteko; nere gogo ta biotza, nere oroimen ta bo-

rondatea (naimena), ni naizen eta al dedan guzia, Zureak dituzu. Bakar bakarik zure maitetasuna gorde nai det, eta il arteraño zure maitetasunean irautea eskatzen dizut. Eruki zaitez, Jauna, Garbitokiko anima gizagaixoaz, eruki zaitez pekatariatz: aientzat eta oien alde eskeintzen dizkizut, Aita Jaungoikoa, nere irabazi apurak, zure Semearen irabazi neurigabekoekin batean: artzazu, Jaungoiko aundia, nere oparia, ta ordañez emaidazu Zuganako maitetasun aundi sutsua. Alaxe.

Gogozko Jaunartzea

NERE Jesus laztan-maitea! Ziur ziur sinisten det, Mai-aldareko Sakramentu gurgari ontan, ogiaren antz - irudipean, gordeta zaudela: agurtzen zaitut nere Jaungoikoa, maite ta gogo zaitut; bañon orain nere barenean ezin artu zaitudan ezkerro, atoz gogoz beintzat nere biotzera; bertan bazeunde bezela laztantzen zaitut, Jauna, eta zurekin bat egin nai det beti;

¡Iñoiz ez al naiz geigo Zugandik alden-
duko!

(Orain 6 Aita gure ta Agur Maria esan).

Andre Maria'ri

ANDRE Maria nere Ama maite, guztiz gar-
bia: Zugana nator orain, Jaungoi-
koaren Ama zeralako, gure eřegiña ta pe-
katari eřukařien itxaropen eta iges-lekua.
Zure oñetara nator, ni pekatari aundia,
nere esker ona Zuri erakustera, oraindaño
egin dizkidazun, eta auřerakoan egingo
dizkidazun, ainbat eta ainbat mesedegatik.
Maite zaitut, Ama laztana, eta zure Seme
ona izan nai det beti, bai beti; zure babe-
sean artu nazazu ba, Ama eřukitsu mai-
tea; eskatu nere alde Jesus zure Semeari,
beraganako maitetasuna egunean-egun-
ean nere biotzean ugaritu dedin, gero be-
tiraunde osoan, zeru goi-edeřean ikusi
dezadan. Alaxe.

(3 Agur Maria esan).



JOSE DEUNARI ZAZPI IGANDEAK

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

Otoitza

JOSE txit zoriontsua! Maria'ren senar deun, Jesukristo'ren aita ordeko arduratsu, Elizaren zaindari eta zure maitasunean bizi diranen benetako laguntzalea; zure aurrean belaunikaturik eta apalki eskatzen ditzugu zure onbide ariagarri ta onoimen goragarriak gogoratu, ezagutu ta alegiñez guganatu ditzagun Jaungoikoa-gandik laguntza iritxi zaiguzula, onela gure anima apaindurik, bizitza on batean iraun eta eriotza on bat izan dezagun.

Gure animaren beartasunak nolakoak diran, nolako eragozpenak loturik daukaten zerurako bidean, nolako etzai gaiztoak inguratzen duten, nolako griña gaiztoak azpiratu nai duten eta, agian, nolako obenak Jaungoikoagandik alderagiten dioten, ongi dakizu, Jose maitagarri ořek. ¿Laguntzaren bila norengana joango ote gera zugana ezik?

Jaunak bere Seme bakar eta maitea zure saipean jaři zuen, baita ondasuntegi aundiak ere zure eskuetan utzi ditu. Zure bitartekotasun altsuaz lagundu zaiguzu, bada, Jose deuna; gure eskariak entzun eta zure besartean daukazu Seme Jaungoikozko ořegandik bear degun guzia iritxi zaiguzu, batezere zazpi igande ontan eskatzen ditzuguna Zu goraltzeko ta gure animaren onerako bada. Alaxe.

Jose Deunaren Zazpi atsekabe-atsegiñak

Lenengo atsekabe-atsegiña:

Jose Deunak, bere Emaztea aurdun

ikusirikan, ixilik kendu nai du: jau naigabea!

Bañon aingeruak adierazten dio, Espiritu Santuaren indañez, Jaungoikoaren Semea bere éraietan sortuko duela: jau poz aundia!

Atsekabe-atsegin onen bidez emaidazu, Jose Deuna, biotz-garbitasuna.

(Aita gurea, Agur Maria, Aintza).

Bigarren atsekabe-atsegiña:

Beartsuen antzera, Belengo estalpe saréan, Jesus jayo da: jau atsekabea!

Laixter ordea, zeruko aingeruak, artzaita éregeak agurtzen dute: jau atsegiña!

Atsekabe-atsegiñ onen bidez, emaidazu Jose Deuna, luéko ondasunak ezetsitzea:

(Aita gurea, Agur Maria, Aintza).

Irugarren atsekabe-atsegiña:

Jesus Auñak jayo ta zortzigarren egunéan, lenengoz ixurtzen du odola: jau samintasuna!

Bañon aingeruak Jose'ri adierazten dio, bere Seme o'ek, Jesus izen edera arturik, gizonak gaizkatuko dituela: jau alaitasuna!

Atsekabe-atsegiñ onen bidez emaidazu, Jose Deuna, Jesus'en izen gozoa ezpañetan beti erabiltzea.

(Aita gurea, Agur Maria, Aintza).

Laugarren atsekabe-atsegiña:

Simeon igarle zarak, Jesus'en Nekaldi-Eriotz gogora iragartzen du: jau onaze miña!

Bañon baitaere adierazten dio, bere eramankizunaz gizonai zerua iriki ondoren, il obitik berpizturik aterako dala: jau atsegiñ aundia!

Atsekabe-atsegiñ onen bidez, egizu Jose Deuna, zerua iritxi dezadala.

(Aita gurea, Agur Maria, Aintza).

Bosgarren atsekabe-atsegiña:

Jaungoikoaren aginduz, Jose Deuna be-

re Emazte ta Semearekin, Egipto'ra igeska dijoa: jau lañialdia!

Iges egiñaz ordea, Herodes'en asefeari itzul egiten diola gogoraturik: jau poz aundia, Jose Deunak artutakoa!

Atsekabe-atsegiñ onen bidez, emaidazu Jose Deuna, pekatuari iges beti egitea.

(Aita gurea, Agur Maria, Aintza).

Seigaren atsekabe-atsegiña:

Nazaret'era beriz joateko, aingeruak agintzen dionean, Jose beldur da, Herodes'en seme biuria ango eregea dala ba-daki-ta.

Bañon bere belduia ayenatzen da, ez ikaratzeko aingeruak esaten dionean.

Atsekabe-atsegiñ onen bidez, egizu Jose Deuna, Jesus ta Maria'ren eskuetan eriotz-zorian nere anima jañi dezadala.

(Aita gurea, Agur Maria, Aintza).

Zazpigaren atsekabe-atsegiña:

Jose Deunak, Jesus Aua galtzen du: jau zoritxaña!

Irugañen egunean ordea, Eliz-Nagusian jakintsu artean arkitzen du: jau zoriona berea!

Atsekabe-atsegiñ onen bidez, egizu Jose Deuna, iñoiz pekatu lañiaz Jesus galdu ez dezadala.

(Aita gurea, Agur Maria, Aintza).

(Orain iritxi nai dana, Jose Deuna'ri eskatu bezaio umilki).

Azken=otoitza

IANDRE Maria'ren Senar txit garbi, nere zaitzale zeran Jose deuna! Zuri laguntza eskatu ta iritxi gabe gelditu danik iñoiz eztala ikusi, oroitu zaite. Uste ortan, bada, zugana nator, eta sinismen biziz zure mendeko egiten naiz, Jesus'en Aitordea; nere eskaria entzun gabe ez dezazula utzi, baizikan ontzat artu zaidazu. Alaxe.

v. Bere etxearen Jauna egin zun.

r. Ta bere ogasun guzien nagusia.

Otoitza

Jaungoiko Altsua, arduratasun aundiaz
Jose Doatsua, zure Amaren Senaía izate-
ko aukeratu dezuna: emaiguzu, bitarteko-
tzat zeruan izatea, zaindaritzat emen beian
daukaguna. Gizaldi ta gizaldietan bizi ze-
ran eta agintzen dezun Jauna. Alaxe.



JOSE DEUNARI BEDERATZIURENA

Gurutze santuaren...
Jesukristo nere Jauna...

Eguneroko Otoitza

JOSE txit zoriontsua! Maria'ren senar deun, Jesukristo'ren aita ordeko arduratsu, Elizaren zaindari eta zure maitasunean bizi diranen benetako laguntzalea; zure aurrean belaunikaturik eta apalki eskatzen ditzugu zure onbide ariagai ta onoimen goragaiak gogoratu, ezagutu ta alegiñez guganatu ditzagun Jaungoikoa-gandik laguntza iritxi zaiguzula, onela gure anima apaindurik, bizitza on batean iraun eta eriotza on bat izan dezagun.

Gure animaren beartasunak nolakoak diran, nolako eragozpenak loturik daukaten zerurako bidean, nolako etzai gaiztoak inguratzen dituzten, nolako griña gaiztoak azpiratu nai duten eta, agian, nolako obenak Jaungoikoagandik alderagiten dioten, ongi dakizu, Jose maitagarí oírek. ¿Laguntzaren bila norengana joango ote gera zugana ezik?

Jaunak bere Seme bakar eta maitea zure zaipean jaí zuen, baita ondasundegi aundiak ere zure eskuetan utzi ditu. Zure bitartekotasun altsuaz lagundu zaiguzu, bada, Jose deuna; gure eskariak entsun eta zure besartean daukazu Seme Jaungoikozko oíregandik bear degun guzia iritxi zaiguzu, batezere bederatziurén ontan eskatzen ditzuguna Zu goraltzeko ta gure animaren onerako bada. Alaxe.

LENENGO EGUNA

Eskaria

¡Jose Aitalen zoriontsua! Auferantzian ospatu ta goretsi nai zaitugu ez itz utsez, zure

gogoko diran egintzaz baizik; eta zure bizitzako egintza guziak ain goragafiak diran ezkerro, gaurdanik gure egikizun guziak zureen antzekoak izan ditezela egizu.

Gure asmo ta erabaki au oso-osoan eta azken artean betetzeko bear degun laguntza Jaunagandik iritxi zaiguzu, Jose deuna. Alaxe.

(Orain iritxi nai dana eskatu apalki Jose deunari).

(Iru Aita gure ta Agur Maria).

Eguneroko Azken-otoitza

¡ANDRE Maria'ren Senar txit garbi, nere zaitzale zeran Jose deuna! Zuri laguntza eskatu ta iritxi gabe gelditu danik iñoiz eztala ikusi, oroitu zaite. Uste ortan, bada, zugana nator, eta sinismen biziz zure mendeko egiten naiz, Jesus'en Aitordea; nere eskaria entzun gabe ez dezazula utzi, baizikan ontzat artu zaidazu. Alaxe.

BIGAREN EGUNA

Otoitza

¡Zure sinismen biziz Jaungoikoa beti

gogoan euki ta Berari bakarik begiratuta gauza guziak ain ongi ta zuzen egin zituzun Jose maitagaia! gure sinismena zein epela dan eta beraz gure egikizunak zein otz eta ilak diran zuk dakizu; onbide eder ori geitu ta sendotu zazu gure biotzetan, beraz argituta Jauna begien aurrean erabili dezagun eta beraz indartuta gauza guziak zure antzera egin eta, azkenez, betiko zoriona iritxi dezagun. Alaxe.

(Orain eskatu iritxi nai dana, ta *Iru Aita gure ta Agur Maria* esan).

IRUGAREN EGUNA

Otoitza

¡Jaunaren aurrean ain aundia ta zure iritzi inor baño txikiago izan zinan Jose zoriontsua! gure eredu ta jarraibide izan zaitez, gure iritzi, naikunde ta egikisun guztietan apal-apalak izan gaitezen, eta onela izanik emen lurrean, gero an goian Jaungoikoak apalai eskitako saria iritxi dezagun. Alaxe.

(Orain eskatu apalki iritxi nai dana ta *Iru Aita gure ta Agur Maria* esan).

LAUGAREN EGUNA

Otoitza

¡Jose zorientso, menpetasunaren eredu eder eta osoena! gure animen ilunpea goiko argiz argitu zaiguzu, menpetasunaren irabazi aundiak ezagutu ditzagun, baita Jaunaren aginduak eta bere ordezkari diran gure nagusienak ere zintzoro bete ditzagun, onela Jaungoikoak esane-kuai eskiñirik daukan saria iritxi dezagun zeruan. Alaxe.

(Orain eskatu iritxi nai dana ta *Iru Aita gure ta Agur Maria* esan).

BOSGAREN EGUNA

Otoitza

¡Eramanpenaren eredu berdingabe Jose zorientsoa! lagun zaiguzu goialde ortatik zure antzera gure atsekabe ta zoritxar guziak beti gogoz, pozik eta Jaungoikoa-

ren izenean eraman ditzagun, gure indar utzez ezin dezakegu-ta, zure laguntzaz beriz ongi baño obeki eramango ditugulako. Amen.

(Orain eskatu iritxi nai dana ta *Iru Aita gure ta Agur Maria* esan).

SEIGAREN EGUNA

Otoitza

¡Jose zorientso langileen eredu bizi-biziatan beren zaindari arduratsua! gaurko langilez erukitu zaitez, gezurko zuzentzaile ta adizkideak bide oker eta oporketa gaiztoz beren galdumendira eraman naituzte-ta; beren adimenak argitu, erbeste ontako beren zorientasuna lanean eta zintzotasunean dagola ezagutu dezaten; ta, azkenez, zure antzera biotza gora jasota lan egin dezaten gogoz, pozik eta atsegiñez, langile zintzoai eskeñitako saria gero iritxi dezaten. Alaxe.

(Orain eskatu iritxi nai dana ta *Iru Aita gure ta Agur Maria* esan).

ZAZPIGAÑEN EGUNA

Otoitza

¡Zure bizitzan gaztediari ain onbide eder eta goralgañiak eman zĩñiozun Jose zoriontsua! añizku, zitzaldi ta galbide guztietatik gorde itzatzu, etzai galgañiok menperatu ta mundu gaiztoak bere lakiriotan añapatu ez ditzan; eta Jaunaren bide zuzenean ibilirik emen luñean, gero betiko zoriona iritxi dezaten. Alaxe.

(Orain eskatu iritxi nai dana ta *Iru Aita gure ta Agur Maria* esan).

ZORTZIGAÑEN EGUNA

Otoitza

¡Jose zoriontsu eskondu ta sendi guzien izpilu argia! Zure onbide edeñai ez jañaitzeañen sendi asko oker eta galdurik daude maitasun eta leialtasunik gabe; seme-alaba asko ardi galduen antzera dabiltz gurasoak ajolagabeak diralako. Berakaz erukitu zaite eta lagundu zaiezu, elkañen maitasun eta leialtasun zintzora

biurtu ditezen, eta senar-emazte on eta guraso arduratsuak izanik, betiko zoriona iritxi dezaten. Alaxe.

(Orain eskatu iritxi na idana ta *Iru Aita gure ta Agur Maria* esan).

BEDERATZIGAREN EGUNA

Otoitza

¡Jose gizonik zoriontsuena! aingeru-bizitza erbeste ontan egiñik, eriotzarik dontsu, alai ta pozgarriena euki zenduena, Jesus eta Maria'ren besoetan azken-arnasa eman zenduena; aŕen, ordu laŕi artan gutzaz erukitu, deabruak bere ziltzaldi gogorez aspiratu ez gaitzan; aldi artan gure biotzeko kezka paketu ta gure atsekabeak gozatu, gure gorputzeko oñazeak arindu ta eramanpen sendoa eman gure animai, Jesus eta Maria'ren izen gozoak aoran ditugula zure besoetan atsedan dezagun. Alaxe.

(Orain eskatu iritxi nai dana ta *Iru Aita gure ta Agur Maria* esan).

Urila'n, agurtza ondoren esateko

JOSE DEUNARI OTOITZA

GURE lañi aldian zugana gatoz, Jose Santua, ta zure Emazte txit deunaren laguntasuna eskatu ondoren, zure bitartekotasuna, uste osoz eskatzen dizugu. Erugabeko Jaungoikoaren Ama Maria'ri zenion onginaiz, ta Jesus Auñaz laztandu zenduen maitetasun xamuñagatik, apalkiro eskatzen dizugu: Jesukristo'k bere odolaz irabazitako sendi edo famili au, erukiz begiratzeko, ta, zure eskubide ta laguntzaz, lagundu gaitzazula gure beařetan.

Sendi Deunaren (Famili Santuaren) zaitzale txit arduratzua! zaitu Jesukristo'ren jatorri autatua, ayenatu gugandik utsegite ta gaiztakerizko orban (kutsu) guziak: igure azkatzale txit indartsua! zerutik begi onez begiratu ta lagundu gaitzazu, suleizeko (inpernuko) etsaiarekin darabil-

gun buruka ontan, eta len Jesus Auía erio-
tzako zoritik atera zenduen bezela, zaitu
orain ere Jaungoikoaren Eliz Deuna, etsa-
ien ekiñaldi ta zoritxar guztietatik, eta gu
bakoitza zure zaipean babestu gaitzazu,
zure laguntasunaz indarturik, zure antzera
santutasunean bizi gaitezen, eriotz ona
egiñ, eta betiko zoriona zeruan iritxi de-
zagun. Alaxe.



AMA TERESA DEUNARI BEDERATZIURENA

Gurutze santuaren...
Jesukristo nere Jauna...

Eguneroko Otoitza

¡AMA txit zoriontsu Jesus'en Teresa Deuna! Jesukristo'ren alaba maite ta Jaungoikoaren Amak guztiz maitatua; anima ta goputzeko orban gabeko aingeru garbi Karmeldaren Lagundia beriztatu zenduna, Zure oñetara nator bederatzi-uren ontan laguntza eske.

Zure onbide indartsu bati jañaitu banion nere bizitza guzian ongi egingo nuen, Jaunaren aurrean nere bitarteko izan zadin zorionekoen eriotza iristeko. Baña, nere

eskariak zuk entzutea merezi ezpadet ere, zure irabazi goratuakaitik Jaunaren erukia iritxiko detala uste det. Bederatziuren ontan eskatzen ditzudana ontzat artu ezazula eskatzen dizut, bada, Jauna goraltzeko, zure omen eta nere animaren onerako bada. Amen.

LENENGO EGUNA

Otoitza

¡Nere Jesus maitagari ta Teresa Deunaren maitale aundia! Ama onek, zuk emandako sinismen argiz eskutapen guziak ikusirik bezela sinistu zituen; eta sinismen bizi au bere animaren argi dizdiratsua izan zan. Augatik, Eliz-Amak erakusten dizkigun eskutapen guziak sinisteko sinismen bizia neri ere emaidazu, Jauna; baita bederatziuren ontan eskatzen ditzudana, Zu goraltzeko ta nere onerako bada. Alaxe.

(Iru Aita gure ta Agur Maria, ta ondoren eskaria).

Eguneroko Azken = otoitza

¡Teresa Ama garbi ta goratua! Zugana laguntza eske joan dana, nai duena iritxi gabe utzi dezunik eztala entzun oroitu zaite. Uste oñen indañez ni ere zure biotz garbi ta gartsura natorkizu, Jesus, Maria ta Jose'ren biotzen ondoren maitatsuena ta edereña dalako. Ta Jesukristo'ren maitasun gartsuz beti kiskaldurik zendun biotz oregatik eta aingeruak espata zoñotzez bertan egin zizun zauriagatik, nere eskariak aditu zaizkidazula eskatzen dizut.

¡Teresa Deun maitea! nere eskariak gogoz eta maitakiro aditu ta Jesukristo zure Jaungoiko maitearen añera eraman itzazu, bere gogoko ta nere animaren onerako izan ditezen. Amen.

BIGAREN EGUNA

Otoitza

¡Jesus maitagafi Teresa deunaren maitale aundia! Ama maite oñi itxaropen ain sendoa eman ziñiolako eginkizunik afiga-

ienak egin zitun, batezere lekaimetxe asko, dirugabe ta eragozpenez inguraturik arkituañen, Jaunagan itxaropen guzia jañirik zeukalako, egin zituen.

Teresa Deunaren itxaropen aundiagatik neri ere egiazko itxaropena emaidazu, Jauna, iñoren belduñik gabe nere egikizunak bete ditzadan, baita bederatziuñen ontan eskatzen ditzudana ere iritxi dezan, Jauna goraltzeko ta nere onerako bada. Alaxe.

(Iru Aita gure ta eskaria).

IRUGAÑEN EGUNA

Otoitza

Jesus maitagañi ta Teresa Deunaren maitale aundia! Teresa Deunari maitasun ain sutsua eman ziñiolako, goi-aingeru baten eran, zure maitasunean suturik bizi izan zan beti, ta, azkenez ere, Aingeru batek suzko espataz biotza idikita, zure maitasunez il zan.

Jesus maitea, Teresa Deunaren maita-

sun oregatik Jaunaganako egiazko maitasuna neri ere emaidazu, beti maite zaitzadan eta bederatziuren ontan eskatzen ditzudana, Jauna goraltzeko ta nere onerako bada. Alaxe.

(Iru Aita gure ta eskaria).

LAUGAREN EGUNA

Otoitza

¡Jesus maitagari Teresa Deunaren maitale aundia! Animak zeruratzeko egari aundia Teresa'ri eman ziniolako, asko ta asko zeruko bidean jafi ta auferatuazi zituen Ama orek, baita lekaimetxeak ugari eginaz erbeste legoia Jesus'en lorategi eder biurtu ere.

Augaitik neri ere lagun urkoaganako egiazko maitasuna emaidazu, Jauna, nere itz eta eginkizun guziak zerurako izan ditezen, baita bederatziuren ontan eskatzen ditzudana ere, Jauna goraltzeko ta nere onerako bada. Alaxe.

(Iru Aita gure ta eskaria).

BOSGAÑEN EGUNA

Otoitza

¡Jesus maitagañi Teresa Deunaren maitale aundia! Ama oñi oñaze ta nekaldiak zure izenez igarotzeko biotz aundia eman ziñion, eta ala ere bizitza neke-oñazez beterik igarotzeko gogoa zeukan: *edo neke-oñazez bizi edo il nai zuela*, esan oi zuen.

Teresa Deunaren eramanpen oregatik neri ere emengo oñaz eta atsekabeak biotz onez eramateko eramanpen aundia emaidazu, betiko zoriona iritxi dezadan, baita bederatziuren ontan eskatzen dituzdana ere, Jauna goraltzeko ta nere one-rako bada. Alaxen.

(Iru Aita gure ta eskaria).

SEIGAÑEN EGUNA

Otoitza

¡Jesus maitagañi ta Teresa Deunaren maitale aundia! Gure Ama Teresa'ri,

deuntasunik goienean arkituañen, aroke-
rian erori gabe iraunteko apaltasunik sa-
kon eta egiazkoena eman ziñion; eta
onela bere alde txalo aundiak entzunañen
beti apal bizi izan zan.

Jesus ona, Teresa Deunaren izenean
egiazko apaltasuna neri ere emaidazu,
nere utsegiteak ikusi ta pekatuz damutu
nadin, baita bederatziuñen ontan eskatzen
ditzudana ere iritxi dezadan, Zu goral-
tzeko ta nere onerako bada. Alaxen.

(Iru Aita gure ta eskaria).

ZAZPIGAÑEN EGUNA

Otoitza

¡Jesus maitagañi ta Teresa Deuna-
ren maitale aundia! Gure Ama Teresa
zeru ta animako arazoetan jakintza aundiz
argitu zendun, onela zeru-bidean guzion
irakasle izan zedin.

Jesus ona, gure Ama oñen irakasle izan
eta ikasbide ontan auñerapen aundiak egi-
tea emaidazu, nere eginbeañak ongi bete

ta bederatziuren ontan eskatzen dedana iritxi dezadan. Alaxe.

(Iru Aita gure ta eskaria).

ZORTZIGAREN EGUNA

Otoitza

¡Nere Jesus on maitagaría! Neke-oñazen alde gogo aundia Teresa Deunari eman ziñion, eta beragatik gizon eta emakumen artean ere nekaldien egañi aundia sortu ta zabaldu zuen ama oñek, lekaimetxe asko era ortara egiñaz. Jesus ona, ama oñen izenez barau, atsekabe ta nekaldiak gogoz artzeko indaía neri ere emaidazu, onela kristau-bidean zuzen ibili nadin eta bederatziuren ontan eskatzen dedana iritxi dezadan, Jauna goraltzeko ta nere onerako bada. Alaxe.

(Iru Aita gure ta eskaria).

BEDERATZIGAREN EGUNA

Otoitza

¡Nere Jesus maitagañi Teresa Deunaren

maitale aundia! Txiki-txikitandik Teresa Deunari Amatzat zure Ama txit garbia eman ziñion, Karmeldar Oñustuen zuzendari aukeratzen zendula, gero Karmen'go lorategia lora bikaiñez apaintzeko.

Jesus ona, Ama Teresa'k zeruko Amaganako zeukan maitasunagatik, nik ere Andra Maria amatzat artu ta bere egiazko semea izan nadiñ egizu; baita beste asko ere Ama ofengana ekañi dezadala, ta azkenez, bederatziurñ ontan eskatzen ditzudana iristea, Jauna goraltzeko ta nere onerako bada. Alaxe.

(Iru Aita gure ta eskaria).



GURUTZEKO JOAN DEUNARI BEDERATZIURENA

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

Eguneroko otoitza

NERE Jaun eta Jaungoikoa, zure oñetan auzpezturik, nere gaiztakeri guztiz oroitzen naiz, ¡Niganako zure maitasun neurígabeari zein gaizki erantzun dioten, Jauna! Ni beti zugandik igeska, ta Zu, artzai ona bezela, ardi galdua zугanatzeko gau ta egunez beti deika. Eta ala ere nik zugandik alde egin det, pekatu egin det, itxasoko ondarak baño ugariago zure aurrean pekatu egin det.

Parkatu, añen, Jauna, zure ondasun

berdingabeagatik, zure erukitasunean goratua izan zaitezten. Onelako erukitasun aundiaren gai ez naizela aitortzen det, Jauna, baña nere Aita Gurutzeko Joan Deunaren irabaziatatik eskatzen ditzut, seme maite onen bederatziurēna ongi egiteko ta bertan eskatzen detana irixteko laguntza, Zu goraltzeko ta nere onerako baldin bada. Alaxe.

Eguneroko Eskaria

NERE aita maitagañi ta bitarteko aundi Joan Deuna, zure aurtzarotik orban gabe ta garbi-garbi bizi izan zīñana, eta beragatik Andre Maria'gandik laguntza aundiak iritxi zīñituena. Aberastasun ta zeruko ontasunez zure anima beterik ikusiaz poztutzen naiz; eta nere eskariak Jaunaren gogokoak dirala ikusten ba'dezu, añen, iritxi zadazu zure bitartez Jaunari bederatziurēn ontan eskatzen diotena, zure omengañi, Jaungoikoa goraltzeko ta nere animaren onerako bada. Alaxe.

LENENGO EGUNA

Eskaria

Nere aita maitagañi Gurutzeko Joan Deuna, gorputz eta animako garbitasunaren eredu argia ta aurtzarotik lizunkeriak gofotatu ta garbizalea izan zīñalako, zeruko Andre Maria' gandik bere maitasun-ezaugañi aundiak irabazi zīñituena.

Nik ere bide garbi ta zuzenean jañaitu nai dizut, eta beraz, Ama oñenganako eraspēn egiazkoa ta garbitasunaren zaletasuna nere biotzean sortu ezazu zure antzekoa izan nadin; eta bederatziuñen ontan eskatzen ditzudana Jaunaren gogokoa ta nere onerako bada. Alaxe.

(Iru Aita gure ta Agur Mari, ta eskaria).

Eguneroko Azken-otoitza

NERE aita maitagañi Gurutzeko Joan Deuna, begira neri zure aũean auzpezturik laguntza eske; Jesus eta Maria ainbeste maite zīñituen ezkerro, eskatzen dezun guzia zuk iritxiko dezu. Nere otoi-

tzak indařík ez dute-ta, nere alde eskatu Jaunari.

Jaunaren bide zuzenean ibilteko nere bizitza aldatu nai det, bear-beańeko da, ordea, nik eskatzen ditzudana irixtea, bide onean jańaitu dezadan nere bizitza guztian. Alaxe.

ŷ. Ora pro nobis, Sancte Pater Joannes.

R). Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Oremus

Deus qui santum Joannem confesorem, Doctorem ac Patrem nostrum perfectæ sui abnegationis ac Crucis amatorem effecisti, concede ut ejus imitationi jugiter inherentes, gloriam assequamur æternam. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

BIGAREN EGUNA

Eskaria

Nere aita ospetsu, Gurutzeko Joan Deuna, ońaze ta atsekabez gaztetxoa zińala zure gor-

putza zigortzen zenduen, Jesus maitearen antzekoa izatearren, nik ere Jaunaren izenean eraman nai nituzke berak bialtzen dizkidan neke-oñaze guziak. Beraz, Jaunagandik esker ori iritxi zaidazu, onela nere pekatuen zor guziak ordaindu ditzadan, eta anima garbiturik bederatziuren onetan eskatzen detana iritxi dezadan, baita gero betiko zoriona zeruan ere. Alaxe.

(Iru Aita gure ta Agur Mari, ta eskaria).

IRUGAREN EGUNA

Eskaria

Nere aita ospetsu txit maitagarria, Jesukristo'k gurutzetik galdetu zizunean: «Joan, nere izenez ainbat neke - oñaze igaro dituzulako, ¿zer nai dezu saritzat?» Zuk saritzat oñaze ta atsekabe geiago emateko esan ziñiozun, onela Jesukristo'ren aintzekoa izan nai zenduelako.

Nere neke ta atsekabeak ongi eramateko gogo sendo ta bizi bat iritxi zadazu neri ere, gogo onez ezpada apaltasunez atsekabeak Jaunaren izenean igaro ta betiko zoriona iritxi dezadan. Alaxe.

(Iru Aita gure ta Agur Mari, ta eskaria).

LAUGAREN EGUNA

Eskaria

Nere aita ospetsu ta maitagaría, gazte-gaztetatik Andre Maria'ganako maitasun sutsua izan zenduen eta Ama oñek bere laguntza berezia agertu zizun, batezere osin sakon baten erori ta lafi arkiturik, Karmen'go Amakur gañera goratu ta añisku artatik atera zinduelako. Beraz, neri ere zeruko Amaganako eraspén eta maitasun berezia iritxi zaidazu, ta bederatziufen ontan eskatzen detana, Jaunaren goralpen eta nere onerako bada. Alaxe.

(Iru Aita gure ta Agur Mari, ta eskaria).

BOSGAREN EGUNA

Eskaria

Nere aita ospetsu ta maitagaría, inpernuko gure etsai galgariari iges eragiteko bidea zein dan gastetatik ikasi zenduen zuk, arako ama ta biok osin baten ondotik igarotzian, deabrua pizti izugaríaren antzean agertu, ta zuk, gurutze santuaren egiñaz, alderagin ziñiolako. Beraz, guri ere gurutzearen indar aundia eza-guerazi zaiguzu etsaiaren ziriketa gaiztoak

kendu ditzagun, eta bederatziurēn ontan eskatzen deguna iritxi zaiguzu. Alaxe.

(Iru Aita gure ta Agur Mari, ta eskaria).

SEIGAĀREN EGUNA

Eskaria

Nere aita ospetsu ta maitagaĀi Gurutzeko Joan Deuna, zure sinismen biziāz eskutapen estalienak sinistuāz, zure gogoa zeruko poz-atsegiĀnetan jartzen zenduen zeruraĀo igotzen ziĀnala gogoz eta sinismenez.

Egiazko sinismen ori emaidazu, bene-benetan gure eskutapen aundiak sinistu ta luĀeko gauzakanako zaletasuna nere biotzetik kendu ditzadan, baita ere bederatziurēn ontan eskatzen detana iritxi zaidazu, Jaungoikoa goraltzeko ta nere animaren onerako bada. Alaxe.

(Iru Aita gure ta Agur Mari, ta eskaria).

ZAZPIGAĀREN EGUNA

Eskaria

Nere aita ospetsu ta maitagaĀi Gurutzeko Joan Deuna, Āzenbat anima Jaungoikoagana zuzendu ta bere maitasunean sutu zituzun! Eta

zure biotzean Jaunaganako zeukan maitasun sutsua norañokoa zan Jaungoikoak azaldu zuen, zure lenbiziko meza ematean aingeru baten eran arkitzen ziñala.

Jaungoikoaganako maitasuna piztu ezazu nere biotzean ere, bere maitasunean emen lufean eta gero zeruan bizi nadin: eta orain bederatziurten ontan eskatzen detana iritxi zaidazu, Jauna goraltzeko ta nere animaren onerako bada. Alaxe.

(Iru Aita gure ta Agur Mari, ta eskaria).

ZORTZIGAREN EGUNA

Eskaria

Nere aita maitagarri Gurutzeko Joan Deuna, zeruko Andre Maria'ri zeneukan maitasun aundiagatik bere laguntza berezia bizitzan iritxi zenduen, baita ere larunbatez il eta Karmen'go Eskapularioaren eskeintz pozgafia irabazi zenduen zuk; zeruko Ama ofenganako maitasun egiazkoa sortu zazu gure biotzean ere, bere laguntza orain eta eriotzako zorian izan dezagun, eta bederatziurten ontan eskatzen ditzudana iritxi zaidazu. Alaxe.

(Iru Aita gure ta Agur Mari, ta eskaria).

BEDERATZIGAREN EGUNA

Eskaria

Nere aita maitagari Gurutzeko Joan Deuna, inpernuko etsai galgariaren maltzurkeriak eza-gutzeko, ta bere asmo gaiztoak kendu ta anima naigabetuai pake ta atsegiña biurtzeko eskubide aundia eman zizun Jaungoikoak; nere biotzari ere estutasunean lasaitasuna ta atsekabeturik dagonean atsegintasuna emaiozu; ta orain bederatziurten ontan eskatzen detana irixi zaidazu, Jaungoikoa goraltzeko ta nere onerako bada. Alaxe.

(Iru Aita gure ta Agur Mari, ta eskaria).



Aur Jesus'en Teresatxo Deunari Bederatziurena

*Gurutze santuaren...
Jesukristo nere Jauna...*

Eguneroko otoitza

INERE zaindari Teresatxo maitagari zoriontsua! Eliz-Amak ain aguro ze-

rutañen artean jañi zaituelako atsegintzen naiz. Jaungoikoaganako zure maitasun gartsu ta neufigabeko itxaropena gizonen zugañako zaletasun gogotsu biurtu dira. Onela datorkizu nere biotza bederatziuñen au zuri eskeintzen dizudala. Abegi onez, añen, nere eskariak artu itzazu, zerura juan baño len zuk esan zenduena gogoratuaz: «Mundutañai on egiten nere zerua igaro nai det, nere eriotz ondoren añosa-auria jetxi-eraziko det».

Añen, bada, gure eskariak ain maite zenduen Jaungoikoari eskiñi uñezko ontzietan, eñuki-euri ugaria jetxi dedin zure bitartez gugana, batezere bederatziuñen ontan nai detan laguntza aundia, Jaungoikoa goraltzeko, zure omen eta nere animaren onerako bada. Amen.

LENENGO EGUNERAKO

Otoitza

¡Nere irakasle ta zaindari zerutar Teresatxo maitagañia! Onbide guzien biztoki

eder-edeña bazan zure anima garbia bizi-
tzako egun-senditik, beren artean sinis-
men sutsua argien arkitzen det. Zure go-
gorapen guziak argibide onek zuzendu
zituen iñoiz atseratu gabe, ilunpe aundie-
tan maiz arkitu baziñan ere, zure zintzo-
tasuna ikustiañen ala Jaungoikoak nai
izanik.

Munduko gertakisun guztiai argi oñe-
kin begiraturik zerubideko eragozpen
guztietan kementsu izateko, sinismen ori
egunetik egunera geitu zaidazu, nere bi-
zitzako egintza guztiak zuzendu, añen,
zeruko bidetik, betiko zoriona iristeko.
Amen.

*(Iru Aita gure ta Agur Maria esan,
eta eskatu nai dana).*

Eguneroko azken-otoitza

¡Jesus'en alaba maite Teresatxo zorion-
tsua! Zure onbide guziak gorengoak zi-
rala erabaki du Eñoma'ko Aita Deunak.
Giza guztiekanako zure biotz ongile ta

samur ori zerutik erbeste ontakoai ongi egiten atzegintzen da, beste pozgaririk ezpazenduke bezela gure negar malko samiñak legortu ta atzegindu baizik.

Zure deuntasunaren usai gozoz eta sinisdunai egunero egiten dizkiezun esker ugarien entsute aundiz, alde guzietan ospetsu dabil zure izena; bañen - bañendik goraltzen dala zure ontasun bikaña, gaxoak osasuna, nekatuak atsedena ta nairgabetuak atsegin pozgaría arkitzen dutelako.

Ni ere zure maitale bikañen artean poz-pozik aitortzen naiz eta bederatziurén ontan goraldtu nai zaitut. Zure izenean Irutasun Deuna gurtu ta goraltzen det, zure izenean guzion Ama gozo Andre Maria onetsi ta goraltzen det; zeruan daukazun betiko atsedenagatik zorionak zuri, ta alde guzietan maitatua, txalotua ta goraldua zerala atzegiñez ikusten det.

Nere eskari gogotsuak aditu zaizkida-zu bada orain, eta Jaunaren aurera eramaitzazu; zu ere maite-maitea zera-ta,

itz bat nere alde esan zaiozu. Orain eta beti bear ditudan laguntzak iritxi zaizkidazu, Jauna maitatu ta goraldiaz betiko zorionekoa izan nadin. Alaxe.

BIGAREN EGUNA

Otoitza

¡Nere irakasle ta zerutar zaindari Teresatxo maitagarria! Zure sinismen sutsuak sortuta Jaunagan zendun itxaropen aundia zugan ikusten det, eta zure burua txiki-txikitzat idukiañen gorengo deuntasunera igo zendula pozik ikusten zaitut, Jaunaren besoetan, seme kutuna amaren magalean bezela, jartzen zina ala uste osoz, naigabe gustiz inguratuta egonañen.

Txoriak egoak eta araiak ura bezin bear-beareko degu goiko itxaropena, ta bizitzako zoritxaretan guri arnasa ta kementa ematen digun zeruko argia berauda. Itxaropen sendo bat Jaunagandik iritxi zaidazu, bizitza ontako naigabez auldu gabe, itxaropen gozoaren iltzez zeruko

Aita maitearen besoetan josi dezadan nere biotza, eta gero iritxi dezadan betiko zoriona. Alaxe.

(Orain iru *Aita gure ta Agur Maria* ta eskaria).

IRUGAÑEN EGUNA

Otoitza

¡Nere irakasle ta zaindari Teresatxo zorunduna! Jainko-maitasunaren opari garbi-garbia izan zīñan zure lendabiziko urtetatik, etzala ilkoñena zure bizitza aingeruena baizik. Jainkoaren begietan ain maitegarī egin zindun maitasun erukitsuari zure biotz osoa eskeñita atsegiñez ikusten zaitut.

Jaunaren maitasunean ain epel nabilelako lotsa naiz, gure zeruko Aita egiz maitatzea zer dan eztakidala.

Zigor-belduñ ta sari-itxaropena alde batera utzirik, onbide guzien artean nagusi ta bikañena *maitasuna* dalako ta gure Jauna berez on-ona ta maitagarīa dalako, biotz-biotzez maitatu bear gendu-

ke. Nere biotz au Jaunaganako maitasunaren abegi kutun eta bereziko atsegintokia izan dedila, zure antzera beretzat bakarik izan nadin eta beste askori ere auxe bera egitera saiatu nadin, orain emen eta gero zeruan. Alaxe.

(Orain iru *Aita gure* ta *Agur Maria* ta eskaria).

LAUGAREN EGUNA

Otoitza

¡Jesus Aurtxoaren loretxo maitagarria! Alderdi guzietan zuganako sortu dan itxaropen gogotsua poz-pozik ospatzen det. Jaunaganako maitasuna lagun urkoaganako maitasun gabe gezurzkoa dala jakinik, guziai on egitea zure pozik aundiena zan, eta zerua bera ere mundutarai laguntzen igaro nai zendula esan zendun. Jaunaren maitasunean suturik daudenai lagundu zaiezu, aŕen, aŕetaz; baita zugana zuzentzen diran guziai ere.

Egiazko maitasuna emaidazu neri ere,

ta batezere gaur sendi guztientzat onespen ugari bat iritxi zadazu. Alaxe.

(Orain iru *Aita gure ta Agur Maria ta eskaria*).

BOSGAREN EGUNA

Otoitza

iJaunaren menpeko Teresatxo apal zoriontsua! Gazte-gaztetatik Jaunaren esan au bete zendun zuk: «Arotzen dana apaldua izango da; ta bere naiez apaltzen dana goratua izango da. Egiz dizutet, etzeratela zeruan sartuko aurtxoan antzekoak ezpazerate egiten; aurtxo onek bezela bere burua apaltzen duena zeruan aundiena da». Egi auek eta Jesus'en jaiaibidea beti gogoan zituzula apaltasun guzietan, janaririk gosoenean bezela, poztutzen ziñan.

Egiazko apalai agindutako saria beteaz, zure apaltasun oregatik zure izena ainbesteraño goraldtu du Jaunak ere. Arokerizko puzoi galgaría aldendu, bada,

nigandik eta zerura eramango nauen apaltasunez apaindu nere anima. Amen.

(Orain iru *Aita gure* ta *Agur Maria* ta eskaria).

SEIGAÑEN EGUNA

Otoitza

¡Emakume biozdun eta gogotsu Teresatxo agurgafia! Samintasun eta era guzietako atsekabez inguraturik arkituañen biotz aundi oñen sendotasunez kementsu agertu zera gure begien añaan martiri dontsuen koroï edeña irabazten dezula. Gogoz esan oi zendun: «Nere sendotasuna Jauna da, Jaunagan itxaroten dakianak sendotasuna beragandik artu oi du; eta Jainkoa gure alde z egon ezkerogure kaltez norik ezer egin dezake? Augatik iru urte zeneuzkanetik eskatutako oparirik etziñion Jesus maiteari ukatu.

Nere ezereztasun ta etsaiak menperatzeko daukadan ergaltasunari begiratuta, nere eginbeñak ongi betetzeko laguntza

Jaunagandik iritxi zadazu, betiko zoriona egunen batean irabazteko. Alaxe.

(Orain iru *Aita gure* ta *Agur Maria*, ta eskaria).

ZAZPIGAÑEN EGUNA

Otoitza

¡Deuntasun-bideko irakasle bikain Teresatxo Karmeldar zoriontsua! Nekaturik arkitzen ziñanean, biotz aundiko zure Ama Teresa'ren eran deuntasuneko biderik eñasen eta mamintsuena zein dan laster ezagutu zendun; eta gurutz-bideari jaraitu ziñion gogoz eriotz alderako; martiri guztien neke-oñazeak igaro nai ziñituen, Jesus maitea zigortu ta gurutzean josia izan zan bezela; katamotzen ezpetan arkitu nai ziñan Iñaki Deuna bezela; boñeruen asañean Zezili, Iñezi ta Agate bezela, onela maite zendun Jesu'si zure bizi-opari edeñá eskeintzeko.

Zaletasun oñen bidez, orain zeruan daukazun bureztun eder ori irabazi dezu.

Jaunaren naimenean bizi az bere gogoko irudia izatea ta neke samĩnak pozik igarotzeko zaletasun bizi bat iritxi zaizkida zu, betiko zorionekoa gero izan nadin. Alaxe.

(Orain iru *Aita gure ta Agur Maria*, ta eskaria).

ZORTZIGAREN EGIJNA

Otoitza

¡Nere zaindari zerutar Teresatxo zoruntsua! Zure onbide goratuen artean, Jaunaren besoetan etsanda, beraganako zeneukan maitasun samur eta uste osoa argiro ikusten degu. Zeruko Aita Jaungoikoagan dena itxonda, umetxo baten eran apaltasun zamurẽean bizitza guzia igaro zendun. «Inoiz ere eztegu Jaungoikoagan uste geiegi izaten. Aurtxoa amaren magalera bezela, itxaropen aundi ta samurẽz bere oñetara eldu bear gera». Au da zuk maiz esaten zenduna.

Jaungoikoaganako maitasun aundi ori

neri iritxi zaidazu, emengo gora beratan zauritu gabe bizi nadin eta gero zeruko nere Aita maitearen ondora eldu nadin. Alaxe.

(Orain iru *Aita gure* ta *Agur Maria*, ta eskaria).

BEDERATZIGAREN EGUNA

Otoitza

¡Karmel-mendiko lore usaintsu Teresatxo deuna! Jaunaren aintza zaintzeko gure Ama Teresa ta gure aita Elias igarle nagusiak piztu zituzten sugar biziak, zure anima garbian ederki bildu zituzun: ardi asko Jesus'en artaldera ekartzeko mixiolari izan nai zendun gizaldiak bukatu arte, Jesus'en maitasunak orixe eskatzen zigulako, ta lan eder oñi ekin eta ekin zeruan ere etziñala iñoiz ere aspertuko.

Egitan lan ori auñera daramazu Zerutik, egunero emengoai laguntzen diguzula ta arosa-euri edeña jetxi eragiten dezula erbeste neketsu onetara. Guri laguntzen

jañaitu, bada, Teresatxo deuna; mixiolari, irakaslari, ta benetako zaindari izan zaizkiguzu. Ez aztu batezere nitzaz zorionekoen kai edeñera eldu arte, zu bezela gurutzeari musuka iltzen naizela, ta zuk esan zituzun itz oroigariak nere askenekoak ere izan bitez: «Maite zaitut, ene Jauna, maite zaitut». Alaxe.

(Orain iru *Aita gure* ta *Agur Maria*, ta eskaria).





Purgatorioko animen alde Bederatziurena

Eguneroko otoitza

NERE Jaun eta Jaungoikoa, ¡zein argiak diran zure begiak, bada etzaiote mundu onetan egin alditezkean utsegite txikienik ere eskutatzen! zure begiak gure biotzetan arkitzen diran orban guztiak ikusten dituzte. ¡Zein zuzen ta beldurgaria dan zure zuzentasuna, bada ez dio zeruan sartzen inñori uzten, ezta zure adizkiderik aundienari ere, bere zor guztiak osoro ordaindu arte, ta eluía baño zuriago ta eguzkia baño edeíago bere anima jaíi arte, edo emen edo Garbitokiko oñaze gogórez.

Zure adizkidetasunean ilten diranak ere,

geienak Purgatoria juten dirala sinisten degu, Jauna. Anima erukañi oriek zure erukitasunari begira daude, beren begi, beso ta biotzak zugana biurtuaz. Beraz, gure egikizun onak, batezere bederatziur-en ontan, zure aurrean eskeintzen dizkitzugu anima aien alde.

Ea bada, Jauna, zure jaungoikozko odol, zure Ama Maria ta zerutar guzien irabaziz gure egikizun on guztiak bilduta bialtzen dizkitzugu anima erukañi aien zoñak ordaintzeko.

Egun onetako gure otoitzak aditu, entzungo ditugun mezak ontzat artu itzazu, ta gure egikizun on guztiai begira, bada guztiak anima aien alde eskeintzen dizkitzugu lenbaitlen zerura jun ditezen. Alaxe.

LENBIZIKO EGUNA

Eskaria

Izugañiak dira purgatorioko oñaze atseka-beak, eta oñaze beldurgañi aien erdian gure

guraso, senide, adizkide ta lagun maiteen anima erukañiak arkitzen dira. Nun dauden galdetzen badegu, zuzko karobietan batzuek, olio irakiñetan besteak eta berun urtuetan besteak arkitzen dirala elizgizon jakintsuak esango digute. ¡Zein oe biguñak atzedentzeko!

¡Jaungoiko guzialdun, erukitsu ta anima oien aita maitagaña! Ez dizu inork ez nun eta ez nola arkitzen diran anima aiek esan beaфик, guzia dakizulako; zuk eskubide guztia daukazu nai dezuna egiteko zeruan ta lurrean bezela, Purgatorioan ere.

Eta beren zofak ordaindu arte ezin atera ba' litekez, añen, Jauna, gure eginkizun onai, Andre Maria'ren irabaziai ta Jesukristo'ren jaungoikozko odolari begiratuta, anima oiekaz erukitu zaite ta lenbaitlen zerura eramán itzazu. Alaxe.

(Jesukristo'ren bost zauriai *bost Aita gure ta Agur Maria...*)

Azken otoitza

JAUNGOIKO guzialdun eta Aita maitagaña, Purgatorioan lañi ta zugandik alden-

durik dauden anima gaixoakaz erukitu zaite; Jesukristo'k kalbarioko mendian ixuri zuen olda ta bere aurrean Andre Maria'k igaro zituen atsekabe saminak beren zofen ordaintzat artu itzazu, Jauna.

Gure guraso, aide ta lagun maiteen alde eskeintzen dizkitzugin otoitzak entzun zaizkiguzu. Lenbaitlen eraman itzazu, Jauna, betiko zerura.

Eta zuk, Karmen'go Erégin maitagari ta Purgatorioko Ama erukaari orek, zure Karmen'go jantzi edera eraman, eta zure seme zintzoak izandako aien anima gaixoakana begi erukitsu oiek itzuli itzazu, zure bitartekotasunez onaze aietatik atera ta zerura jun ditezen. Alaxe.

(Orain *Ne recorderis...* eta *Fidelium Deus...* esango dira).

BIGAREN EGUNA

Eskaria

Pekatuz edo pekatuen zora ordaindu gabe ilten danik ezin diteke zeruan sartu osoro garbitu arte, ta, beraz, Purgatorioa bear-beare-

koa da. Karmen'go Ama erukitsuak badaki nolako oñazeak dituzten anima aiek, eta Karmen'go Eskapularioz ilten diranen alde eskeintz pozgaría egin du esanaz: «Karmen'go Eskapularioan sartuta dagon bat ilten danean Purgatoria juten baldin bada, ni, bere Ama laztana, lenbiziko larunbatean ara jetxiko naiz, eta an arkitzen ditudan Karmen'go anai guziak zerura eramango ditut».

¡Au bai eskeintz aundi ta pozgaría dala! Mila esker, Karmen'go Ama maitea; ta bederatziurén ontan gure otoitzak entzun eta Purgatorioan dauden anima gaxoaz erukitu zaite. Alaxe.

(Jesukristo'ren bost sauriai bost *Aita gure ta Agur Maria...*)

IRUGAREN EGUNA

Eskaria

¿Purgatorioan anima erukafiak zenbat beta egin bear ote dute? Batsuk urte askotan egon omen dira: bat mila urtean egon omen zan, beste bat bi mila urtean, eta Erroma'ko Aita Santu batek dionez, munduaren bukaera arte egon bearko dute batsuk.

Gogora dezagun orain Karmen'go Amaren eskeintz aundia, ta bera irabaziaz lenbiziko larunbatean Purgatoriotik irten eta zerura juten bagera, inolako poz eta atsegiña gurea!

Bai, ala izan dedila, Karmen'go Ama eukioña, ta orain bederatziurén ontan eskatzen ditzuguna iritxi zaiguzu. Alaxe.

(Jesukristo'ren bost zauriai bost *Aita gure* ta *Agur Maria...*)

LAUGAREN EGUNA

Eskaria

Karmen'go Amak Purgatorioaren alde egin digun ezkeintza inola aditu bear degu? Karmen'go Amak esaten digunean: «Ni bere Ama laztana Purgatoria jungo naiz lenbiziko larunbatean», ez du esan nai *larunbatean bakarrik* jungo dala, baizik lenbaitlen, ta batezere *larunbatean* jungo dala.

Baña inola Ama ofek egin lezake ain eskeintz aundia? ori geiegi ematea da, esango du baterenbatek... Bai, zuk bezelako biotza izan ba'lu, etzigun emango ainbeste, baño inbai al dakizu ama baten biotza nolakoa dan, ta zeruko Ama ofena batezere? Ta Ama ofek

badaki nolako oñazeak dituzten anima oiek, eta beren alde ezin dutela ezer egin; ¿nola ezta erukituko...?

Bai, Karmen'go Ama, Purgatorioko animaren Ama zu zera ta lenbait len atera itzazu oñaze aietatik, ta bederatziurén ontan eskatzen deguna iritxi zaiguzu. Alaxe.

(Jesukristo'ren bost zauriai bost *Aita gure ta Agur Maria...*)

BOSGAREN EGUNA

Eskaria

Karmen'go Amak Purgatorioaren alde egin zigun eskeintza irabasteko iru gauza egin bear ditugu: Karmen'go Eskapularioan sartu; bakoitzak bere bizieran garbitasuna gorde; ta azkenez, Eskapularioan sartu ziñanean agindu zizkizuten otoitzak, edo *zazpi Aita gure ta Agur Maria* esan. Onetzaz gañera parkamen osoa Eskapularioan sartzeaz eta ileroko elizkizunera etoñiaz irabazi dezakezu, baita 500 eguneko parkamenak Eskapularioari muxu ematen diozun era bakoitzean ere. ¡Zein laguntza aundiak Purgatorioko animen alde!

Karmen'go Ama maitegaría, eskeintz aundi

auek irabazi ditzagun lagundu zaiguzu orain, eta bederatziuren ontan eskatzen deguna irixi zaiguzu. Alaxe.

(Jesukristo'ren bost zauriai bost *Aita gure* ta *Agur Maria...*)

SEIGAREN EGUNA

Eskaria

Gauza atsegingarria da Purgatorioa ba'dala jakitea, baita gure eskuetan daukagula Purgatorioko animai laguntzea ere. ¿Ta nola lagunduko diegu? Gizon batek zor badizkio beste bati 100 lauerleko, guk oni ordainduaz besteari zofa kentzen diogu; era berean, gure egikizun onak eta parkamenak Jaungoikoari eskeñiaz anima aien alde, beren zofa ordaintzen degu. ¿Laguntzarik onena ta indartsuena zein ote da? Gure otoi ta egikizun on guziak egokiak dira, baña onena, indartsuena ta beste guziak baño obea *Meza deuna* da.

Saiatu gaitezen, bada, anima erukañi aiei laguntzen, al ditugun Mezak atera edo ezin atera baditugu entzunaz, laguntzarik *aundiena* au dalako, ta gutzaz ere Jauna erukituko da.

Eta orain Karmen'go Ama maitea, bedera-

tziuñen ontan eskatzen deguna iritxi zaiguzu. Alaxe.

(Jesukristo'ren bost zauriari bost *Aita gure* ta *Agur Maria...*)

ZAZPIGAREN EGUNA

Eskaria

Begira, kristaua, nola arkitzen diran Purgatorioko anima erukañiak: Jaungoikoak ez die barkatzen azkeneko zora ordaindu arte; berak ezin dute ezertxo irabazi, ortarako garaia eriotzaz amaitu zalako; baña guri begiratzten digute begiak negañez beterik: «erukitu zaitetze gutzaz... *miseremini mei...*» Ez al diegu, bada, lagunduko, ez al diegu eskua luzatuko?

Edo ez degu sinisten gure sinismen santuak esaten diguna edo bai, sinisten ezpadegu ez gera kristauak ere, ta sinisten ba'degu ¿nola ez diegu laguntzen anima erukañi aiei? Bei bat edo saldi bat zulo batera erortzen da, ta bereala dijoazte andik ateratzera; Purgatorioko su ikaragafietara erortzen da anima bat, deadar egiten digu, negañez urturik eskatzen

digu laguntza, ta ez diogu entzun nai, ez diogu eskua luzatu nai... Karmen'go Ama maitea, anima aiekaz erukitu zaite, ta orain bederatziuren ontan eskatzen deguna iritxi zaiguzu. Alaxe.

(Jesukristo'ren bost zauriai bost *Aita gure* ta *Agur Maria...*)

ZORTZIGAREN EGUNA

Eskaria

Bernardo Deuna Meza ematen ari zala zerutik luñerañoako bide argitsu bat ikusi zuen, eta an gora ta bera aingeruak zebiltzala, Purgatoriora jetxi ta ango animak eskutik artuta zerura eramaten zituztela. ¿Zer gertatzen ote zan Meza artean? Bernardo Deunaren Mezak anima aiek azkatuta zerura bialtzen zituela; ta au bera Meza bakoitzean gertatuko da nozki.

Jesukristo'k Meza bakoitzean kalbarioko oñaze ta eriotza igarotzen ditu, ta zeruko Aitari bere zauri, oñaze, ta eriotza Purgatorioko animen alde eskeintzen dizkie, beren burnizko kate gogofak autsita zerura jun ditetzen.

Efukitu gaitezen, bai, anima efukañi aiekaz eta lagundu Mezaren bidez; baña nola eztakigun zenbaterañoeko zofak dauzkaten, ez zenbat ordaintzen dien Jaunak aldi edo Meza bakoitzean, Meza asko atera edo entzun bear dira, zenbat geiago obe. ¡Jaungoiko aundia, Purgatorioko laba gorietan negañez dauden anima gaixoak atera itzazu ainbat lasterren eta betiko atzedena emaiezu zeruan! Eta zuk, Karmen'go ta Purgatorioko Ama efukañi ofek, bederatziurén ontan eskatzen deguna iritxi zaiguzu. Alaxe.

(Jesukristo'ren bost zauriai bost *Aita gure* ta *Agur Maria...*)

BEDERATZIGAREN EGUNA

Eskaria

Begira kristaua, negañez eta deadarka laguntza eskatzen dizun anima ori nor dan; babilteke zure aita izatea, daukasun ondasuna ainbeste lan eginda eman zizun aita; zuri ainbat aldiz mezatara ta elizkizunetara lagundu zizun ama gaxoa. Eta orain aita ta ama oiek negañez esaten dizute: ¡toki au zein izugafia dan eta zerua zein zoriona! ¡Noiz

jungo ote-gera zerura Jaungoikoa ikustera?

Guk ezin degu ezer egin, baña gure seme-alabak lagunduko digute. Nere seme-alaba biotzekoak ¿noiz aterako ote gera Purgatoriotik? Itxoin, erantzungo diote biotz gabeko seme-alabak, orain emengo arazoetan gabil-tza, emengo atsegiñak artu bear ditugu... Baña, guk seme-alaba onak bezela erantzun bear diegu: guraso maiteak, seme, alaba, lagun, adizkide biotzekoak, lazter, bereala Mezak atera, barkamenak irabazi ta otoitz egingo degu zuen alde, ta aguro zeru edeñera bialduko zaitugu.

Ez gaitez an biotz gogofekoak izan, guk neurtzen ditugun neufiz neurtuak gu ere izango gera-ta.

Jesus maitagaña, efukitu zaite Purgatorio-ko animakaz, batezere gure guraso, seme, alaba, aide, lagun eta adizkez, ta ainbat lastefen ikusi dezatela zeruko argia—Ta zuk, Karmen'go ta Purgatorioko Ama efukior ta maitagañi oñek, bederatziufen ontan eskatzen deguna iritxi zaiguzu. Alaxe.

(Jesukristo'ren bost zauriai bost *Aita gure* ta *Agur Maria...*)



RITUS SERVANDUS

in impositione S. Scapularis B. V. Mariæ
de Monte Carmelo.

Ÿ. Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

R). Et salutare tuum da nobis.

Ÿ. Domine, exaudi orationem meam.

R). Et clamor meus ad te veniat.

Ÿ. Dominus vobiscum.

R). Et cum spiritu tuo.

Oremus

Domine Jesu Christe, humani generis Salvator, hunc habitum, quem propter tuum tuæque Genitricis Virginis Mariæ

de Monte Carmelo amorem servus tuus (ancilla tua) devote est delaturus (delatura), dextera tua sanctifica, ut eadem Genitrice tua intercedente ab hoste maligno defensus (defensa), in tua gratia usque ad mortem perseveret. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. Amen.

Deinde aspergat aqua benedicta habitum et postea ipsum imponet dicens:

Accipe hunc habitum benedictum precans Sanctissimam Virginem, ut ejus meritis illum perferas sine macula, et te ab omni adversitate defendat atque ad vitam perducatur æternam. Amen.

Deinde dicat:

Ego ex potestate mihi concessa, recipio te ad participationem omnium bonorum spiritualium, quæ, cooperante misericordia Jesu Christi a Religiosis de Monte Carmelo peraguntur, In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. Amen.

Aspergat aqua benedicta.

RITUS SERVANDUS

in benedictione et impositione sacri Numismatis ac receptione ad Confraternitatem divini Infantis Jesu sub titulo Pragensis a S. R. C. die 10 decembris 1913 approbatus.

Sodalitati huic nomen duturus, si ætas sinat, ipso die ad poenitentiae atque Eucharistiae sacramenta accedat, ut plenariam indulgentiam a Pio X concessa lucrari valeat.

Si fieri potest, Numisma benedicendum est ad altare divini Infantis Jesu, duobus cereis accensis.

Sacerdos superpelliceum induat, una cum stola albi coloris.

Genuflexo, qui Numisma recipit, Sacerdos stans dicat:

ÿ. Adjutorium nostrum in nomine Domini.

R). Qui fecit cælum et terram.

Ÿ. Dóminus vobiscum.

R). Et cum spírítu tuo.

Oremus

Dómine Jesu Christe, qui de cælis in terram descéndere, et tuæ vitæ obscónditæ ac ineffabílium virtutum exémplo nos instrúere dignátus es: super hoc Numismatis signum, tuam bene ✠ dictionem benignus infúnde; ut devóte illud gestántes et sanctæ tuæ infántiæ exémpla sequéntes, tuum séntiant auxílium, tuámque misericordiam consequántur. Qui vivis et regnas in sæcula sæculórum. Amen.

Deinde Numisma aspergat aqua benedicta, et ipsum postea imponens dicat:

Accipe sanctum Numisma, gesta fidéliter, et digna veneratióne proséquere; ut Dóminus noster Jesus Christus úberi sua benedictióne te répleat, et ab insídiis ac mundi corruptióne præservet. Amen.

Inde subiungat:

Ego auctoritate, qua fungor, et mihi concessa, recipio te ad Confraternitatem divini Infantis Jesu sub titulo Pragensis, et investio, ac participem te facio omnium bonorum spirituálium ejúsdem Confraternitátis. In nómine Patris, ✠ et Filii, et Spíritus Sancti. Amen.

His expletis, Sacerdos aspergat Confratrem aqua benedicta et describat eius nomen in albo Sodalitatis.

Si plures simul recipiendi sint, mutetur numerus.

BENEDICTIO NUMISMATUM ET IMAGINUM

ŷ. Adjutorium nostrum, etc.

Oremus

Omnipotens sempiterne Deus, qui Sanctorum tuorum imágenes pingi, vel

effigies sculpi non réprobas, ut quoties illas óculis corporis intuemur, toties eorum actus et sanctitatem ad imitandum memoriae óculis meditemur; hoc, quæsumus sacrum numisma vel Imáginem, in honorem et memoriam Unigéniti Filii tui Dómini nostri J. C., adaptatum bene ✠ dicere et sancti ✠ ficare digneris; et præsta, ut quicumque coram illo Unigénitum Filium tuum supliciter cólere et honorare studuerit, illius méritis, et obtentu a te gratiam in præsentí, et æternam gloriam obtíneat in futuro. Per eundem C. D. N. Amen.
(Aspergitur aqua benedicta).

**BENEDICTIO CORONÆ JESU
PRAGENSIS**

ÿ. Adjutorium nostrum, etc.

Oremus

Omnipotens et misericors Deus, qui

propter nimiam caritatem, qua dilexisti nos Filium tuum unigénitum Dóminum nostrum Jesum Christum pro redemptione nostra, de cœlis in terram descéndere et de Beatissimæ Virginis Mariæ útero, Angelo nuntiante, carnem suscipere voluisti, ut nos de potestate inimici eríperes, obsecramus clementiam tuam, ut hæc signa Rosarii (vel coronæ), in honorem et laudem ejusdem Filii tui infantis Jesu bene ✠ dicas et sancti ✠ fices, eisque tantam infundas virtutem Spíritus Sancti ut quicumque horum quódlibet secum portáverit, vel devote recitáverit, multiplici gratiæ et indulgentiæ tuæ dono ditatus, æternam in cœlo coronam obtinere mereatur. Per te, Jesu Christe, Salvator mundi: qui vivis et regnas cum Deo Patre in unitate Spíritus Sancti Deus, per omnia sæcula sæculorum. Amen.

(Aspergitur aqua benedicta).

BENEDICTIO PUERORUM ET PUELLARUM

Ÿ. Adjutorium nostrum in nómine Dómini.

R). Qui fecit cœlum et terram.

Ÿ. Dóminus vobiscum.

R). Et cum spíritu tuo.

Oremus

Dómine Jesu Christe, qui párvulos tibi oblatos, et ad te venientes complexus es (*hic ponat manus super cápita puero- rum*), manusque super illos imponens, benedixisti eis atque dixisti, «Sinite párvulos venire ad me, et nolite prohibere eos; talium est enim regnum cœlorum», réspice quâesumus ad puerorum (vel puellarum) præsentium, innocentiam et ad eorum parentum devotionem et clementer eos (vel eas) bene † dic, ut in tua gratia

semper proficiant, te sapiant, te diligant, te timeant, mandata tua custodiant, et ad optatum finem feliciter perveniant, per te, Salvator mundi, qui cum Patre et Spiritu Sancto vivis et regnas Deus in sæcula sæculorum. Amen.

Benedictio Dei Omnipotentis, Pa † tris, et Fi † lii, et Spiritus † Sancti descendat super vos, custodiat atque dirigat vos, et maneat semper vobiscum. Amen.





ELIZ-ABESTIAK

ALDAREKO SAKRAMENTU DEUNARI

I

Jaun-artzean abestutzeko

*Atoz, Jesus maitea,
Atoz bai gugana.
Izan zaite guziona
Jabe eta Jauna
Ori poztazun aundi.
Berdingabekoa,
Biotzean artzea
Jesus goi-goikoa!*

1.^a

Ozti onetsi ortan
Arkitzen zera Zu,
Begi txit eder oiek
Biurtu zaiguzu.

2.^a

Zeru eta lufeko
Jabea Zu izanik,
Janari egin zera
Gugatikan pozik.

3.^a

Ostatuaren biā
Zatoz Zu gugana,
Nere biotz txiki au
Artu zazu, Jauna.

4.^a

Jauna, ez naiz ni ga-
Zu ongi artzeko, [uza
Itztxo bat ezan zazu
Gutziz sendatzeko.

5.^a

Onetsitzen banazu
Zure esku orekin
Izango naiz ni gero
Betiko zurekin.

II

Atozkit, Jauna

*Jauna, nere biotzak
Deitzen dizu,
Atozkit, bada, laister
Nere Jesus.*

Batzuek:

Egiaz sinisten det
Or zaudela,
Nere Jaun eta nere
Jaungoikoa.
Atoz, Jesus maitea,
Biotzera.

Intzik artzen ez duen
Loretxua
Laister ikusiko da
Igaftua:
Ni ere Jesus gabe
Naiz galdua.

Zuregandik io Jauna!

Ni uruti,

Ezin ninteke inolaz

Ez ni bizi:

Zure zai gau ta egun

Nago beti.

III

Ogi zerutik

Ogi zerutik

Etoñiya

Zu zera gure

Poz guztiya.

Bildots santua
Ara emen,
Munduko gaitzak
Kentzearen,
Sagrariyoan
Non dagoen,
Luña zeruaz
Bat egiten.

Misteriorik
Aundiena,
Jaungoikoaren
Oroimena,

Gozotasunik
Gozoena,
Gizonentzako
Dagoena.

Gauza guzien
Egilea,
Zeru ta luñen
Eregea,
Gure artean
Bizitza,
¡Zer zoriona
Dan gurea!

Etzaitut begiz	Sakramentuan
Nik ikusten,	Nola zauden
Baña bai fedez	¡Jesus laztana
Det sinisten	Gu maitatzen!

IV

Oñ zaude Jesus

Oñ zaude Jesus

Aldarean

Gorde nai zaitut

Biotzean.

Zeruetako Jaun aundia,	Ontasun danen iturria
Egiñik gure janaria;	Iltzeko gure egaña,
O maitetasun ugaria	O eskutapen pozgaña,
Gizonarentzat geyegia.	Zeru ta luñen miraria.

Ondo gabeko itxasoa,
Zerutik jetxi zeran sua,
O maitetasun ain osua,
Animarentzat txit gozua.

Gau-gurtzaliñen abestia

1

Goratu dezagun alkar arturik
Gure Jaun laztana
Kristo Eroslea Ostia'n dagoena
Gurtu zagun apal auzpezturik.

Gora ta gora Jesus
 Zeru ta luŕen Jaun eta Jabea
 Oyu alayak zuri, orain ta beti
 Maitasuna zuri, Jaun maitea.

2

Ogiyen antzpean Jainko aundia
 Janari egiñik
 Ostia'n dago gaxoen sendakiya
 Otoitz bada, otoitz biotzetik
 Gora ta gora

PRAGA'KO JESUS AURTZOARI

I

*Zure oñetan ¡O Jesus Aurtxoa!
 Ez da arkitzen atsekaberik,
 Pozez beterik biotz osoa,
 Zure maitasunez zuturik.*

1

Zoriontasun egiaskorik
 Biñatu nai baldin badegu,
 Praga'ko Jesus txit maiteagan,
 Beti, bai arkituko degu.
 (*Zure oñetan etc.*),

2

Adizkide bat biātzen nuan
Aurtxo txikitxoa nintzala,
Ama nereak esaten zidan,
Nere anaitxoa ziñala.

(Zure oñetan, etc.)

3

Praga'ko Jesus Aurtxo maitea,
Nigandik ez egin igesik,
Etzaiarena ez det izan nai
Zurea bai beti, poz-pozik.

(Zure oñetan, etc.)

II

«*Euskal eñi onetan
Eguzki bat agertu da
Praga'ko Jesus Aurtxoa
Izar' en argia*».

1

Gurekin bizi nai du
Aldarean beti
Ezkeintzen badizkiogu
Biotzak ugari.

2

Bera izan dediā
Aurtxoen Eñege
Baita geure biotzen
Jauna eta Jabe.

3

Gurtzen degula emen
Erbeste onetan
Berak artuko gaitu
Gero zeruetan.

III

Bi aldiz

*Bizi bedi Jesus gugan,
Bizi bedi biotzean.*

1

¡O Jesus txit laztana!
Izpilu garbia,
Biurtu begi oiek
Anaitxoengana.

(Bizi, etc.)

2

Begira beti guri,
Zure aur maiteai,
Izan gaitezan gero
Zeruko jabegai.

(Bizi, etc.)

3

Egin gaitzazu, Jesus
Zure antzekoak,
Izan nai degu beti
Zure anaitxoak.

(Bizi, etc.)

4

Zu zera, aurtzo maite
Jesus Praga'koa,
Eguzki garbi, eder,
Zeru goi-goikoa.

(Bizi, etc.)

Azken - agurá

I

Agur, Aurtxo maite,
Jesus Praga'koa,
Agur, agur, agur,
Nere anaitxoá.

1

Zure edertasun
Zoragarriak
Eraman dizkigu
Biotz guziak.

2

Begi eder oiek
Zeruko argiak
Biurtu zaiguzu
Pozez beteak.
(Zure edertasun, etc.)

3

Ezkeintzen ditzugu,
Jesus Aurtxo,
Guziok pozikan
Biotz osoa.

(Zure edertasun, etc.)

4

Lagun guri emen
Mundu galduan
Zureak nai degu
Izan zeruan.
(Zure edertasun; etc.)

Azken - agurá

II.

Agur, Aurtxo maitea
Praga'ko Aur Jesus,
Esku polit ofekin
onetsi gaitzazu.

Zer zoriona zure ondoan
Beti bizi al izatea!
Ez, afen, joan nigandik, Jesus
Nerekin bizi, txit maitea.

JESUS'EN BIOTZARI

I

Ez da zerurako

Ez da zerurako

Beste biderik

Jesus'en Biotza

Bezelakorik.

1

Jesus'en Biotza
 Begiraturik
 Guretzat ez dauka
 Eruki baizik.

2

Biotz ori dago
 Beti zabalik
 Pekatarientzat
 Itxi gaberik.

3

Zeru ta luñean
 Ez da biotzik
 Jesus'enak ainbat
 Maite gaitunik.

II

Izan zaitez beti

Izan zaitez beti
Jesus maitea,
Gure biotzaren
Jaun ta Jabea.

1

Jesus'en Biotza
Dago suturik
Maitasuna agertzen
Alde guztirik.

2

¿Nun arkituko da
Biotz gogořik,
Biotz onen suban
Urtuko ez danik?

3

Ez du Jesus onak
Ez atsegiñik
Gu oso bereak
Egin gaberik.

4

Bere biotzean
Danok arturik
Geratzen da Jauna
Pozez beterik.

5

O Jesus maitea!
Artu bai pozik
Guztion biotzak
Betiko gaurtik

6

Or bizi nai degu
Maitez urturik
Zure biotzean
Ongi gorderik.

III

Jauna nere biotzak

*Jauna, nere biotzak
Deitzen zaitu,
Atozkit bada laister
Ene Jesus.*

1

Intzik ez dutenean
Loretxoak
Laister gelditzen dira

Igartuak;
Ni ere ilko ninduke
Zugabeak.

2

Neregandik ba-zaitut
 Ain uruti
 Ezin nitekelako
 Luñan bizi
 Zure zai gau ta egun
 Nago beti.

3

Artzai on maitagarri
 Zeran Jesus,
 Zure artalde ortan
 Ar nazazu,
 Alkar bizi gaitezen
 Ni eta Zu.

IV

O Biotz maite

*O Biotz maite**Maitatia**Zu gure Erege**Jaun aundia.*

1

Goazen kristauak
 Ain da munduan
 Nola zeruan
 Agurgarri.
 Goazen, guk ere
 Au gurtu zagun
 Ta gora zagun
 Biotz ori.

2

Zu zera, Jesus
 Maite-maitea
 Nere Jabea
 Ta Jainkoa.

Natorkizu ni
 Naigabeturik
 Ta oso apaldurik
 Zure auñera.

3

Atoz gugana
 Jesus maitea
 Zure agindua
 Betetzera;
 Zu zera gure
 Jaun eta jabe
 Bizi zu gabe
 Ezin gera.

4

Adizkidetzat
Zugandutzera
Zure biotzera
Natorkizu;

Artu nazazu
Bařen orëtan
Ta eunki danetan
Euki nazu.

INAZIO DEUNARI

Iñazio,
Gure Zaindari aundia
Jesus'en Lagundia
Zuk bildu
Eta indartu dezu,
Ez da ez etsairik
Jañiko zaitzunik
Iñolaz auñean
Gaurko egunean,
Naiz betor
Luzifer gokaiztua
Utzirik inperua.
Zure Lagundia
Beti da bildur gabe,
Bere Jaun ta Jabe
Da Jesus aundia.

Garaitu ditu
Zure Lagundiak
Etsayak
Ez dauka Eleizak,
Ez Euskal-erriak,
Ez dauke bildurik
Iñungo aldetik,
Iñazio or dago,
Beti indartsuago,
Dauka Lagundia
Su-gañez betia,
Guda guda nairik
Ikuñiña zabalik,
Gaut'egun guk
Guziok pakea dezagun
Beti gau eta egun.

KARMEN'GO AMA'RI

I

Zeru goi-goitik

Zeru goi-goitik Karmengo Amak
beti beriak zaindu ditu,
berak zaintzea gura badezu
zindo maitatu egikezu.

1

Karmengo mendirantza itxaso barutik
odei zuri polit bat etoñi zan goitik
Jaunak bialduba zan amaren aurretik
an biurtuko zalako erukiz gugaitik
erukiz gugaitik.

2

Ene Ama maitea, ume zurtz naukazu,
Zure magalpe ortan estaldu nazazu:
Or baruan artu ta ondo zaindu nazu,
Zugaz ni izan nadin beti zoriontsu.

II

Agur Birjiña garbi

Agur Birjiña garbi Ama Karmengoa,
Agur lore txit eder gure Eregiña,

Agur Birjiña garbi Ama Karmengoa,
Agur lore txit eder gure Eregiña.

1

Zure babes biguñ ta gozoaren biñ
Luñeko erbestean guziok gabiltza,
Purgatoriora gu erortzen bagera
Añen len bait len andik gaitzatzu atera.

ANDRE MARIA'RI

I

Nere Ama

*Nere Ama txit laztana
Ni zuretzat añ-nazu,
Lagundu ta gorde beti
Zeruratu nazazu.*

Ama batek ezin badu
Semia gaizki ikusi,
¿Nola amarik onenak
Al-izango nau utzi?

Deabruak, griña txarñak,
Eta mundu galduak
Gogaituta nauke, Ama,
Luzatu zure eskuak.

Negañezko erbestian
Asko igarotzen degu,
Gure malko samintsuak
Añen, Ama, legortu.

II

Izar eder

*Izar eder**Zoragaña**Zeru goian**Zera Maria.*

1

Goizeko-izaña
Ez da aiñ edeña
Nola dan, Maria,
Zure soñera.

2

Gutziz edeña
Zera Maria,
Sortzetik zera
Garbi-garbia.

3

Graziaz zu zaitu
Jaunak apaindu,
Zeruak dituzu
Edeñez gaindu.

4

Grazien iturri
Aitzen ez dana
Guretzat zera zu
Ama laztana.

III

Zeruko Ama

*Zeruko Ama, izar argiya,
Zugana gatoz poz pozik;
Gure biotzak ar zaizkigutzu,
Zaindu gaitzatzu zerutik.*

Oroitu zaite, Ama on-ona,
 Iñoiz ere esan ez dala
 Zuri deituta, laguntza gabe,
 Iñortxo utzi dezula.

Biotz-biotzez gure Eriyak
 Zaindari zaitu autetsi;
 Ama, begira Eri gaxo au
 Gorde ezazu beti beti.

IV

Goazen guztiok

Goazen, goazen guztiok

Birjiña Amagana

Eskeintzera biotzez

Loretxo eder bana.

1

Lore mota guziak
 Luñaren gañean
 Zure antzeko dira
 Edertasunean.

2

Berdiñik ez dezula
 Garbitasunean
 Lirio edefak dio
 Arantza tartean.

3

Loreak utsak dira
 Ez bada biotzik
 Onbidez apaindua
 Loretan gorderik.

4

Ar zazu maitasunez
 Bai doaiz jantzirik
 Ama, gure biotza
 Lorakin bildurik.

V

Agur Jesus'en Ama

1

Agur Jesus'en Ama
 Birjiña Maria,
 Agur itxasoko Izar
 Dizdiatzaña,
 Agur zeruko Eguzki
 Pozkidaz betia,
 Agur pekatarien
 Kaya ta estalpia.

2

Agur, gizonen Ama,
 Zeruko Eregiña,
 Ama gozo txit maite
 Oberik eziña;
 Zugandik joatea
 Gauza da samiña,
 Agur nere biotzeko
 Poz eta atsegiña.

3

Agur, gure poza ta
 Atsegin guzia,
 Atsekabe danetan
 Gozokai ezta.
 Agur Birjiña eder
 Txit zoragaña,
 Artzazu biotza ta
 Torizu bizia.

4

Baña zugandik alde
 Biotzak ezin du,
 Zuregana dijoa,
 Zugan bizi nai du.
 Birjiñ berdin gabea,
 Onetsi nazazu
 Agur, Ama nerea
 Agur, agur, agur.

VI

Lourdes'ko agur

Agur, agur, agur Maria
Agur, agur, guztiz garbia.

1

Zeru eta munduak
Zurekin pozturik,
Kanta-kantari daude
Biotzak suturik.

2

Maria, sortu ziñan
Orban gabekoa,
Deuntasun guztiakin
Apaindutakoa.

3

Oñ-azpian lerturik
Luzbeli burua,
Garaitu dezu, Ama,
Betiko inpernua.

4

Maite, gorderik zaude
Gure biotzetan,
Artu gaitzatzu, Ama
Gero zeruetan.

VII

Agur, erugabeko

Agur, erugabeko
Birjiña Maria;
Agur, zeruko Izar
Lauzorik gabia;
«Guztiz zera edera»
Zenduen aditu,
Jaunagandik mundura
Ziñanean sortu:
Ez det bada erurik
Zuregan arkitu,

Adan'en pekatuan
Etzera kutsutu.
Bertatik eguzkiak
Zinduen apaindu,
Ilargia oñetan
Zitzaizun geratu;
Zure burua izafak
Zuten koroatu,
Zeru-lufeko galak
Zugan ziran bildu.

VIII

Goazen, goazen

Goazen, goazen guztiok

Mariarengana

Goazen bai eskeintzera

Biotz eder bana.

1

Zu zera gure Ama
Birjiña Maria,
Izar eta eguzki
Guztien argia;
Aingeruen Eregin
Egiz gurgaria,
Izan zaite euskaldun
Danen Zaindaria.

2

Zure semeak pozez
Gera gaur elkartzen,
Ta dizkigutzu gure
Biotzak eskintzen;
Ongi dakizu Ama
Zugan dana etortzen,
Zure mantupe ortan
Dezula jasotzen.

IX

Ama maite Maria

Ama maite Maria

Egiguzu lagun

Zure bitartez Jesus

Ikusi dezagun

1

Aingeruzko liriyo
 Txit edergaia
 Usai gozozko lore
 Zerutik jetxia;
 Gorde nazazu Ama
 Guztiz maitatia
 Ez dezadan zikindu
 Onbide garbia.

2

Zure koroï edera
 Ugaritutzeko
 Añen eskatzen dizut
 Lagun egiteko;
 Atozte, bai, gazteak
 Zeruratutzeko
 Birjiña deiez dago
 Argana joateko.

MIXIOETARAKO

Atoz, pekataria

*Atoz, pekataria,
 Atoz Eleizara,
 Jaungoikoaren itza
 Gogoz aditzera.*

Pekatuen neuria
 Bete ez dezazun,
 Aditu Jaungoikoak
 Zer esaten dizun.

Ez egon pekatuan,
 Ez egon luzaro,
 Damu izan ez dezazun
 Alperikan gero.

Pekatuan oera
 Etziten bazera,
 Benturaz inpernuan
 Esnatuko zera

Urterik asko Jaunak
 Zuri eman dizkitzu.
 Eta danak pekatuz
 Zuk bete dituzu.

GARIZUMARAKO

Jaungoiko dontsua

Jaungoiko dontsua,
 Jaungoiko indartsua,
 Jaungoiko ilezkoia,
 Gaitz guzietatik
 Aldendu gaizuz, Jauna.

AGURÁ EDO SALBEA

Agur Efégiña

Ama erukioia

A. Gure bizi, gozo ta itxaropena

Agur

Zure deiez gaude

A. Ebaren ume erbestetuok

Zuri aiezka

Antziz ta negarez

A. Negar eri onetan

Ea, bada,

Itzuli itzatzu

A. Gure bitarteko on ofek
Itzuli gugana

A. Zure begi erukitsu oiek

A. Eta erbeste onen ondoren

Erakus zaiguzu Jesus,

Zure sabeleko Seme

Bedeinkatu ori

A. A. O Biotz bera!

A. A. O Erukioía!

A. O Mária Birjiñ gozoa!

Otoiz egizu

Gure alde

Jaungoikoaren Ama Done ofek

A. Jesukristo gure Jaunaren

Aginduak

A. A. Irabaz ditzagun

Amen.

b Jaungoikuak gorde zaizala Eregiña

b erukiz beteriko Ama

a bizitza, gozotasun eta itxaropen geuria

b Jaungoikuak gorde zaizala

b Zeuri deijez gagoz

a Ebaren ume erbestetuok

b Zeugana gatoz gu zizpuruz

b sentimentuz eta negaiez

- a* negañezko eñi onetan
b ea bada Andria
b bitarteko geuria
a biurtu egizuz gugana
b Zure begi eñukitsu oñek
a eta erbeste au irago eta
b erakutsi egiguzu Jesus
b Zeure sabeleko frutu
b bedeinkatua.
aa ¡Oh bijotz-biguna!
aa ¡Oh eñukioña!
b ¡Oh Maria Birjiña gozue!
b eñegutu egizu gugaiti
b Jaungoikuaren Ama santia
aa merezidu daigun
b jaritxitia
a Jesukristoren eskintzarijak
b Amen Jesus.



ARKIBIDEA


Orialdea

Eskeintza	5
Irakurleari.....	6
Goizeko Otoitzak.....	8
Añatseko Otoitzak.....	14
Aitortza	17
Jaunartzeko ta ondorengo Otoitzak	23
Meza deuna.....	31
Agurtza (errosarioa) esateko era.....	41
Karmen'go Amari Bederatziurēna.....	43
» » asteroko ikustaldea.	58
» » etxerik - etxe egiteko ikustaldea	63
» » eskeñitako Uztariā.	69
» » Bederatziurēn laburā	117
Karmen'go eskapularioa	123
Praga'ko Jesus Auraganako eraspēna..	131
» » Aurari Bederatziurēna..	141
» » » » laburā	161
» » » Iruēna.....	168
» » » Ileroko elizkizuna	173
» » » etxerik-etxe iġe- roko Otoitz-aldia	181
» » » Letañak	186
Praga'ko Jesus Aurari norberēn ezkein- tza	190

	<u>Orialdea</u>
Gurutz-Bidea.....	192
Jesus'en Biotzari IX Ostiralak.....	216
Aldareko gure Jaunari.....	227
Jose Deunari Zaspi igandeak.....	233
» » Bederatziurana.....	240
Ama Teresa Deunari Bederatziurana	250
Gurutzeko Joan Deunari »	259
Teresatxo Deunari »	268
Purgatorioko arimen alde »	281
Ritus servandus in impositione Scapularis B. V. Mariæ de Monte Carmelo.....	293
Ritus servandus in receptione ad Con- fraternitatem Inf. Jesu de Praga.....	295
Ritus servandus in benedictione imagi- num Inf. Jesu de Praga.....	297
Ritus servandus in benedictione Coronæ vel Rosarii.....	298
Ritus servandus in benedictione puero- rum.....	300

ELIZ - ABESTIAK

Aldareko gure Jaunari.....	302
Praga'ko Jesus Aurtxoari.....	306
Jesus'en Biotzari.....	310
Inazio Deunari.....	313
Karmen'go Amari	314
Andre Maria'ri	315
Mixioetarako	321
Salbea (bi eratara).....	322



Chapter I. The History of the Church	102
Chapter II. The History of the Church	110
Chapter III. The History of the Church	120
Chapter IV. The History of the Church	130
Chapter V. The History of the Church	140
Chapter VI. The History of the Church	150
Chapter VII. The History of the Church	160
Chapter VIII. The History of the Church	170
Chapter IX. The History of the Church	180
Chapter X. The History of the Church	190
Chapter XI. The History of the Church	200
Chapter XII. The History of the Church	210
Chapter XIII. The History of the Church	220
Chapter XIV. The History of the Church	230
Chapter XV. The History of the Church	240
Chapter XVI. The History of the Church	250
Chapter XVII. The History of the Church	260
Chapter XVIII. The History of the Church	270
Chapter XIX. The History of the Church	280
Chapter XX. The History of the Church	290
Chapter XXI. The History of the Church	300
Chapter XXII. The History of the Church	310
Chapter XXIII. The History of the Church	320
Chapter XXIV. The History of the Church	330
Chapter XXV. The History of the Church	340
Chapter XXVI. The History of the Church	350
Chapter XXVII. The History of the Church	360
Chapter XXVIII. The History of the Church	370
Chapter XXIX. The History of the Church	380
Chapter XXX. The History of the Church	390
Chapter XXXI. The History of the Church	400
Chapter XXXII. The History of the Church	410
Chapter XXXIII. The History of the Church	420
Chapter XXXIV. The History of the Church	430
Chapter XXXV. The History of the Church	440
Chapter XXXVI. The History of the Church	450
Chapter XXXVII. The History of the Church	460
Chapter XXXVIII. The History of the Church	470
Chapter XXXIX. The History of the Church	480
Chapter XL. The History of the Church	490
Chapter XLI. The History of the Church	500

Julia. Gammuchay

Gammuchay

